

Zu hemen zaude.

goiena

EMAKUMEAK, AUTOGINTZA TAILERRERA


Lanbide Heziketako Automozio
Emakumeen Lehen Topaketa
egingo dute martitzenean
Aretxabaleta Lanbide Eskolan / 2

Maialen Iarza, Uxue
Morales, Cristina Blanco
eta Nekane Martinez,
Aretxabaleta Lanbide
Eskolaren tailerrean.

XABIER URZELAI

**Debagoieneko Ahal
Dugu kritiko azaldu da
Jaurilaritzaren eta
Elkarrekin Podemosen
arteko akordioarekin / 4**

**Zubieta kalea,
lehenasunen artean
Bergarako Udal
Gobernuaren
aurrekontuan / 34**


**GABONAK ARRASATEN 2019
+ SANTAMASAK / 21**

SINADURAK	
 IÑAKI ETXEBESTE / 6	 AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ / 29
 PERU ABARRATEGI / 14	 ESTEBAN IRUSTA MALLEA / 32
 PALOMA MARTINEZ / 15	 MIGUEL LAZPIUR / 36
	 AINTZANE OIARBIDE / 48

 + Emun eta Garabide,
nawat hizkuntza
biziberritzen
Xabier Amuriza
bertsolari eta
idazleari elkarriketa



Goiena Klubeko bazkidetza %30 merkeago

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehenasunezko mezenasgo jardura izendapena jaso zuten 2018an Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Ondorioz, besteak beste, Goiena Klubeko bazkide beldin bazara edo egiten baldin bazara, zerga onurak ezarriko zaizkizu Golenari egin diozun ekarpenarengatik. Goiena Klubeko bazkidetza kuota %30 merkatuko zaizu errenta aitortzen egiterakoan.

**BAZKIDE EGITEKO, DEI EGIGUZU: 943 25 05 05
EPE-MUGA: 2020KO URTARRILAREN 31.**



Hainbat kementziotan deskontuak.
Puntuak aldirikaria izan daitezen.
Deskontuak Goienko ingurri salatu eta eskaintzen.
Zozketak eta promozioak

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Aretxabaleta Lanbide Eskolan 76 ikasle dabilta. Automozioiko ikasketak egiten aurtzen eta horietatik 75 gizonetzkoak dira. Uxue Morales aretxabaletarra da 76. ikaslea. 16 urte ditu eta ikasturte honetan hasi da Automozioa ikasten, "betidanik" gustatu izan zaionari jarraiki.

"Auto eta motor zaletasuna izan dut betidanik eta DBH bukatzean autogintza ikastera animatu nintzen. Klasekideek eta irakasleek "oso ondo" hartu dutela azaldu du, eta askok, izandako ausardia baloratzen dutela aitortu. Lehen mailako ikaslea da Morales, eta, oraindik lan munduarekin harremanik izan ez duen arren, etorkizunean mekanika arloan ikusten du bere burua: "Nire ametsa Moto GPko tailer batean lan egitea da, baina tailer batean nik neuk lana bakarrik aurrera ateratzea ere gustatuko litzaidake".

Lan mundura, "arazo barik"

Maialen Iarza arrasatearra ere Automozioiko ikasle izan zen Aretxabaletan eta oroitzapen onak ditu ikasle garaiaz: "Ez nuen beste emakumerik ezagutzen hori ikasten zuenik eta aurretik ez nuen inor ezagutzen klasekideen artean. Hasieran, beldur pixka bat izan nuen, baina, egia esanda, denek oso ondo hartu ninduten".

Uxue Moralesen kasuan bezala, Iarza ikasle zenean ere bakarra izan zen eskola osoan autogintza ikasten. Hala ere, ez da "sekula" diskriminatuta sentitu, eta ikasleak eta irakasleak "ederto" portatu zirela aitortu dute.

Ikasketak amaituta, lan mundura saltoa emateko orduan ez zuen "inolako" arazorik izan, eta, egun, mekanika-ko tailer batean egiten du lan: "Mutilek indar handiagoa izan ohi dute, baina dena ez da indarra. Nire kasuan, orain ordezko piezekin lan egiten dut, baina mekaniko lanetan ere aritu naiz, inolako arazorik gabe".

Autoa "ukitu ere ez"

Kristina Blanco bergararrak, ordea, bizi izan zuen diskriminazio kasu bat: "Behin, tailerrean lanean nengoela, bezero batek ez zidan utzi bere autoa ukitu ere egiten". Halakoak ohikoak ez diren arren, batzuetan bere



Cristina Blanco, Nekane Martinez, Uxue Morales eta Maialen Iarza. XABIER URZELAI

Tailerrean lan egiteko prest

Euskadiko Lanbide Heziketa zentroetako 50 bat emakumek parte hartuko dute Aretxabaleta Lanbide Eskolan martitzenean egingo den Automozioiko emakumeen lehen topaketan. Emakumeen presentzia aldarrikatzea dute helburu

lana "gehiago" aztertu izan dutela aitortu du. "Ondo egiteko gai zarela ikusten dutenean, hurrengoan zuk egiteko eskatzen dizute".

Elgoibarren egin zituen autogintza ikasketak, "betidanik" bizi izan duenari jarraiki: "Aitak tailerra izan du eta ni bertan

ibili izan naiz txikitatik. Gustatu egiten zitzaidan eta banekien hainbat gauza ikasten hasi aurretik". Hain zuzen ere, zikloa egiten hasi zenean, ikaskide askok baino gehiago zekien; kasu honetan ere, denak gizonetzkoak ziren.

Berdintasuna oinarri

Leire Urretxok ere oso lotura estua dauka Aretxabaleta Lanbide Eskolarekin, baina hura irakasle lanetan. Bakarra da autogintzan, eta bakarra izan da bertan lanean daramatzan sei urteetan.

"BEHIN, TAILERREAN LANEAN, BEZERO BATEK EZ ZIDAN AUTOA UKITZEN UTZI, BAINA EZ DA OHIKOA"

Topaketa hau egiteko ideiaz galdetuta, "berdintasuna" azpimarratu du: "Lanbide Heziketa- ren baitan aldaketa ugari izan dira eta horiei esker pisu handia hartu du berdintasunak. Gure kasuan, autogintzan, hori nola landu lanean hasi ginen eta topaketaren ideia sortu zen".

"EMAKUME ZEIN GIZON, BERDINA EGIN DEZAKEGULA ALDARRIKATU NAHI DUGU"

Topaketaren garrantzia

Denak bat etorri dira, lehenengoz antolatu duten topaketak "berebiziko garrantzia du". Elkar ezagutu eta esperientzia partekatzeo aukera bat izatea espero dute, baita autogintza emakumeengana gerturatzeko: "Oso garrantzitsua da jendeak ikustea emakumeak baduela lekua hemen. Autogintzan aritu nahi duten emakume gazteentzat erakusleioa izan daiteke, beldurak galdu eta erakusteko gizonak bezain baliagarri eta apeztiatuak direla mundu honetan". Hain zuzen, horixe bera azpimarratu du Blancok: "Lan mundura salto ematerakoan, enpresa eta tailerrean esfortzua baloratzen dute eta badakite horrek dakarren guztiarekin emakume batek bide hau aukeratu badu benetan gustuko delako dela".

Maialen Iarzak honela dio: "Emakumeek eta gizonen berdina egin dezakegula aldarrikatzeko oso garrantzitsua da". Eta zerbait egiteko laguntza eskatu behar bada ere, "ez dago arazorik". Morales gaztea ere bat etorri da eta topaketa elkar ezagutzeko tresna ona izan daitekeela azpimarratu du: "Hau ez da soilik gizonentzako lana. Garrantzitsua da emakumeok batu eta esperientziak partekatzea".

Egitarau oparoa

Euskadiko Lanbide Heziketa Zentroetara egindako deialdiak erantzun "zabala" izan du eta Elektromekanika, Karrozeria eta Automozio ikasleak dira ekitaldian egongo direnak. Topaketan parte hartzeko 50 emakume inguru etorriko dira, Lanbide Heziketako bederatzi zentro-tatik: Gipuzkoako Don Bosco eta Meka; Bizkaiko Emilio Campuzano, San Jorge, San Viator, Iurreta eta Ezkurtze; eta Arabako Egibide eta Mendizabala.

Gaur egun automozio sektorean lanean diharduten hainbat emakumerekin mahai-ingurua egingo dute: Lanbide Heziketako ikasle ohiak, inguruko automozio sektoreko enpresetako ordezkariak eta Meka Lanbide Eskolako Automozio irakasle batek hartuko dute parte. Iraitz Agirrek gidatuko duen saioaren ostean, auto elektrikoekin Urkuluko urtegiari buelta emango diote. Era berean, Emakundeko presidente Izaskun Landaidak ere parte hartuko du topaketan.

Euskalit-en 'Zilarrezko A' saria jasoko du Goienak

Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak 'Zilarrezko A' Kudeaketa Aurreratuaren Euskal Saria lortu du. Hedabide batek lehen aldiz jasotzen du sari hori. Eguaztenean, abenduaren 18an, jasoko du Gasteizko Europa jauregian

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE

Aintzatespen honekin saritzen dira praktika aurreratuak dituzten eta bere interes taldeen-bezeroak, pertsonak, bazkideak eta gizartea besteak beste-asetetze orekatua bilatzen dituzten erakundeak.

Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarteak, era guztietako euskarri komunikatiboz baliatuz, eta Debagoienetik ari-tuz, euskararen normalizazioa, sustapena eta erabilera ditu helburu. Debagoieneko euskara elkarteak-bazkide nagusiak-eta udalak, lan bazkideekin batera, dira kooperatibako bazkideak. "Oso pozik gaude, aitoren in-



Goienako egoitzako erredakzioa, Arrasaten. GOIENA

portantea delako guretako. Talde guztiarendako. Goienako lankideak, Goienako gainerako bazkideak, Debagoieneko gizartea, bezero komertzialak, irakurleak, ikus-entzuleak, erabil-tzaileak... Uste dugu denon saria dela eta bakoitzari zati bat dagokiola", dio Iban Arantzabalek, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusiak.

Goiena da Debagoieneko enpresa bakarra aurtien Euskaliten aitortza jasoko duena. *Zilarrezko A*, hain justu ere, Tubacex-ek, Fronton Electronicak, Spri agenziak eta Mercabilbaok jasoko dute, Goienarekin batera.

Goiena.eus, Goiena telebista, Arrasate Irratia, GOIENA aldizkaria eta *Puntua* aldizkaria kudeatzen ditu Goienak. Horretaz gain, Tokikom tokiko euskarazko hedabideen elkargoko kide denez, elkargo horrekin eta elkargo horretako kide diren beste hedabide batzuekin batera hainbat proiektu komunikatibo kudeatzen ditu, hala nola *Ttap* eta *Zut* aldizkari digital multimediak. Beste hainbat zerbitzu komunikatibo ere eskaintzen ditu.

Lehiakortasunaren elementu

Euskalit Fundazioak dioenez, sariaren helburua da EAEko kudeaketako erakunde aurreratuak identifikatzea, "kudeaketa aurreratuak lehiakortasunaren funtsezko elementu gisa ezartzearen garrantziaz sentsibilizatzeko" sare sozioekonomikoa eta erakundeen emaitzak hobetzeko.

"Inportanteena da prozesu honetan ikasi duguna. Goiena aztertzen ibili diren zazpi kanpo-ebaluatzaileek egin dituzte 22 elkarrizketa Goienako lantaldean. Horietatik jaso dituzte Goienaren indarguneak eta ahulguneak. Txosten horrek balio digu jakiteko, esate baterako, zer daukagun hobetzeko" dio Arantzabalek. Eta gehitu du: "Duela urte bi, diploma jaso genuen eta aprobetxatu genuen kudeaketa aurreratuak eskatzen dituen parametroetan kudeatzeko enpresa. Lan handia egin du lantalde guztiak".

Euskaliteko Ebaluazio Kluba osatzen dute modu altruistan elkarlanean aritzen diren 2.000 zuzendarik eta teknikarik baino gehiagok.

Bailarako Ahal Dugu eta zuzendaritza ez datoz bat

Elkarrekin Podemosek Eusko Jaurlaritzarekin adostu ditu 2020ko aurrekontuak. Koalizioaren baitan, Ahal Dugu abstenitu egingo da –bailarako Podemos Arrasateko zinegotziak erabakia gaitzetsi du–. Ezker Anitza-IUK ez ditu aurrekontuak babestuko

Maialen Santos DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzak –EAJ eta PSE-EE– Elkarrekin Podemos koalizioarekin egindako akordioak ahalbidetuko du datorren urteko, 2020ko, aurrekontuak aurrera ateratzea. Hala, 201,5 milioiko aurrekontua hitzartu dute, guztira; horietako 88,9 inbertituko dituzte 2020an, hiru arlo ezberdinetara bideratuta. Batik bat, politika feministetan, klima aldaketan eta familiak, gazteak eta enpresak babesteko neurrietan lan egiteko baliatuko dute kopuru hori. Aldiz, gaintzeko 112,6 milioiak konpromiso-kredituetarako erabiliko dituztela adostu dute –2027ra bitartean egikaritu beharko dituzte horiek–.

Elkarrekin Podemosek Jaurlaritzaren aurrekontua babestuko duen arren, koalizioaren baitan jarrera kontrajarriak azaldu dituzte alderdiek. Hamaita legebiltzarkide ditu, guztira, koalizioak, eta horietako bederatzia abstenitu egingo dira; hain zuzen, Ahal Duguko zortziak eta Equoko bakarra. Ezker Anitza-IUKo gainontzeko bi legebiltzarkideek, bestalde, ez dituzte aurrekontuak babestuko. Hone la azaldu dio GOIENARI alderdiko koordinatzaile Isabel Saludek: "Uste dugu ez direla aurrekontuak babestu ahal izateko baldintzak betetzen". Gaineratu duenez, azken asteetan birritan bildu dira Ezker Anitza eta EAJ, baina bigarren bileran "argi" ikusi ahal izan zuten jeltzaleak ez zeudela "negoziatzen jarraitzeko" prest. Zehazki, erreforma fiskalean eta enplegu plan indartsu bat egitean jarri gura luke fokua Ezker Anitzak, baita lan arloko inspektoreen lantaldea handitzean ere, enpresen iruzurak gehiago kontrolatu eta langileen segurtasun baldintzak bermatzen direla ziurtatzeko. Saludek dioenez, EAJk "bestelako" interes batzuk zituen;



Lander Martinez Elkarrekin Podemoseko bozeramailea, erdian. PODEMOS EUSKADI

"ARGI IKUSI GENUEN EAJ EZ ZEGOELA NEGOZIATZEN JARRAITZEKO PREST"

ISABEL SALUD, EZKER ANITZA

horrenbestez, ezin izan zuten negoziatzen jarraitu eta, are gutxiago, aurrekontuak babestearen aldeko jarrera azaldu.

Ahal Duguk, abstentzioa

Ahal Duguk bailaran duen zinegotzi bakarrak, Podemos Arrasateko Igor Urizarrek, uste du "akats handia" dela abstentzia; izan ere, abstentzioak "praktikan aurrekontuak babestea dakar". Hala eta guztiz ere, argi utzi nahi izan du hori bere iritzia dela; ez, ordea, Ahal Duguko zuzendaritzarena. Iritzi kontrajarriak dituzte, beraz, bailarako Ahal Duguk eta taldeko zuzendaritza orokorrak. Alderdi barruan ere iritziz askotariko jendea dagoenez gero, kideen arteko "kontsulta" egin dute asteen; hala, Ahal Duguko kide orok bere iritzia eman ahal izan du, nolabait, erabakia abs-

"PERTSONALKI USTE DUT AKATS HANDIA DELA AHAL DUGU ABSTENITZEA"

IGOR URIZAR, PODEMOS ARRASATE

tentziorantz "nahiko bideratuta" egon arren. Urizarren aburuz, 2020ko aurrekontuekin egingo diren inbertsioek "murrizketak" ekarriko dituzte, "batez ere", osasun arloari dagokionez.

Elkarren artean, "errespetua"

Elkarrekin Podemos koalizioaren baitako ezberdintasunak "errespetatu" egin behar direla uste dute biek –Saludek eta Urizarrek–. Ezker Anitza-IUKoak dioenez, koalizio barruan adosten dena "programa" izaten da; hain zuzen, hori da alderdi guztiak batzen dituen: "Horretarako batzen gara, elkarrekin indartsuagoak izateko". Hortik kanpo, botoa emateko "askatasunak" agintzen duela dio. Eta, iritziz kontrajarriak sortu arren, koalizio barruan harremana ez dela aldatu aitortu du, eta "elkarrekin" lanean jarraituko dute.



Alicia Gomez arrasatearra, iaz, ASPEGI saria jasotzen. ASPEGI

Emakumeen aldeko lanagatik aitortza jasoko du ASPEGIk

Alor ekonomikoan egindako lana saritu nahi izan du Aldundiak; Gipuzkoako Urrezko Plaka jasoko du

M.S. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendarien Elkartek, ASPEGIk, jasoko du aurten Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen duen maila goreneko aitortza: Gipuzkoako Urrezko Plaka. Aldunditik azaldu dutenez, elkartek emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren alde alor ekonomikoan egin duen lana aitortu nahi izan dute. "Aldundiak aitortu behar du ASPEGIk gure lurraldearen garapenaren alde egindako lana, enpresen efikazia eta eraginkortasuna bultzatuz", azaldu dute.

ASPEGIko lehendakariak, Nerea Ibañezek, GOIENARI azaldu dionez, "errekonozimendu hau elkartetik haratago doa, Gipuzkoako emakume langile guztien gana heltzen da". Eta gaineratu du "izugarri pozik" daudela orain artean egindako lana saritua izango delako. Bere aburuz, sa-

riak berdintasunerantz bidea egiten jarraitzeko balioko du, batez ere, arlo "ekonomiko" eta "enpresarialari" dagokionez.

650 bazkide

Elkartea sei pertsonaren artean sortu zuten arren –1998an–, 650 bazkidek baino gehiagok osatzen dute egun; tartean, zenbait Debagoiendarrek. "Gipuzkoako elkartea izanik, baditugu bazkideak Debagoiengan", azaldu du Ibañezek. Are gehiago, bailaran emakume enpresariak "errepresentazio handia" dutela nabarmendu du. Aitortu duenez, orain urte batzuk, Garaia Parke Teknologikora gonbidatu zuten hitzaldi bat ematera, eta bertan, bailarako emakume enpresari, profesional eta zuzendarietara "topo" egiteko aukera izan zuen. "Gogoan dut ezagutu nituen emakumeek sekulako lana egiten zutela egunerokoa", dio.

Gazte Txartel berria jasoko dute 14 eta 29 urte bitartekoek

60.000 gazte inguruk jasotzen dute gaur egun Gazte Txartela; eta, aurrerantzean, Euskadin errolatuta dauden 14 eta 29 urte bitarteko gazteek doan jasoko dute txartel berria, etxean.

Abantaila berriekin dator Gazte Txartela; Euskal Herrian 2.000 komertzio ingurutan erabil daiteke eta deskontuak, zozketak, bidaia aseguru eta halako aban-

tailak eskaintzen ditu. Abantaila horiez gozatu ahal izateko, baina, txartela aktibatzea ezinbestekoa da, Gazte Txartelaren webgunera sartu eta zenbait datu emanda.

Bestalde, Gazte Txartela erabilgarri dagoen komertzioetan bereizgarri bat egongo da bezeroek informazio hori izan dezaten. Horrekin batera, www.gazteaukera.euskadi.eus atarian jarri dute informazioa eskura, Gazte Txartela zein zerbitzutan erabil daitekeen azalduta.



Kanpanzarko mendatea, gainetik. JABI SANTOS

Kanpanzarren beste erreia bat egitea aztergai

Elorriotik Kanpanzarrera doan bidean, N-636 errepidean, beste erreia bat egitea aztertzen ari da Bizkaiko Foru Aldundia. Errepide horretan goizean sortzen diren auto-ilarek eta kamioiek eragindako zirkulazio motelari aurre egiteko neurria litzateke

Maialen Santos DEBAGOIENA

Duela 25 urte hasi ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko foru aldundiak Beasain eta Durango arteko ardatza eraikitzen. Ardatz osoa errepide azkarra izan dadin zatika aritu dira lanean urte hauetan guztietan. Aurten, martxoan, egin dituzte azken lanak Deskarga eta Bergara lotzen dituen errepidean, eta orain, proiektu honetan urrats bat gehiago egitea aztertzen ari da Bizkaiko Aldundia.

Kanpanzarko mendateak lotzen ditu Elorrio eta Arrasate –hots, Bizkaia eta Gipuzkoa–, baina errepide motela da, zirkulazio handia izaten duelako.

Batez beste, guztira, 6.242 auto igarotzen dira mendatetik egunero. Goizeko zortziak eta hamarrak artean igarotzen dira ibilgailu gehien –egunean igarotzen diren %20–, eta, sarritan, auto-ilarak sortzen dira. Bertatik igarotzen diren ibilgailuetako asko karga handiko kamioiak izaten dira, gainera

–ibilgailu guztien %17–, eta horrek zirkulazioa "are gehiago" moteltzen duela azaldu du Bizkaiko Foru Aldundiko Iker Arrastiok. Errepidearen beraren ezaugarriak dagokienez, makurra da eta bihurtu asko ditu, eta, beraz, bi erreia izan arren, sarritan "zaila" izaten da aurreratzeak segurtasunez egitea.

800 metroko erreia

Elorrio eta Arrasate arteko errepidea azkarrago bilakatu eta zirkulazio arazoei aurre egite aldera, lanak egitea aztertzen ari da Bizkaiko Aldundia. "800 metroko tarte batean hirugarren erreia bat egitea ari gara aztertzen", azaldu du Arrastiok. Zehazki, 35+800 eta 36+620 pun-

KANPANZARKO MENDATEAN 800 METROKO ERREIA BAT EGITEA AZTERTZEN ARI DA ALDUNDIA

tu kilometrikoen artean egingo litzateke erreia. Gaineratu duenez, oraindik proiektuaren gainean ari dira lanean, lanak aurrera eramatea posible izango litzatekeen jakiteko: "Orain, lan horrek izango lukeen inpaktua ari gara aztertzen; bai ingurumenekoa, baita ekonomikoa ere". Hurrengo urratsa proiektua onartzea izango litzateke, baina horretarako "goiz" da oraindik, Arrastioren aburuz. Ondoren, lana lizitaziora aterako lukete proiektuarekin jarraitzeko.

Proiektua aurrera aterako baltz, 3,50 metroko zabalerako hiru erreia izango litzuke errepideak tarte batean, eta elkarren artean metro erdiko distantziak bereiziko litzuke. Zehazki, igotzeko bi erreia izango litzuke mendateak –Arrasaterako noranzkoan– eta jaisteko, aldiz bakarra. Errepidea egungo beharretara egokitzeko 1,2 milioi euroko inbertsioa egin beharko luke Bizkaiko Aldundia, eta lanek hamahiru hilabete iraungo lukete.

Salerosketatan iruzurrik gerta ez dadin, kontuz jokatzeko deia

Adinekoek eta pertsona zaurgarriak pairatzen dituzte iruzur gehienak. Ertzaintzak kontuz jokatzeko eskatu du

M.S. OÑATI

Geroz eta ohikoago bilakatu dira etxez etxeko salerosketak; produktu bat saltzeko asmoz, saltzaileak eurak joaten dira etxeko atarira, eta bertan gauzatzen da negoziazioa. Horietako salmenta batzuk, baina, "indarkeriazko" teknikak erabilia egiten direla azaldu du Ertzaintzak. Hala, gehienetan, "adinekoei" eta "pertsona zaurgarriak" (bulerableak) zuzentzen zaizkie iruzurgileak: "Konbentzitu egiten dituzte saltzen ari diren hori erosteko, eta jendeak, presiopean, erosketa sinatzen du". Denetarik produktuak saltzen dituzte; esaterako, entziklopediak, sofak eta koltxoak. Eta izugarritzko diru kopuruak eskatzen dituzte horien truke: "Batuetan, hilean kobratzen duten pentsioa baino gehiago eskatzen diete biktimei".

Duela bi aste, horrelako egoera batean ikusi zuen bere burua Carlos Alonso adindun oñatiarrak. Azaldu duenez, ezin du "ziurtatu" iruzurra egin nahi izan ziotenik, baina telefonoz jaso zuen deia "benetan bitxia" iruditu zitzaioela aitortu du. Hain justu, elikadurari buruzko ikerketa bat egiten ari zirelako deitu zioten etxera, "galdera batzuk" egiteko, eta, bide batez, datu pertsonalak eskatu zizkieten. Dei hartan, hurrengo egunean bi emakume etxera joango zitzaizela jakinarazi zioten, eta Alonso bisitaren kontra azaldu zen: "Emaztearentzat krema bat ekarriko zidatela esan zidaten,

baina nik ez nuen eurengandik ezer nahi. Are, esan nien ez nuela euren bisitarik nahi". Gaineratu duenez, "zeharo ikaratu" zuen bisitaren berriak, eta Ertzaintzari gertatutakoaren berri ematea erabaki zuen. Hala, bi emakumeak etxera gerturatu zirenean, Ertzaintza arduratu zen eurekin egon eta bisita ekiten. "Eskerrak eman behar dizkiot Ertzaintzari, arreta ezin hobea eman izanagatik", nabarmendu nahi izan du oñatiarrak. Horretaz gain, dio ez zituela emakumeak "iruzurgileak" hartu nahi, baina, bisitaren ezezkoari jaramonik egin ez ziotela ikusita, beraren eta emaztearen "segurtasuna" mantentzeko deitu behar izan zuela Ertzaintzara. Azken hauek, berriz, datu pertsonalik ez emateko eta dokumentuak sinatu aurretik "arretaz" irakurtzeko gomendioa eman dute.

Internet bidez delitu "ugari"

Jasotzen dituzten salaketa guztien "laurdena" Internet bidez egindako delituengatik izaten dela dio Ertzaintzak; erosketak egiteko orduan, "segurtasun bermeak" gordetzen dituzten orrialdeetan egiteko gomendioa eman dute. Gaineratu dutenez, segurtasuna mantentzeko neurriak har daitezke: esaterako, txartel birtualak edota aurreordainketakoak erabiltzea –gastatu beharreko diru kopurua bakarrik sartu, gainontzekoa lapurtzea ekiditeko–.

Urubien bila arituko dira gaur iluntzean Arantzazu inguruan

Nerea Pagaldai adituak gidatutako saioa egingo dute gaur ilunabarrean, 19:00etan, Arantzazuko Parketxetik hasita. Gipuzkoako Parketxe Sareak antolatutako bisita, urteko sasoi hau urubi hontzak ezagutzeko "egokia" dela iritzita. Hontz mota hau gainontzekoengandik nola bereizi jakiteko eta zein bereiztasun dituen ikasteko aukera

izango da iluntzean, eta bi ordu inguru iraungo du bisitak –hasieran azalpen batzuk emango dira eta–.

Adin guztientzako herritarrei zuzendutako ekintza izango da, eta pertsonako bost euro ordaindu beharko dira. Arantzazuko Parketxeko ordezkariak azaldu dutenez, erreserba egitea beharrezkoa da, 943 78 28 94 edo 699 33 51 83 telefonotara deituta, plaza mugatuak daude eta. Bisitara linterna eramatea ere gomendagarria dela argitu dute.



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

Biharko basoak

Hogeita bosgarren aldiz batzartzen ari dira Madrilen munduko klima jakitun, eragile, ekintzaile eta *oztopatzaile* klimatikoak, *vedette*-ak eta aldaketa *ukatzaile*-ak barne. Lerrook idazterakoan, CO2 balantzean katramilaturik ei zeuden han bildutakoak.

Gabonak ate-joka ditugula, ea gogorarazten diguten gure hiperkontsumismoak duen eragina.

CO2 balantze neutroa lortzearen helburua 2050erako ari dira finkatzen. Ordurako, lurra, batez beste, hiru gradu beroago egongo da.

Adibide ugari ditugu mundu mailan. Groenlandiak duen izotz geruza, adibidez, duela 30 urte baino zazpi aldiz azkarrago ari da urtzen.

Karbono balantze neutroa lortu ahal izateko emisioek eta CO2 metaketek parean beharko lukete.

Askok hitz egiten da basoek balantze honetan duten paperaz. Hainbestearaino, landareen oinarritzko funtzio bat, CO2 metaketa, merkatu produktu bilakatu baita.

KARBONO BALANTZE NEUTROA LORTZEKO EMISIOEK ETA CO2 METAKETEK PAREAN BEHARKO LUKETE

Horrela, kutsatzaileak bere burua zuritzeko aukera izan dezake zuhaitz gutxi batzuk besoetan hartuta. Merkatu berri honek eztabaida ugari sortu ditu. Batzuek irudi kudeaketa ariketa bat

bestarik ez dela uste dute; beste batzuek, herrialde garatuek beraien nagusitasuna bermatzeko beste estrategia bat, garapen bidean dauden lurraldeen etorkizuna oztopatzen duena. Bihar baso gehiago izanagatik ere, ez da larrialdi klimatikoa samurtuko isurketek maila berean jarraitzen badute. Kontsumo arduratsuak soilik izango du nolabaiteko eragina.

Baina bada biharko basoak nolakoak izango diren aurreikusteko garaia.

Ziurgabetasunez beteriko garaia dakar munduaren berotzeak. Muturreko lehorte eta haizeteak eta izurrite eta gaitzen gorakada dira aurreikusten diren mehatxu nagusiak.

Eta, klimaren auzian bezala, ikerlarien kontsentsua zabala da, soilik bioaniztasun handiko basoek bermatzen baitute aldaketa handien aurrean behar den egokitzapen ahalmena.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

Zaporeak

PILAR KALTZADA
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Ni ikaslea nintzen garaian, gizakiok lau zapore bereizteko gauza garela erakusten ziguten, eta hala, gazia, gozoa, garratza eta mingotsa mihiaren zein aldetako papilek detektatzen dituzten ikasten genuen. Gauzak apur bat korapilatu zaizkigu geroztik, eta zientziak demostratu du bosgarren zapore bat ere badagoela, umami izenaz ezagutzen dena. Nahasgarri samarra gertatzen zaigu bosgarren hori, lau zapore nagusietatik hartzen dituelako zantzu batzuk, baina, aldi berean, ez da zehazki zapore

horietako bat; emaitza, nolabait izendatzearen, halako aho-keru nahasgarri bat da. Eta duela gutxi jakin dut, bosgarrenarekin nahikoa ez, eta ba omen dago seigarren bat, gantzaren zaporearekin- edo identifikatzen dena. Omen diot, oraingoz arratoiek hori ere bereizteko gaitasuna dutela demostratu dutelako, eta horrek gizakiok ere ez garela urruti ibiliko iradokitzen du, demostraziorik ez badago ere.

X Oreka ez da batere erraza. Zer nahiago duzu, irakurle: gauza sinpleak, ahoratu orduko ezagutzen duzuna, xehetasunak alde batera utzita bada ere, edo gauza konplexuagoak, izendatzen zailak baina gozagarriagoak?

Joan den azaroko hauteskundeen emaitzak ahoan ari zaizkit oraindik, bueltaka. Umami zaporea laga didate bozek, nahasgarria, identifikatzen zailak diren sentipenak baitira, ahoko zein partetan kokatu ez dakidalarik. Batzuk mihi-puntarekin miazkatu ditut, haien gozoa disfrutatzeko. Beste batzuek, berriz, zuzenean egin dute mihiaren atzealdera, garraztasuna hautematen dugun tokira. Eta batzuk irentsi ezinik nabil, zer nahi duzue: eztarrian trabatuta geratu zaizkit "aporelloska" inguratzen ari zaizkigun eskuin muturrekoak. Bihotzerreak luze iraungo digu.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oiñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Grebarako arrazoi asko daude, orain eta lehen"

GARBIÑE ARANBURU LAB SINDIKATUKO IDAZKARI NAGUSIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE
Lan hitzarmenak eta gatazkak; urtarriko greba orokorrerako deia; sindikatuak, patronala... Gai horiek ditu berbagai LABeko idazkari nagusiak.
Bereziki gatazkatsua izaten ari da udazkena?
Batez ere, azkeneko bi urteotan mobilizazio soziala handitu egin da. Horren erakusle dira pentsiodunen eta feministen mugimenduak, borroka sindikala lantokiz lantoki... Borroka horiek ulertu behar ditugu gaur egungo eredu aldatzeko borroka bezala.
Sindikatuak tokia hartzen ari dira beste mugimendu batzuk?
Nik ez dut hala bizi. Azkeneko lan erreformaren helburua izan da borroka sindikala ahultzea edo indargabetzea. Baina esango nuke sindikalgintza abertzaleak eta, bereziki, LABek bere eredu birplanteatu duela eta ari garela sektorez sektore erantzuten.



LABeko idazkari nagusia, *Harira* saioan, martitzenean. ENKO AZKARATE LASPIUR

Lan erreforma indargabetzea ekarriko du gobernu aldaketak?
Ez dute atzera botako ez azkeneko lan erreforma eta ezta *Mozal legea* ere. Akaso, makillaje ukitu batzuk egingo zaizkio.

Bereziki gatazkatsua ari da izaten zaharren egoitzetako greba. ELA ari da gatazka horretan nabarmentzen. Zelan bizi duzue LABen?
Guk elkarlan sindikala bultzatu dugu, baina ELAk

bilatu du gatazka honetan bakarrik proiektatzea eta hori iruditzen zaigu dela langileen kaltetan. Guk jarraitzen dugu sektoreko hitzarmenaren aldeko apustuarekin.
Bizkaian akordioa lortu duzue hiru sindikatuk, UGTk, Langile Komisioek eta LABek, patronalarekin, metalgintzaren alorrean. Akordioa ona da?
Bai; langileak pozik sumatu ditugu eta gu harro gaude. Guretako inportantea da sektoreko hitzarmenak balioan jartzea. Izan ere, Bizkaiko metalean 48.000 langile inguru dira eta horietatik %66k ez daukate enpresa hitzarmenik sinatzeko aukerarik.
Gipuzkoan zergatik ez da akordiorik lortzen metalgintzan edo zaharren egoitzetan?
Bizkaian hamar greba-egun egin dira... Gipuzkoan hitzarmena berreskuratu bada, borroka sindikalaren bidetik etorriko da. Prozesu bat izango da, langileek ikusi behar dute grebak-eta estrategia eraginkorrak izan daitezkeela.
Greba orokorrerako dei egin duzue urtarriaren 30erako. Zergatik orain?
Grebarako arrazoiak soberan daude; eremu guzietara zabaltzen ari den lanaren prekarietatea da nagusia:

lanaldi partzialak, soldata baxuak, geroago eta langile gehiago bazterketa soziala pairatzeko arriskuan, azken urteetako murrizketak sektore publikoan, pribatizazioak, pentsioan murrizketak... Zerbaiten alde egingo den greba da, ez neurri zehatz baten kontra.
Zenbateraino dago presente sindikatuon dinamiketan feminismoak edo pentsiodunen borroka azkeneko urteotan hartu duen indarra?
LABen pentsiodunen arloa sortu genuen bere momentuan, ikusi genuelako pentsiodunek ere asko zutelako esateko lan arloan. Feminismoari dagokionez, haren oinarriak txertatu behar ditugu gure eredu sindikalean, eta horretan gabilta. Praktika feminista baterako urratsak egiten ari gara.
Eusko Jaurlaritzak aurrekontua onartuko du Elkarrekin Podemosen babesarekin. Berri ona da?
Aurreko urtekoaren jarraipena da, erabat antisoziala eta neoliberala. EAJ betiko lekuan dago, elite ekonomikoen mesedetan. Hemen aldatu dena izan da Podemos. Ulergaitza da. Esan genezake EAJren besoetara joan dela Podemos.

ITURRI ONETIK

Beste musikal bat Bergaran sortua

Bergarako Musika Eskolak agur esango dio azken musikari: *Alizia musikala. Herrialde miresgarrian badago wifia*. Kursaalaren, urtarriaren 4an, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Autobusak antolatu dituzte Debagoienetik musikala ikustera joateko. Doan dira, sarrera erosiz gero. Bada, dagoeneko hurrengo musikala prestatzen hasi da Bergarako Musika Eskolako faktoria emankorra. Valen Moñux eta Oihan Vega ari dira buru-belarri lanean. Ehuneko ehun Bergaran sortua izango dela adierrazi dute, *Olentzero & Co* bezala.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2007-12-15

15.000 lagun AHTaren aurka Arrasaten

Milaka lagun elkartu ziren Arrasaten Abiadura Handiko Trenaren aurkako manifestazioan –AHT Gelditu! Elkarlana antolatzaileen esanetan, 15.000–. *Inposiziorik ez, AHT gelditu!* izan zen leloa. Herritarrei gaiaren gaineko informazioa ez ematea salatu zuten. Guardia Zibilak Arrasateko sarreran kontrolak jarri zituen, baina manifestazioa "jai eta aldarrikapen giroan" egin zen, aurreko aldean zantzarrazak zihoazela.

HAU BE BADOGU!

Haur minbizia, 'trending topic'

EITB taldeak antolatutako maratoi solidarioaren harira, *#haurminbizia* traola *trending topic* izan da aste osoan zehar. Gainera, ekimenarekin bat egiteko Itoiz taldearen *Lau teilatu* kantaren bertsioak partekatu dituzte askok eta askok –baita Debagoieneko talde eta eragile ezberdinek ere– sare sozialetan, eta kanta bera ere traol erabilienetakoa izan da:
@Nerooh: "Herriko jaietako taldeak pasa den egunean grabatu gendun *Lau Teilatu*, eta igual, momentuan, ez dozu nabaritzen, baie tantaz tanta itsaso bat egin dogu".

Atzetik aurrera!**RESU ABASOLO GALLASTEGI**

ARETXABALETA

Berrogei urte bete dira aurtan Kurtzebarri Eskola ikasketak euskaraz eskaintzen hasi zenetik.

Data borobil honetan, atzetik aurrera egindako ibilbidea emozioz bizi izan dut, bide honetan izandako laguntzak eskertuz.

-Lehenik, zortea izan nuen bertan lehen irakasle izateko nigan jarri zuten konfiantzagatik.

-Bigarrenik, Aretxabaleta, orduko politikariak herriko eskolaren norabidea adosteko eta zuzentzeko izan zuten gaitasunaren testigu izan zen. A ze zortea!

-Bestalde, lehen urratsak egiterakoan, Almeneko esperientziadun irakasleen lankidetzaz gozatzeko zortea izan genuen.

-Zortea gurea, eskolaren eraldaketan gurasoen,

irakasleen eta herritarren muturrerainoko inplikazioa ezagutu genuelako.

-Azkenik, zortea daukagu Aretxabaletan, Kurtzebarrin, 763 ikaslek ikasten dihardutelako.

Baina kopuruek ez dute dena esaten.

Bai herritarrok zein instituzioak lozorroan ote gauden susmoa dut. Erronka berriak handiak bezain desberdinak dira; eskola espazioak egokitzetik, herrira datozenen heziketa eta euskalduntzeraino, besteak beste.

Ezinbestean, guztion adostasuna beharrezko osagaia da orain, lehen eta beti, heziketa eredugarri bat martxan jartzeko eta gizarte bezala denok eskutik aurrera egiteko.

Horretarako, udalari, heziketa, herri baten oinarrian dagoen zutabea dela sinesten duen neurrian, herriko hezkuntza proiektua

sustatzeko ardura hartzea eskatuko nioke.

Baina ardura hartze horrek hezkuntza komunitatea gertu-gertutik ezagutu beharra dakar, bertako lehentasunez jabetu eta udalbatzaren gai zerrendetan hezkuntzaz maiz jardun eta erabakiak hartu ditzaten.

Kontsumo arduratsua**JOSU GARITAONANDIA**OPARITU ZUHAITZ BAT EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Gabon jaiak dira gizarte kontsumista honen adierazgarri nagusia.

Edozelan ere, gero eta gehiago gara arazoaz oharturik gure ohiturak aldatzen hasi garenok.

Prezioaz eta erosotasunaz gainera, beste puntu batzuei ere erreparatzen diegu.

Gertu ekoiztu ote den produktua, janari gaietan

ahalik eta kimika gutxienekin, etxetresna elektrikoak energetikoki egokienak ote diren, bigarren eskuko gaiak gero eta gehiago erabiltzen ote diren... argi kontsumoa kooperatiba energetikoekin izatea, gure dirua banku etikoetan mugitzea, eta abar, eta abar.

Eta beste bat azpimarratu nahi nuke: gaztelaniaz *tecnología libre de conflicto*, deritzona, bihotz baten ikurra duena, plazaratu nahi dute, gure zoramen kontsumistaren atzean sufrimendu asko dagoela.

Izan ere, esate baterako, gure poltsikoko telefonoak egiteko behar den koltan material gehiena Kongotik dator.

Bada, herrialde hartako gatazkan bost milioi hildako baino gehiago izan dira dagoeneko, eta milioi pasa errefuxiatu daude.

Koltanaren kontrabandoan lortutako diruarekin

gatazkak irauteko armamentua erosten dute.

Gabon zoriontsuak izan ditzazuela, gutxi kontsumituta.

Eskerrik asko, Kontxi!**AITOR BIAIN UMEREZ**

OÑATI

Berriki joan zaigun Kontxi.

Irakasle izan genuenok asko zor diogu berari.

Nik neuk hiru urtez izan nuen irakasle Kontxi, eta, nire klasekidea zen Jone Otagi ere aspaldi ikusi ez dudan arren, Kontxi bezala gogoan daukat.

Horrenbestez, eskerrik asko biei.

Agur, Kontxi, ikusi arte zeruan.

Han zaude izar / ederren artean / gure bihotzetan / denen gogoan / ona zinelako / irakasle lanean.

Eskerrik asko, haurtzaroan zure ikasle izandakoen partetik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali ***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

Gabonetako merkatua, egun osorako plana

Bihar, zapatua, Gabonetako merkatua egingo dute, lbai-artek antolatuta, eta herriko komertzioek kalera aterako dituzte euren produktuak, Seber Altuben jarriko duten karpa erraldoira, hain zuzen; horrez gain, ekintza kultural ugari egongo dira kalean

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Ekintzak kalera aterako ditugu, herritarrek ere kalera atera daitezten eta ikus dezaten gure komertzioetan ze eskaintza daukagun, erosketak edota opariak egiteko", azaldu du Jon Apraiz Ibai-arteko presidentek.

11:00etatik aurrera, karpa erraldoi bat izango da Seber Altube plazan, eta Arrasateko 15 saltokik euren kalitatezko produktuak erakutsiko dituzte karpa horretan: "Produktu esanguratsuenak, Gabon hauetarako opari ideiak, eta abar".

Merkatuan parte hartuko duten saltokiak orotarikoak izango dira: emakume moda, lentzeria, osagarriak, haur moda, etxebizitzak, eta abar. Hori horrela, hauek dira parte hartuko duten komertzioak: Bea Lentzeria, Beinke, Bisuteria Elkoro, Boutique Elena, Garraxi, Josle, Kapikua, Kids&Us, Lasagabaster, Resusta Karrikiri, Sikol, Tipi-Tapa, Ume, Xarma eta Zubiaga.

Horrez gain, eguna girotzeko, mota guztietako ekintzak egingo dituzte egun guztian zehar. "Kalitate handiko ikuskizunak gozatzeko aukera daukaguz".

Askotariko eskaintza kalean

Brasildik etorri arren Euskadin egin zuten bat Ronaldo Bahia kantautoreak eta Rafael Caladok, eta elkarrekin ipar-ekialdeko eta Brasilgo hegoaldeko erritmoen nahasketa bat egiten dute.

Horrez gain, Altrius magoak magia eta umorea uztartuko dituen ikuskizuna eskainiko du.

Bestalde, Izaskun del Cerro musikariak eta Ainhize Solaun dantzariak *Piano taupadak* kanta sorta eskainiko dute, "poesiaz, dantza eta sorpresez betetakoa".

Andres Jerezek suzko eskujokoekin girotuko ditu kaleak.

Kia Eta Bere Ukelelea taldeak 3-8 urte bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako abestien erritmoan abestu eta dantzatu



Kia Eta Bere Ukelelea taldea izango da kalea girotuko dutenetako bat. GOIENA

Kultur ekintza ugari egingo dituzte bihar

Abenduak 14, zapatua

- **12.00-12.45** Ronaldo Bahia eta Rafael Calado musika taldea.
- **13.00-13.45** Altrius, magia ikuskizuna.
- **14.00-14.20** Izaskun del Cerro/Ainhize Solaun, pianoa eta dantza.
- **14.30-14.45** Andres Jerez, suzko malabarismo ikuskizuna.
- **17.00-17.30** Kia Eta Bere Ukelelea, haurrentzako musika.
- **17.30-18.15** Daniel Guantes, kantautorea.
- **18.45-19.15** *Portamundos*, dantza akrobatikoa.
- **19.30-19.50** Izaskun del Cerro/Ainhize Solaun, pianoa eta dantza.
- **19.50-20.15** Andres Jerez, suzko malabarismo ikuskizuna.

ahal izateko kantuak eskainiko ditu, perkusionista batekin.

Kantautore moduan, Daniel Guantes burgostarra egongo da, "estatu mailan nahiko ibilbide eta errekonozimendu dituen".

Dantza akrobatikoa ere izango da, Levelibular konpainiaren eskutik, *Portamundos* ikuskizunarekin. "Sigimundok zirkuko eta antzerkiko teknikak erabili, eta jolasteko aukera galdu gabe, ikusleei zirrarak eragiten dizkie, gertatzen denarekin inprobisatuz. Zirkua eta umore ikuskizun bat da, adin guztietako jendearentzat".

Bestetik, haur eta gazteek disfrutatzeko animazioa jarriko dute, 11:30etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara: puzgarriak, bira eroa, zezen mekanikoa eta abar –euria egiten badu ekimen hau bertan behera geratuko da–.

Sarreraren eta otzaren banaketa

Egunari bukaera emateko, bezeroen artean zozketatu diren martitzeneko gala lirikorako 25 sarrera bikoitzen banaketa egingo dute eta baita zozketatzen ari diren Gabonetako 50 otzaren banaketa ere. "Jarraitu Arrasaten erosten eta eskuratu zurea!".

Arrasateko bost barrutietako auzo-alkateak, aukeratuta

Andoni Altzelai, Josefa Gorosabel, Vicente Etxeberria, Victoriano Fuentes eta Mikel San Miguel dira

E.A. ARRASATE

Arrasateko bost barrutietako auzo-alkateak nortzuk izango diren jakinarazi du asteon Udalak: Andoni Altzelai izango da Uribarri-Erguingo auzo-alkatea, Josefa Gorosabel San Andres-Etxaluzekoa; Vicente Etxeberria erdialdekoa; Victoriano Fuentes Santa Marinakoa; eta Mikel San Miguel Musakolakoa.

Udalak jakinarazi duenez, auzo edo barruti bakoitzeko batzordeak gehienez hamar kidez osatu daitezke. Udaleko alderdi politikoek auzo bakoitzeko hain-

bat lagun proposatu dituzte, eta banaketa egin dute, "azken hauteskundeetan auzo horietan izandako emaitzen arabera".

Aukeraketa hori egiteko, baina, udal ordezkariak izendatutako kide horiek "auzoan bertan lan egiteko duten gaitasuna eta auzoarekiko eta herriarekiko duten konpromisoa" hartu dute kontuan; "horrenbestez, pertsona horiek ez dute zertan alderdi politiko jakin bateko kide izan". Azaroaren 29aren eta abenduaren 4aren artean egin dute hautatze-prozesua.

Lan hitzarmena eguneratzea da Aita Menniko langileen aldarria

Diote 2017tik eguneratu gabe dagoela lan hitzarmena eta ez dela aurrerapausorik ematen negoziazioetan

E.A. ARRASATE

Pasa den astean elkarretaratzea egin zuten Aita Menniko langileek, lan hitzarmenaren negoziaketaren "blokeo egoera" salatzeko. Izan ere, diotenez, 2017az geroztik ez da eguneratu, "izoztuta", dago. Horren harira, hainbat aldarrikapen egin dituzte: soldatetan igoerak; emakumezkoen eta gizonezkoen arteko soldata arrakala ezabatzeak; jauzi kualitatiboak ematea; behin-behinekotasunari, langile faltari eta jardunaldi partzialei aurre egiteko bitarteko plangintza

garden eta arriskuei aurre egiteko prebentzio neurri errealak. "Lan baldintzak ez dira kalitatezkoak eta hori hala denean, gure gaixoen osasuna ere jokoan jartzen da", azaldu du Janire Diazek, Deba eskualdeko ELA sindikatuko arduradunak.

Hitzarmena eguneratu ez izanaren arrazoi bakarra borondate falta dela uste dute langileek, Aita Mennik zorrik ez eta irabazi handiak dituela iritzita.

Ospitaleko zuzendaritzak ez du adierazpenik egin gura izan gai honen harira.

Egokitapenak Garagartzako garbitokian

Egun, zazpi mangera daude, ibilgailua garbitzeko edonork erabil ditzakeenak. Erabilera ireki horrek, ordea, "erantzukizun gabe jokatzeko dakar", Udalen esanetan, eta "ur kontsumo neurrigabea" sortzen du. Izan ere, urte batean garbigunean egiten den ur kontsumoaren batez bestekoa bi milioi litrokoa dela ohartarazi du Udalak.

Beraz, mangera zaharrak kendu eta berriak jarriko dituzte. Era berean, ur kontsumoa murriztu eta arautzeko sistema ere jarriko dute martxan. Sistema hau erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da Arrasaten erroldatuta egotea eta Mankomunitatearen txartela izatea –organikoaren eta errefusaren edukiontzia zabaltzeko txartela–. Txartel hori BAZen aktibatu beharko da lehendabizi. Erabil-tzaile bakoitzak hileko 2.500 litro erabili ahal izango ditu.

Erabateko arrakasta izan du Cesar Bonaren saioak

Goieskolak antolatutako jardunaldi pedagogikoen baitan, mundu mailako hezitzaile eta irakasle ezagunenetakoa den Cesar Bona zaragozarra (Ainzon, 1972) Amaia antzokian izan da asteon, eta aretoa goraino bete da haren emanaldia jarraitzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Askotarikoak izan dira jorratu dituen gaiak, publikoaren interakzioa bilatuz, betiere, eta gerturatu diren ikasleak, irakasleak, gurasoak eta erabat adi eta kontzentratuta egon dira hitzaldia jarraitzen. Bona bera ere gustura eta pozik azaldu da saioak emandakoarekin. "Irakasle izan edo ez, guraso edo haur garen aldetik, gauza asko partekatzen ditugu, eta garrantzitsua da guztiok elkarrekin aurrera egitea. Oso egun berezia izan zen niretzat", adierazi du.

Oso eskertuta azaldu da Goieskolak hitzaldia egiteko aukera eman izanagatik, eta gaineratu du hezkuntzarentzat "ezinbestekoa" dela eskola publiko bat elkartu eta horrelako jardunaldiak antolatzea. "Goieskola eredu da guztiontzat, eta balio digu konturatzeko eskolako publikoak elkarlanean egin behar duela aurrera. Askotan, uharte sentitzen gara, zentro batek gauza



Cesar Bona Amaia antzokian.. E.A.

bat egiten du eta beste batek beste bat, baina benetako talde-lan bat dagoenean hasten dira iristen emaitza handiak".

Bonak dio "ebidentek" diren gauzen inguruan aritu dela berriketan, baina, hain zuzen ere,

ebidentek izateagatik, ez direla egiten askotan. "Zentzu horretan, edukia oso garrantzitsua da, baina ezin dira ahaztu emozioak, talde-lana, familiaren eta eskolaren arteko harremana eta, batez ere, hurrei eta nerabeei gehiago entzutea, gizartean parte hartzea bultzatuz".

Ingurumenarekiko hezkuntza

Bukatzeko, ingurumenarekiko kontzientziak hartu du hizpide hezitzaileak, ohartaraziz lurra planeta bakarra dela. "Izakiaren eragina uste duguna baino askoz ere garrantzitsuagoa da eta ezin dugu ardura beste batzuen esku utzi. Gobernuak badute zeregina, baina gutako bakoitzak pauso txiki asko egin ditzake, guztiak batuta inportanteak bilakatzen direnak".

Beraz, "ezinbesteko" ikusten du norberarekiko, gainontze-koekiko eta ingurumenarekiko errespetuan hezte, "gure bizitokia baita lurra".

Beste hamar eguzki labe Txikon eta bere taldekideentzat

Pasa den ikasturtean martxan jarritako Eguzki Labea proiektuari jarraipena emanez, beste hamar labe entregatu dizkiote DBHko 3. mailako ikasleek Alex Txikon eta bere taldeari. Hauek autoz eramango dituzte Pakistango Askole herrira, 24 eguneko bidaia eginez. Aste honetan abiatu dira eta urtarrian iristea aurreikusten dute.

Proiektua hau 3. mailan egiten da eta 100 ikasle inguruk hartzen dute parte. Halere, azken bidalketa hau DBHko 4. mailakoek egin dute; hau da, pasa den ikasturteko proiektuan ibili zirenek. Horrela, proiektuari amaiera eman diote, eta, orain, DBHko 3. mailakoek hartu diete lekukoa.

Bergarako Ibili enpresak egin-dako ekarpena azpimarratu gura izan dute ikasleek eta irakasleek: "Lapiko pila bat eman dizkigute, musu-truk, proiektua aurrera eraman ahal izateko".

Arrasateko Udaleko langileak protestan, negoziazio eske

"Enpresa Komitetik Negoziatio Mahaira eraman ditugun proposamen zehatzen eta argudioen aurrean, Gobernuaren partetik ezetza baino ez dugu jaso; negoziatio mahaiak deitzen dituzte negoziatzeko inolako asmorik eduki gabe, ez dutelako negoziatio marko hau aintzat hartzen", diote.

Elkarretaratzea egin dute asteon, udaletxean, euskaltegian eta gizarte zerbitzuetan, eta beste hiru ere badituzte aurreikusita: datorren eguaztenean, urtarriaren 8an eta 15ean -guztietan 12:00etan-. Osoko bilkuran ere egin dute protesta, eta euren lan lekuetan kartelak dituzte jarrita, egoera salatzen.

OHARRAK

Mus txapelketa

Gaur, 22:30ean, Txinatos tabernan.

Bigarren batzarra

Apustu etxeen aurkako herri plataformaren bigarren saioa bihar gaztetxean, 10:30ean.

Bihar, truke merkatua

Biteri plazan egingo dute, 11:30etik 13:30era.

Grebara begira, bilera

Greba Batzordea sortzeko bilera egingo dute abenduaren 18an, Kulturaten, 18:30an.

Euskaraldia: bilera

Herri batzordearen lehen saioa, hilaren 18an, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian.



Pilotako finalak gaur eta padelekoak domekan

Santamasetako pilota eta padel txapelketetako finalak jokatuko dituzte asteburuan; pilotako finalak egubakoitzean izango dira, 19:00etan hasita, Uarkape pilotalekuan, eta padelekoak, berri, domekan, 09:30etik aurrera, Musakolako kiroldegian

Eneko Azurmendi ARRASATE

Pilotako finalei dagokionez, benjamin, kimu eta infantil mailetakoko jokatuko dituzte Uarkape; zazpi partidu. Honakoak izango dira norgehiagokak: Nalda-Iturbe/Korta-Arrieta; Zurbano-Badiola/Menocal-D. Zubia; Urien-Moledo/Orue-Suarez; Hurtado-Alberdi/J. Zubia-Zalama; A. Martin-Acha/Etxabe-L. Martin; Kerejeta-Urkia/I. Urien-Rodriguez eta U. Garitaonandia-Belar/Madina-Garcia.

Partiduak amaitu ostean, talde argazkia aterako dute, guztiek elkarrekin, eta luntx batekin emango diote amaiera pilota jaialdiari.

Padelekoak, domekan

23 partidu jokatu ostean, padel txapelketako finalak domekan, hilak 15, jokatuko dituzte, Musakolako kiroldegian. Kategoria mistoan sei bikotek hartu dute parte eta gizonezkoen kategorian, berri, hamalau bikote aritu dira

nor baino nor gehiago. Emakumezkoetan ez da bikoterik egon. "Emakumezkoek mistoan parte hartzen dute, baina eurek bakarrik ez. Pena da". azaldu du Fernando Okiñak, Arrasateko Kirol Elkartearen kideak.

Kategoria mistoko finala 09:30ean jokatuko dute: Maitane Roa eta Mikel Mondragon vs Amaia Zabaleta eta Juan Luis Etxaniz. Gizonezkoen finala, berri, 11:00etan jokatuko dute, kategoria mistokoa bukatzen denean. Aitor Magallanes eta Mikel Larrea sailkatuta daude dagoeneko, baina finalaurreko bat geratzen da jokatze oraindik. Jorge Aranesek eta Patxi Vallejo gaur arratsaldean jokatuko dute Juan Luis Etxanizen eta Oscar Luquinen aurka.

Xakea, datorren astean

Hilaren 21ean, zapatua, 31. Santamas Xake Txapelketa jokatuko dute Corazon de Encina kultura zentroan, 10:00etan.



Santamasetako padel txapelketako partidu bat, Musakolan. E.A.

Mendiko lehen sorospenen gaineko saioa egingo dute bihar

Besaide Mendizale Elkartek antolatutako saioa izango da, Kultureteko Jokin Zaitegi gelan, 10:00etan hasita

E.A. ARRASATE

Elkarteko kide Sergio Serranok gidatuko du, hein handi batean, hitzaldi interaktibo moduan definitu duten saioa. 10:00etatik 13:00etara izango da, eta aurrez izena eman beharko da, doan den arren. Horretarako, bi bide daude: besaide@besaide.eus helbidera idatzita edota 943 77 30 66 telefonora deituta. Debagoien-der guztiei zuzendutako saioa izango da, eta 45 parte-hartzaile izan ahaliko dira, gehienez.

Honako helburu hauek izango ditu hitzaldiak: norberaren osa-

una eta segurtasuna zaintzen ikastea, prebentzioa sustatuz; ezbeharren bat gertatuz gero, aholku batzuk argi izatea eta motxilan eramateko botikin baten eredu izatea. Horretarako, mendizaletasuna segurtasunez disfrutatzeko osasun-aholku batzuk emango ditu Serranok, baita ezbeharren bat gertatuz gero nola jokatu jakiteko aholku batzuk ere. Borobilean jarrita, kasuak aztertuko dituzte. Horrez gain, botikin bat nola antolatu azalduko du, elkartearen daukaten eredu moduan hartuta.

Abenduak 14, zapatua

Seber Altube plazan

**GABONETAKO
MERKATUA
ARRASATE
2019**

www.ibaiarte.eus

egun bat 1.000 opari

IKUSKIZUNAK, SARIAK, DENDAK, SORPRESAK...

Erantzungailuari berba egiten diote, babes eske

'Utzi zure mezua seinalearen ondoren' antzezlan eskainiko du Ttanttaka antzerki taldeak domekan Amaia antzokian, 19:30ean; lau emakume dira, eta bakoitzak bere arazoak ditu; lau erantzungailutara hitz egiten dute, nork bere bakardadetik

Eneko Azurmendi ARRASATE

Arantza Portabalesen liburu batean oinarritutako antzezlan da Ttanttaka antzerki taldeak 2019ko urrian estreinatu zuena. "Idazleak dioen moduan, norbaiti berba egiteko modu bat da, nahiz eta jakin ez dizula erantzungo. Entzungo duenaren esperantzarekin uzten da, behintzat, mezua. Gaur egun, beste erreminta batzuk ditugu eta geroz eta ohitura gutxiago dago horretarako, baina...", azaldu du Mireia Gabilondok, antzezlaneko protagonistetako bat den aktore bergararrak. Oihana Maritorea, Miren Arrieta eta Leire Ruiz izan ohi ditu bere ondoan, baina, oraingoa, Sara Cozarrek hartuko du azken horren lekua.

Portabalesek egin duen hautua ez da norbaitekin hitz egitea, baizik eta emakume bakoitzaren bakarrizketa. "Nahiz eta guk gero nahastu egin ditugun taularatzetarakoan", Gabilondoren esanetan. "Galiziako herri txiki batean girotuta dago istorioa. Lau emakume gara eta guztiok gabilta guztion eta inorena ez den etxe batean bueltaka, nahiz eta gure artean ez daukagun harremanik; hasiera batean, behintzat. Nork bere bakardadetik lau erantzungailutara hitz



Vivianaren, Marinaren, Carmelaren eta Sararen istorioak kontatzen dira. TTANTTAKA

egiten du, lau gizonezkori, bakoitzak testuinguru ezberdin batetik eta gauza ezberdinak esateko".

Ironia puntu bat dute istorioek

Begararrak azaldu duenez, oso barruko istorioak kontatzen ditu lanak, momentu txar bat pasatzen ari diren lau emakumerenak. "Hala ere, laurak aurrera egiten dute eta badauka esperantza puntu hori. Tonu berezia eta pertsonala dauka Portabalesek, eta, nahiz eta gauza pertsonalak izan, umore puntu bat ere ba-

dauka, ironiarekin hitz egiten baitu. Beraz, barruak apur bat mugituta ateratzen dira ikusleak, baina, era berean, bizitzaz beteta ere bai. Negar tanta batzuk ateratzen ditu obrak, baina baita irribarre gutxi batzuk ere".

Urrian estreinatu zen, eta "sentsazio onak" dituzte, "harre-ra ona" izaten ari dira, oraingoz, euskaraz zein gaztelaniaz.

Sarrerak Arrasate.eus webgunean daude salgai, 10,9 eurotan. Nolanahi ere, agortzen ez badira, leihatilan ere egongo dira salgai, egunean bertan.

Sarrerak geratzen dira oraindik gala lirikorako

Sarrera erdiak baino gehiago agortuta daude dagoeneko Ozenki Elkartek antolatuta martitzenean Amaia antzokian egingo duten emanaldirako. Baina oraindik ere badago aukera sarrerak eskuratzeko, Arrasate.eus webgunean, 18,9 eurotan. Bestalde, ozenkielkartea@hotmail.com helbidera idatzita ere sarrerak gordetzea eska daiteke.

Horren ohikoa ez den emanaldia izango da; izan ere, elkarrekin ariko dira oholta gainean Alberto Arrabal baritonoa, Arkaitz Mendoza piano-jolea, David Baños tenorea eta Elisa Di Pietro sopranoa. Normalean, ez dute elkarrekin abesten, eta horregatik izango da berezia. Abesti batzuetan bakarka kantatuko dute eta beste batzuetan, berriz, duo formatuan.

Bi zatitan banatuta egongo da gala: opera eta Italiako kantu herrikoiak; eta zarzuela.

'Herensugearen itzulera' liburua aurkeztuko dute gaur

Errasti-De la Maza familia bergararrak talde-lanean sortutako gazteendako bigarren liburua aurkeztuko dute gaur, egubakoitza, Kulturaten, 19:00etan: *Herensugearen itzulera V Sataripeko Guda*. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez idatzita dago, eta, 8 eta 9 urte artekoek zuzenduta dagoen arren, nagusiagoak irakurtzeko modukoa da.

Broken Legacy, Rodeo eta Uckaia taldeak gaur gaztetxean

Stoner rock eta metalcore doinuak izango dira entzungai gaur, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean, 22:00etan hasita. Jotzen lehenak Uckaia bizkaitarrak izango dira. Ostean, Broken Legacy oñatiarrak. Eta, azkenik, plater nagusi modura, Rodeo zestoarrak. Ateak 21:30ean zabalduko dituzte eta sarrera hiru euro izango da.

'Basa' liburuaren gaineko solasaldia martitzenean

Abenduaren 17an, martitzena, Miren Amurizak kaleratu berri duen *Basa* liburuaren gaineko solasaldia egingo dute Kulturateko areto nagusian, 18:30ean hasita. Amurizak liburuaren gaineko xehetasunak emango dizkie gerturatutakoek eta Ane Zuazubiskar arrasatearrak elkarriketatzaile eta gidari lanak egingo ditu.

Santamasetako saioan goi mailako bertsolariak

Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Julio Soto, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes ariko dira oholta gainean abenduaren 21an, zapatua, Amaia antzokian, 20:00etan. Sarrerak datorren astean jarriko dituzte salgai, AEDn, Irati, Monte eta Jaizale tabernetan eta saioaren aurretik antzokiaren leihatilan, 10 eurotan. AEDk antolatu du.

www.harremandenda.org

Zergatik aukeratu Bidezko Merkataritzako produktuak?

Produktu bakoitzaren atzean istorio bat dagoelako!

Pobretutako herrialdeen ekoizleen egoeraren ardura daukagu. Eman dezagun benetako pauso bat egoera hau mantentzen duen mekanismoaren aurka, merkataritza konbentzionalaren irizpideak alde batera utziz. Modu honetan, egiten duten lanagatik soldata duin bat edukiko dute, beraien **duintasuna eta garapena ahalbidetzeko!**



Aukeratu... BIDEZKO MERKATARITZA
Praktikatu... KONTSUMO ARDURATSUA

Atzean istorio berezia duten opariak egiteko aukera !!



Arrasateko Hiper Eroskiko sarreran aurkituko gaituzul!

Kafea, kakaoa, bonboiak, zerealak, kosmetikoak, artisautza...

Ford Kuga 2019 Edition

18.350€-tik guztiz hornituta

FCE Bank-en finantzaketa hilabete amaiera arte



**GRUPO
EASO
MOTOR**

www.grupoeasomotor.com

Lintzirin-Olartzun
A8 salida 4B N1 a Irún
Polígono Lintzirin, 10
Teléfono 943 260 426

Lasarte-Oria
Pabellón 2
(Salida N1, nº 451)
Teléfono 943 376 753

Beasain
Automóviles Mujika
Carretera N1, Km 419
Teléfono 943 887 400

Irún
Vertiz
J. Thalamas, 48
Teléfono 943 629 200

Arrasate
Automóviles Mugarri
C/San Andrés, 6
Teléfono 943 790 744

Ford Kuga gama, aukera barik: WLTP, ziklo mistoaren kontsumoa 6-9,9 l / 100 km. WLTP, CO2 emisioak: 158-224 g/km (NEDC, 136-204 g/km). Indarrean dagoen araudiari egokitutako neurriak. CO2 emisioen balioak aldatu egin daitezke hautatutako ekipamenduaren arabera. NEDC balioak izango dira ibilgailua eskuratzearrekin loturiko fiskalitatea kalkulatzeko balio dutenak. Kuga Trend 1,5 EcoBoost 88 kW (120 ZP). Eskaintzak hau guztia baimen hartzen du: BEZa, garraioa, IEDMT -garraio bide batzuek izaten duten zerga berezia, autonomia-erkidegoen arabera aldatzen dena; hortaz, komeni da kasu bakoitzean aztertzea-, sustapen-deskontuak, kontzesionarioaren ekarpena eta deskontua FCE Bank PLC SE-rekin finantzatuta Ford MultiOpcion bidez, gutxienez 12.000 euroko finantzaketarekin eta gutxienezko iraupen-konpromisoa 25 hilabetekoa izanda. Kreditu-balorazioaren arabera operazioa. Eskaintza ballagarria hilean eskatutako eta matrikulatutako autoentzat. Iragarri honetan agertzen den modeloak ez dauka zertan bat etorri eskaintzen den autoarekin. Penintsulan eta Balear uharteetan ballagarria hilabete bukaera arte. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. Ford.es.



Lorategian ikuskizuneko pasartea. HAZIARABA

Haziaraba, txiki-txikitatik arteari lotzeko jaialdia

Berriz dator Aramaiora umeei arterako irrika pitzarazi nahi dien ekimena. Jolaserako proposamena, ikuskizun bat eta film labur emanaldia baliatuko ditu, horretarako, jaialdiak. Paraiso Antzerkia dago, besteak beste, antolatutako ekimenaren atzean

Julen Iriondo ARAMAIO

Abenduan zehar Arabako hainbat herri eta kuadrillatan zehar ibiliko den Haziaraba jaialdiak hilaren 16an, 23an eta 27an egingo du geldialdia Aramaion. "Estimulazio artistiko goiztiarrrako jaialdia" da, familia osoari zuzendutakoa.

1 eta 6 urte arteko umeei eta haien gurasoei dago zuzenduta ekimena – Gaztefilmfest, Gutxinaka-Gutxinaka, Kalakalab eta Paraiso Antzerkiaren eskutik, Aldundiak eta udalek antolatuta –, eta seme-alaben hazkuntzan "artearen balioa bizitzeko eta lotura emozionalak eraikitzeko" aukera izan nahi du.

Helburu horrekin, hiru osagai ditu jaialdiak: aurrenekoa astelehenean izango da Aramaion –hilaren 16an, 16:15ean eta 17:45ean–, *Jokoen eszenografiak* instalazioa. 1 eta 4 urte arteko umeentzat izango da, "abentura artistiko bat, non handiek eta txikiek kartoizko eszenografia txikietan murgiltzeko aukera

izango duten, barnealdea arakatzeko, eraldatzeko eta familian bizitzeko espazio berriak sortzeko". Eskolaren laguntzarekin eramango dute aurrera lehenengo jarduera hau.

Astebetera, hilaren 23an, *Lorategian* ikuskizunarena izango da hurrengo zita. 18:00etan hasiko da, eta 1 eta 4 urte artekoentzako izango da hau ere: "Emakume bat lorategian jarrita, ametsetan. Gizon bat etorri eta bidaia bat egitera gonbidatuko du, irudien munduan barrera. Bien artean arbola artean dagoen oihala jasoko dute; oihala orrialde zuri bihurtuko da, irudiak sortzeko eta aldatzeko, jolas egiteko eta emozioak azaltzeko leku bihurtuko da".

HILAREN 23AN IZANGO DA 'LORATEGIAN'; GONBIDAPENAK UDALETXEAN ESKA DAITEZKE


Jaialdiaren hirugarren eta azken ekintza hilaren 27an izango da, barikua. *Iluminar animalarium* izeneko zinema emanaldia egingo dute, 18:00etan hau ere, 3 eta 6 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta, kasu honetan. Film labur bilduma bat da, non ikusleak hainbat pertsonaia eta animalari lagun egingo dion "espazio batetik bestera ibiltzen, egoera batetik beste batera igarotzen, misterioen bitartez". Antolatzaileen arabera, "animaziozko film laburren nazioarteko programa zirrargarria" da *Iluminar animalarium*, "haurrek beren lehen zinematografia-esperientziak" izan ditzaten prestatutakoa.

Gonbidapenekin

Ekintza guztiak kultura etxean izango dira, eta, parte hartzeko, udaletxean eska daitezke gonbidapenak. Iaz egindakoaren ostean, Haziaraba jaialdiaren bigarren edizioa izango da aurtengoa.

Eguenean udaletxean Gontzal Mendibilen 'Kontuak eta kantuak'

18:30ean hasiko da Mendibilen eta Iñaki Gartzia etnografo eta ikertzailearen artean prestatutako emanaldia. Gorbeia mendiarekin lotutako ipuinak eta abestiak izango dira protagonista. Manuel Iradier elkarteak eta Vital Fundazioak bultzatutako ekimena da. Ordu eta laurden iraungo du eta beste bederatzi herritan egin dute aurrez.



Gontzal Mendibil. GONTZAL MENDIBIL

Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga kultura etxean gaur

Maialen Lujanbio eta Unai Iturriagarekin bertso saio "berezia" egingo dute gaur, barikua, 20:00etan kultura etxean. Hilaren 19an, bestalde, Gontzal Mendibilek egingo du saioa.

Aretoko saio klasikoa antolatu izan du Aramaioko Bertso Eskolak azken urteetan Gabonetan, baina aurtengorako proposamen desberdina egitea erabaki dute. Bi izango dira soilik bertsolariak; gaiak jartzen, ostera, Maite Berriozabal.

"Saio berezia izango da; azken urteotako Gabonetako saioa apur bat gainbehera zihoala iruditzen zitzaigun, eta buelta bat eman nahi izan diogu", adierazi dute bertso eskolatik.

Berdin zinema bertan behera

Bestalde, biharko iragarrita zegoen Berdinzinema zineforum feminista bertan behera geratu da. Zinhezba ekimeneko Helena Gonzalez bertaratzekoa zen, baina azken orduko arazoak tarteko ezin izango da etorri.

OHARRAK

Gabonetako parkera

Abenduaren 30ean Bilbora joateko izena, hilaren 26a aurretik, udaletxean –8 euro–.

'Aita Mari': 780 euro

Ruper Ordorikaren kontzertutik ateratakoea GKEarentzat izango da.

Lehen sorospenak

Hilaren 21eko saiorako izena, 18a aurretik, udaletxean.

NIRE USTEZ



PERU ABARRATEGI

Hizkuntzak ba al du ajerik?

Zorionez batzuentzat eta zoritxarrez beste batzuentzat, abenduko lehenengo astea euskararen aldarrikapenerako astea izan dugu. Asteartean Euskararen Eguna izan zen, eta euskararekin harreman estua duen euskal sortzaileen azoka izan genuen Durangon ostegunetik igandera.

Aldarrikapen astea igaro ostean, ordea, bakoitza bere egunerokora itzultzen da, baita hizkuntza bera ere. Etorkizunaren giltza gazteok dugula entzuten dugu behin eta berriro, eta, nahiz eta gure sare sozialak euskararen aldeko aldarrikapenez bete genituen pasa den astean zehar, Instagrameko *story*-ek bezala, 24 ordu soilik irauten dute askotan gure aldarrikapenek, zoritxarrez. Gazteok goraldiaren ostean ajea edo bixamona izan ohi dugu sarritan; ea euskarak goraldiaren ostean bixamonik gabe bizitzen badakien.

Ohitura kontua baldin bada hizkuntzarena, erabiltzeko ohitura duenak jarrai dezala, eta ohiturarik ez duenak jakin dezala, estatistikekin esan ohi den antzera, komeni denean, ohiturak ere apurtzeko edo aldatzeko daudela. Ez diezaiozun utzi euskarari ajerik izaten!



Maria Agirre, Unai Elkoro eta Agurtzane Elkoro, elkartasun kanpaina aurkezten. MIRARI ALTUBE

Errefuxiatuen zaporeak goxatzeko egunak

UDA eta Zaporeak elkarrekin bat egin dute Lesbosen bizi diren errefuxiatuen egoeraren berri herritarrei emateko eta, era berean, haiendako laguntza jasotzeko. Gaur, egubakoitza, emango diete hasiera elkartasun kanpainaren baitako ekintzei

Mirari Altube ARETXABALETA

Zaporeak elkarrekin bat egitea erabaki du aurten UDAk Gabonen bueltako elkartasun kanpaina bideratzeko, eta horren eragile, hein handi batean, Nuria eta Maria Agirre ahizpa aretxabaletarrak dira; Lesbosen izan ziren haiek ekainean. "Gurekin jarri ziren harremanetan, hara eramateko materiala gura zutelako. Ekipamenduak eraman zituzten orduan, eta orain, erabaki dugu Lesbosen bizi diren errefuxiatuekin bat egitea, gure elkarteko neska-mutikoei hango egoeraren berri izan dezaten eta hala, elkartasuna sustatu", adierazi du Agurtzan Elkorok, UDAko presidentea.

Zaporeak elkarteko kide da Maria Agirre. Hark gogorarazi gura izan du euskaldunak ere izan zirela errefuxiatu, baita aretxabaletarrak ere: "Herrikide batek esan dit aita eta osaba batzuk, orain dela 83 urte, gerra zibila hasi zenean, Ingalaterran egon zirela hiru urtez. Horregatik, garrantzitsua da jakitea, bereziki gazteek, hemengoak ere izan direla errefuxiatu".

15.000 laguneko kanpamentua

Zaporeak elkarrekin 2016an sortu zuten, Greziara errefuxiatu uholdea iristen ari zela ikusita. Kios uhartean sukalde bat jarri zuten orduan, haiei guztiei jaten emateko, eta iaz, Lesbosera aldatu

zuten sukalde hori. "Helburua da egunero otordu duin bat ematea, ahal den begirune handienarekin, ikus dezaten badutela inguruan laguntzeko gertu dagoen jendea", dio Agirrek.

Maria eta Nuria ahizpak ekainean izan ziren Lesbosen, aste-betez, sukalde batean lanean: "Egoera benetan larria dela ikusi genuen. Moriako errefuxiatuen kanpamentuan, lehen kartzela izandako tokian, 3.000 lagunendako eremuan 15.000 bat lagun bizi dira pilatuta, ahal duten moduan". Eta baldintza oso kaskarrak dituztela jakinarazi du: "Komun bakarra asko-erendako, umeak eskola barik...". Baldintza gogorrek badira ere

etorkizun beltza dela larriena dio: "Gazteak etorkizun barik sentitzea da benetan gogorra. Zail dute pauso txiki bat ematea legeari dagokionez; esaterako, hiru urte daude zain Gobernuak baimen bat emateko, eta, askotan, pauso bat aurrera eta hiru atzera eman behar izaten dituzte".

Ekainetik hona, gainera, egoerak okerrera egin duela nabarmendu du: "Gobernu aldaketa egon da Grezian, eskumara egin du, eta ez dakit zenbat denboraz egon ahal izango duten bertan. Gainera, gobernu kanpoko erakundeei mugak jartzen dizkiete behin eta berriz".

Elikagai bilketa gaurtik

Aretxabaletan, errefuxiatuen zaporeak goxatzu! izena duen kanpaina gaur jarriko dute abian elikagai bilketarekin. Ibarra futbol zelaian jasoko dituzte elikagai iraunkorrak –dilatistak, arroza, garbantzuak...– Copreci kooperatibak emandako edukiontzietan. "600 kilo elikagai biltzea da helburua, baina nik harantzago joan gurako nuke eta 1.000 kilo batu", dio Elkorok. Horrez gain, bihar eta etzi, Zaporeak elkarrekin ekarritako materiala jarriko dute salgai Neguko Azokan, Herriko Plazan.

Eguaztenean, hilaren 18an, *Varados* filma eskainiko dute eta ondoren, kontu-kontari jardungo du *Aita Mari* itsasontzian izan den Izaskun Arriaran aramaiorak.

Bukatzeko, hilaren 22an, Oheretako Erregionalean jokatzeko duen futbol taldeak Mutriku hartuko du etxean, eta partidua hori ikusteko 5 euro ordaindu beharko dute ikusle guztiek, bazkide izan edo ez. Jasotako diru hori guztia Zaporeak elkarrekin izango da.



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ

Jostailuak biltzeko kanpainak

Gabonak hurbiltzean halakoak antolatzen dituzte elkarrekin eta instituzio desberdinek: Caritas, Gurutze Gorria, herri batzuetan udalak... Helburua omen da ume guztiek jostailuren bat jasotzea. Askok beraien ekarpena egiten dute. Gero, urtarrean orri honetan ikusiko ditugu zenbakiak, zenbat jostailu bildu dituen x elkarrekin.

Gizartea, orokorrean, lasai gelditzen da, Gabonetan umeek opariak jaso dituztelako. Eta nik galdetzen dut: zer zentzu dauka horrek? Badakit aspalditik Gabonetan ez dugula ospatzen Jesusen jaioz, baizik eta kontsumismoa. Denoi gustatzen zaigu Olentzeroren rola jolastea. Dena dela, *Olentzeroka* jolastu behar badugu, zergatik ez dugu gutuna ere eskatzen? Etxe baten ez badago jostailurik erosteko, galdetu beharko genieke zein behar dituzten. Jasoko genituzkeen erantzunek gure bizilagunen beharrak erakutsiko lizkigukete. Ez da –edo ez zen– Gabonen zentzua poza elkarbanatzea? Jostailuak bakarrik erosten baditugu "ume behartsuentzako" horrela, gure eskuzabaltasunez gabiltza elikatzen. Hori egin beharrean, galdetu ahalko genioke gure bizilagunari zer eskatuko liokeen Olentzerori seme-alabentzako. Baina, gai gara gure herrian bizi diren behartsuengana hurbiltzeko?

Durana
Hartz Klinika

Odontologia estetikoa

Endodontzia

Inplantologia

Ortodontzia

PADI zerbitzua

Hartz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00

Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55

www.duranahortzklinika.eus

Lau emendakin egingo dizkiete aurrekontuei

Udal aurrekontuak onartzear direla, EH Bilduk proposatu du partidak zehaztea, besteak beste, eguzkia aprobetxatzeko plakak jartzeko, bizikletendako aparkalekua egokitzeko eta gazteen emantzipaziorako etxebizitza programa bat garatzeko

Mirari Altube ARETXABALETA

Datorren urteko aurrekontuak onartzeko osoko bilkura egingo dute hurrengo egunean, abenduaren 19an, eta aurrekontu horien berri eman zuen Udal Gobernuak joan den astean, baita proiektu eta partida garrantzitsuenak aurkeztu ere. Behin horiek aztertuta, EH Bilduko zinegotziek iragarri dute hainbat emendakin aurkeztuko dizkietela aurrekontu horiei. Hiru multzotan batu dituzte, alor ezberdinei helduta.

Kiroldegian plaka fotovoltaikoak

Batetik, klima larrialdiari heldu gura izan diote, eta hor, proposatu dute eguzkia aprobetxatzeko plaka fotovoltaikoak ipintzea Ibarra kiroldegian. "50 kilowatteko instalazioa jartzea kiroldegiko teilatuan, hain zuzen ere. Horren kostua 60.000 euro inguru izango litzateke, eta Energiaren Euskal Erakundeak emango lukeen dirulaguntza, oster, 13.700 eurokoa; horrenbestez, guztira, 46.250 euro izango litzateke gastua", adierazi dute.

Bizikletendako aparkalekua

Bigarren multzoan, mugikortasun jasangarria batu dute eta bi proposamen egin dituzte. Durana kalean dagoen pasabidean bizikletak aparkatzeko lekua jartzea, batetik: "Pasabide horretan dagoen udalaren biltegian jarriko genuke hori. Horretarako, 12.000 euroko partida sortzea proposatu dugu". Proiektu horren ezaugarriak zeintzuk izango liratekeen ere adierazi dute: 25 leku helduen bizikletendako eta beste horrenbeste umeeenak gordetzeko; bizikleta elektrikoak kargatzeko sistemak; eta tailer txiki bat. "Segurtasun neurriak ere jarriko genituzke hori zaintzeko. Era berean, kudeatzeko proposatzen dugu sarbidea txartel



EH Bilduko sei zinegotziak udaletxean. EH BILDU

DURANA KALEKO PASABIDEAN DAGOEN BILTEGIAN JARRI GURAKO LUKETE BIZIKLETENTZAT LEKUA

bidez izatea eta urteko kuota bat ezartzea".

Multzo horren barruko bigarren proposamena da Almen ikastetxera dagoen errepidean bidegorria egitea. "Gaur egungo bidegorria, Eskoriatzarantz doana, eta ikastetxea lotuko litzuzkeen bidegorri zati bat gura dugu, errepidearen alboan, ikastetxeak berak eskatu duen moduan. Horretarako, dagokion partida sortzea proposatzen dugu 100.000 eurekin".

Etxebizitza programa

Hirugarren multzoan, etxebizitzaren iraunkortasuna hartu dute kontuan, eta proposatu dute ondasun higiezinaren zergaren (OHZ) errekar gutik Udalak jasotzen dituen 34.549 euroak etxebizitza hutsen promoziorako erabiltzea; bereziki, gazteei begira: "Gazteentzako emantzi-

paziorako etxebizitza programa sortzea da asmoa, eta Durana kalean eta Bedarretako San Migel auzoan dituen etxebizitzak txukuntzea eta gazteen alokairu programaren esku uztea". Horretarako, 35.000 euroko partida sortzea proposatu dio Udal Gobernuari.

Finantzaketa moduak

Guztira 207.000 euroko proposamena egin dutela jakinarazi dute EH Bilduko zinegotziek, eta hori zelan finantzatu ere aipatu dute: "Horretarako, zati bat beste partida batzuetatik hartuta finantzatu litzateke. Beste zatia, oster, kredituen bitartez jarriko genuke aurrekontu proiektuan, baina gero, aurrekontuaren soberakinetatik finantzatzea proposatuko dugu, unea ailegatzen denean. Horretarako dirurik izango dela uste dugu".

Hori guztia negoziatzen dihardutela bi alderdiak azken asteotan onartu dute EH Bilduko kideek, eta adierazi dute 2020ko aurrekontuak baloratzeko unea abenduaren 19ko osoko bilkura izango dela, aurkezten den egunean bertan.



Kurtzebarriko DBHko laugarren mailako ikasleak eta hainbat irakasle. MIRARI ALTUBE

Kurtzebarri BHkoak irabazle 'Beldur barik' lehiaketan

DBHko laugarren mailakoek egindako poster batek irabazi du saria eta beste bik aipamen berezia jaso dute

Goiena komunitatea

Kurtzebarri BHI / ARETXABALETA

Kurtzebarri institutuko DBHko laugarren mailako ikasleok aurtun ere *Beldur Barik* lehiaketan parte hartu dugu. Aurtengo edizioan, iaz ez bezala, poster ezberdinak sortu ditugu, eta baita saria irabazi ere!

"Nire letraz"

Letraz izeneko posterra izan da irabazlea (400 euro), baina, horrez gain, beste bi lanek ere aipamen berezia jaso dute. Epaimahaiak, kasu honetan, adierazi du lanaren mezu indartsua

eta estetika zaindua baloratu dituela.

Lehiaketaren xedea da ikusentzunezko produkzioen zein lan grafikoen bidez neskek eta mutilak desberdintasun egoerei nola aurre egiten diegun erakustea.

Hortaz, aurtengo gure lanetan kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenari lotutako mezuak irudi apropos eta indartsuekin lotzea izan da gakoa. Lan irabazlean, idazteko makina bat ageri da zuriz dagoen orri batekin eta honela dio: *Nire bizitza. Nire letraz.*

90 urteko bazkideak omenduko dituzte gaur Basotxon

Gabonetako ekintzei ekingo die Basotxo erretiratuaren elkarteak gaur, 90 urteko bazkideak omenduta (17:00); hamabost. Aurretik dantzatzeko diete, hasteko, eta Basotxoko abestaldeak kantuan egin, gero. Opariak jasoko dituzte omenduek, eta, bukatzeko, txokolate beroa hartuko dute elkartutako guztiek. Domekan, oster, doke txapelketa jokatu dute hainbat elkarteren artean.

Abenduaren 21ean, zapatuan, 40 otarre zozketatuko dituzte Basotxon bertan (17:00), eta, ondoren, txistor-jana izango dute. Abenduaren 24an, kantuan jardungo dute kaleetan (10:00), eta 31n, San Silvestre lasterketan laguntzen izango dira.

Kultura arteko bazkarian 100 bat lagun elkartuko dira

Hainbat jatorritako herritarren topalekua izango da mojen komentua domekan. Bazkaltzeko elkartuko dira eta dagoeneko 30en bat lagunek eman dute izena; dena den, antolatzaileek uste dute 100 bat izango direla, azken orduan jakinarazteko ohitura dute-eta askok.

Bakoitzak jateko zerbait eroango du, norberak gustuko duen zerbait, eta elkarrekin bazkalduko dute (14:30). Bazkalostean (16:00), *Habibi maitea* abestuko dute Basotxoko kantu taldeko kideekin batera, eta, bukatzeko, dantzan egin. Basotxokoek euskal dantza bat eskainiko dute, eta, ondoren, gainerakoendako tarte zabalduko da.



Neska-mutikoak kantuan Nagore Olabe irakaslearen aginduetara. ARIZMENDI IKASTOLA

Kantuan hazteko eta hezteko abesti sorta

Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko kideek hamabi abesti sortu dituzte 'Kantuan hazi eta bizi' proiektuaren baitan; doinu samurrak eta tokiko berbak erabili dituzte, eta ilusio handiarekin egindako bildumatxo hori gaur aurkeztuko diete familiei

Mirari Altube ARETXABALETA

Kantuan hazi eta bizi proiektua garatzen hasi eta hamabi abesti sortuta bukatu dute Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko kideek. Kantu horiek guztiak gaur, egubakoitza, aurkeztuko dizkiete familiei.

"Irati irakasleak abeslaria eta musikaria izan gura zuen, baina hala-moduz zekien kantatzen", kontatu du Eneritz Urrutiak, Basabeazpi guneko irakasleak. Eta istorio horren hariari tiraka garatu dute proiektua: "Neska-mutikoekin erabaki genuen musikari izateko pausoak erakutsiko genizkiola Iratiri". Horretan laguntzeko hainbat bisitari jaso dituzte; besteak beste, ahotsa zelan zaindu irakatsi dien logopeda, erritmoa jarraitzen erakutsi dien batukada bateko kidea, hainbat musika instrumentu sortu dituen herritarra, ahotsaren intentsitatearen berri eman dien musika eskolako irakaslea eta gorputz espresioa lantzen jardun duten Jaiki elkarteak

kideak. "Behin hori guztiori ikasita, umeek erabaki zuten abesti sorta bat oparitzea Iratiri, eta halaxe sortu ditugu kantuak".

Kantu motzak eta samurrak

Urrutiak berak asmatutako letrak dituzte abestiek, eta Nagore Olabe irakasleak egokitutako doinua: "Kanta motzak dira, ikasteko oso samurrak. Tokiko berbak erabili ditugu eta gutxi erabiltzen direnak sartzeko ahalegina egin dugu; adibidez, *katamixarra*, *ostarkua*...". Umeen kanta izan arren euskara ezagutzen ez dutenendako ere material aproposa dela uste du: "Ez bakarrik horiendako, geuretako ere bai, berba horiek gal ez ditzagun". Abeslari lanetan umeek jardun

ABESTI MOTZAK DIRA, IKASTEKO SAMURRAK ETA TOKIKO BERBA ASKOREKIN OSATUTAKOAK

dute, kantu batean izan ezik –hori gurasoek abestu dute–, eta Youtube jarriko dituzte.

Herriko ondarea

Proiektuak dituen helburuak azaldu ditu Urrutiak. Hiru, hain zuzen ere; batetik, material euskaldunaren sorkuntza: "Ikastolako guraso, ikasle eta langileok elkarrekin egitean dago gakoa. Hori da indar nagusia eta lanari ilusioa eta bizitasuna ematen diona". Bestetik dago herriko ondarea jasotzea komunitatea lagun: "Proiektu ezberdinak egin ditugu: gure nagusiek erabiltzen zituzten jolas, kantu, dantza eta esaerak egunerokoan txertatzeko, adibidez. Eta guk ere geure hazia bota nahi diogu ondare horri". Eta hirugarrenik, tresna berriak sortzea euskararen arnagune izan dadin ikastola.

Iratiren istorioaren bueltan sortutako abesti sorta hori herriarendako ere opari izan dadin gura dute. "Ilusioarekin egindako hori, guztiondako izan dadila".

Herriarren eskaintzekin beteko da Neguko Azoka bihar eta etzi

Artisauak, ekoizleak, merkatariak, gobernuz kanpoko erakundeak eta ikastetxeak elkartuko dira Herriko Plazan

M.A. ARETXABALETA

Gabonen atarian, bosgarrenez egingo dute Neguko Azoka. Herriko Plazan jarritako karpa azpian elkartuko dira zapatuan (10:30-14:30 eta 17:00-20:30) eta domekan (10:30-14:30) artisauak, ekoizleak eta merkatariak, eta horien inguruan Josune Murgioitio eta Monika Madinabeitia idazleak, UDA, Hiruatx eta ikastetxeak. "Tokiko produktuak sustatzeko helburuarekin dator aurtengoa ere", adierazi du Kultura zinegotzi Ainhoa Caberok.

Ikas bidaiarako dirua batzen

Hiruatzek bi kanpainaren aldeko bilketa egingo du: batetik, Saharako kanpamentuetarako eta Oñatiko errefuxiatuendako materiala jasoko dute, eta, bestetik, Kolonbian ekindako proiektuari laguntzeko bigarren eskuako produktuak salduko dituzte.

Ikasleek, oster, ikas bidaiarako dirua batzeko aprobetxatuko dute. Kurtzebarri institutukoek tonbola jarriko dute eta opari galantak banatu euro baten truke; eta Almen gunekoek, taberna.

Kontzertuak eta ikastaroak

Karpa abenduaren 18a arte egongo da eta beste ekitaldi batzuk ere hartuko ditu. Gaur, hilak 13, buzkanzak eta txistorra dastatzeko aukera eskainiko du UDAk, Bixentak taldeak girota (19:00). Astelehenean, Hizkuntza Aniztasun tailerra emango du (09:30) Loramendi euskara elkarteak. Astelehen eta eguazten arratsaldeetan, oster, Gu Haziak Gara elkarteak gidatutako joskintza eta kakorraz saioak izango dira. Eta martitzenean, hilaren 17an, Leizarra musika eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du (18:00).

Haurren Gabonetako karate txapelketa domekan kiroldegian

UDAk, eskola kiroleko Gipuzkoako Federazioarekin batera, Gabonetako karate jaialdia antolatu du; domekan izango da, Ibarra kiroldegian (10:00). Karateka gazteenek hartuko dute parte, benjaminetatik hasi eta infantil arterainokoetara. 160 bat neska-mutiko elkartuko dira, guztira; horietatik hamazortzi inguru UDAkoak.

Mendi-federatze aukeretan aldaketak egiteko epea zabalik

Murruixoko mendizale elkarteak bazkidetza eta federatze aukeren berri ematen duen gutuna bidali die bazkideei, baita 2020ko egutegia ere. Aldaketak egiteko azken eguna abenduaren 16a izango da, eta horretarako, Murruixoren egoitzara jo behar dute interesatuek (martitzenak, 19:00-20:00) edo mezu bat bidali: murruixoko@outlook.com.

OHARRAK

Ipuin kontaketa

Izaskun Mujika ipuin kontalariak sorpresaz betetako *Ipuinen haria* saioa eskainiko die haurrei liburutegian bihar, zapatua (11:30).

Erakusketa

Aretxabaleta anitza erakusketa izango da Arkupen hilabete guztian, Auzokok eta Loramendi elkarteak antolatuta.



Lloret de Mar-ko txapelketan garaile

Kadete mailako Eskoriatza taldeko neskek abenduaren 6tik 8ra bitartean jokatu den TSE Top Sport Event txapelketa irabazi dute, Gironako Lloret de Mar herrian. Horrekin batera, liderrak dira ligan, eta asteburu honetan izango dute lehenengo bueltako azken partidua

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zuhaitz Gonzalez Eskoriatzako kadete mailako saskibaloitza taldeko entrenatzailea "zoratzan" dago azkenaldian taldea ematen ari den ikuskizunarekin. Abenduaren 6tik 8ra bitartean, Lloret de Marren izan dira, TSE Top Sport Event txapelketan lehiatzen, eta, jokatu dituzten partidua guztietan zenbait gorabehera izan dituzten arren, guztietan lortu dute garaipena, joko bikaina egiten dakitela erakutsita.

"Kataluniako txapelketara ondo prestatuta joan gara, eta oso ondo aritu dira jokalariek guztiak. Defentsa-lana bikain egin dute, kontraerasoen eraginkortasuna ezin hobea izan da, eta, partidua galtzen joan arren, burua altxatua, buelta eman, eta garaipenaren bila joan dira. Lloret de Marko txapelketa irabazi dugu, baina, hortaz harago, eman duten erakustaldiarekin geratzen naiz ni", adierazi du Zuhaitz Gonzalez entrenatzaileak.

'Lau teilatu' kantuen bertsioa

Haurren minbiziaren aurka EITBk martxan duen maratoi solidarioaren baitan, *Lau teilatu* abestiaren bideoklip berezia sortu nahi dute, herritarrek bidalitako piezekin. Hala, Eskoriatzako neskek minbizia duten



Eskoriatzako kadete mailako saskibaloitza taldea. ESKORIATZA KE

KADETEEK PARTIDU GUZTIAK IRABAZI DITUZTE LLORET DE MARREN JOKATU DEN TXAPELKETAN

haurrak gogoan *Lau teilatu* kanta abesteko tarte atera zuten Lloret de Marko kantxatik. Infantilak eta kadeteak batera kantuan, bideo bat eskegi dute *Eskoriatza Saskibaloitza* Twitter kontuan.

Liderrak ligan

Denboraldia hasi zutenetik zazpi partidua jokatu dituzte, eta guztiak irabazi dituzte eskoriatzarrek. Hala, pasa den jardunaldian, sailkapeneko bigarrenari 22 punturengatik irabazita, liderrak dira. Asteburu honetan, lehenengo faseko azken partidua jokatu dute, Santo Tomas Lizeoa taldearen aurka. Partidua etxean izango dute, Manuel Muñoz kiroldegian, 11:15ean. Jardunaldi honen ostean, berriz, Gipuzkoako faseari ekingo dio taldeak.



TORTOLIS LUDOTEKA

Minbizia duten hurrei elkartasuna

Eskoriatzako Tortolis ludotekako neska-mutiek ere minbizia duten hurrekin bat egiten dute. Horretarako, *Lau teilatu* kantua abestu zuten, elkartasun gisa. Bideoa grabatu aurretik, apaingarriak prestatu zituzten, eta egindako lanarekin oso gustura geratu zirela adierazi dute bertako hezitzaileek.

Huheziko eraikinera bisita gidatua izango da zapatuan

Azaroaren 9an egitekoa zen Mondragon Unibertsitatearen Huhezi fakultatearen egoitzaren bisita bertan behera geratu zen, eta, zapatu honetan egingo dute. Bisitan, eraikinaren nondik norakoak ezagutuko dituzte bertaraten direnek, Ana Isabel Ugalde historialariaren eskutik. Hala, ele bitan eta doan izango da bisita, baina izena eman

beharra dago, Ibarraundi museoa. Zapatuan, elkartzeko lekua ere museoa izango da.

Gaur egun unibertsitatea dagoen eraikina Errosario Santuko Ospitalea izan zen. Lau mendeko historia du, eta eraikin lanak 1600. urtean hasi ziren, Perura joandako Juan de Mondragon arkarazotarraren aginduz. Ordutik hona, ugariak izan dira jasan dituen gorabeherak –sute handiak, jabetza aldaketak, erromesen abenturak...– eta eman zaizkion erabilerak.

Jarindora irteera izango da domeka honetan

Domeka honetarako, abenduaren 15erako, *Makila eskuaren ibili basuen* egitasmo kideek eta Eskoriatzako Berbalagunak taldeko partaideek elkarlanean antolatuko dute mendi-irteera. Marin auzoko inguruak ezagutzeko helburuarekin, honako hau da egingo dute bidea: Gatzagain, Jarindo, Marin, Eskoriatza.

Ibilbidea egin gura duenak autobusa izango du, Eskoriatzatik irtenda, 09:15ean, edo, bestela, 09:30erako egin dute hitzordua Gatzagaingo aparkalekuan. Irteerara joateko ez dago izenik eman beharrik, baina hurrek heldu batekin lagunduta joan beharko dutela adierazi dute antolatzaileek.

Hitzaldia: 'Inteligentzia emozionalaren lanketa nerabeekin'

Eskoriatzako Udalak antolatuta, Izar Arregi psikologo eta terapeuta *Inteligentzia emozionalaren lanketa nerabeekin* izeneko hitzaldia eskainiko du abenduaren 19an, eguna, 18:30ean, kultura etxean. Adin guztietako pertsonen zuzenduta, komunikazioa, autoestimua eta nerabezaroa oinarri izango ditu Arregik euskaraz eskainiko duen saioak.

Nerabezaroa, haur izatetik helduarora doan trantsizio garaia, sarri, zaila izaten da nerabeentzako zein gurasoentzako, eta, askotan, familian birkokatze bat eskatzen du. Hala, horren bueltan jardungo du doan izango den hitzaldian.

Infantilak, hirugarren postuan

Infantil mailako Aresko taldeak ere lan bikaina egin du Lloret de Marko txapelketan. Izan ere, hirugarren postuan sailkatu dira Mikel Elortza entrenatzailearen neskek.

Derbia infantilek

Zapatuan, 09:30ean, Manuel Muñozen jokatu dute ligako partidua, Mondragon B taldearen aurka.



Infantil mailako taldekoek aurkariarekin ateratako argazkia. ESKORIATZA KE

Gari & Maldanbera ikusteko sarrerak, salgai

Bihar, zapatua, izango da kontzertua, 20:00etan, Zaldibar antzokian. Sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian erosi daitezke, 4 eurotan, eta, guztiak ez badira saltzen, egunean bertan ere erosi ahal izango dira, emanaldiaren aurretik, antzokiko leihatilan

Imanol Beloki ESKORIATZA

Hertzainak talde historikoko abeslari ohia talde formatuan dabil azken urteotan. Orain dela lau urte abiatu zuten bidea elkarrekin musikagintzan ibilbidea luzea duen Gari musikari legazpiarrak –Hertzainak– eta Maldanbera taldeak, eta zapatuan Zaldibar antzokiko oholtza gainean izango dira kontzertua eskaintzen. Sarrerak Manuel Muñoz kiroldegian erosi daitezke, lau eurotan, eta, edukiera mugatua denez, aurrez erostea gomendatu dute antolatzaileek.

Hainbat urtez bikote formatuaren mugak arakatu ondoren, azken hamarkadetakoa euskal musikako artista handienetakoa den Garik esperientzia berri bat hasi zuen Maldanberarekin, formazio klasikoa duen taldearekin. Natxo Beltran (bateria, ahotsak), Oier Aldekoa (baxua, teklatuak eta ahotsak) eta Miguel Moyano (gitarra, teklatuak eta ahotsak) musikarien laguntzarekin izango da Zaldibar antzokian ordu eta erdi inguruko saioa eskaintzen.

Kanta zaharrak berreskuratuz

Zapatuan 20:00etan hasiko den emanaldian, *Beste denbora batean* azken diskoa aurkezten izango da, baina, oinarrian disko ho-



Gari & Maldanbera, Oñatin eskainitako kontzertuan. IMANOL SORIANO

rretako kantuak izango dituen arren, Garik bere ibilbideko hasierako kantak ere eskainiko die bertaratzen direnei. Izan ere, irailaren amaieran Euskalduna jauregiko auditoriumean *Inun baino alaiagoa izanen da* izenburupean Josu Zabalak eta Garik eskainitako saioaren ostean abesti zaharrak erreperitorioan sartzea erabaki duela adierazi du Gariren managerrak. "Maldanbera taldearekin egonkortasuna topatu du Garik eta bere betiko abestien rock funtsa berreskuratutako ahal izan du".

Gertukoa eta kalitatezkoa

38 urte baino gehiago eszenarioetan eta musikari lotuta bizi osoa eman ondoren, gertuko eta kalitate handiko kontzertu intimoa eskaintzeko asmoz izango da zapatuan. Nostalgia barik, fokua eguneroko gauza txikietan jarritz.

Taula gainean izaten duen jarrera eta estiloagatik da erakargarria Gari, eta bere ahots xuxurlatu eta hauskorren jarraitzaileek euskal musikari mitikoa zuzenean ikusteko aukera izango dute.

Country, rock-and-roll eta gipsy-jazz estiloak uztartzen dituzte, eta, euren kantuez gain, bertsioz betetako kontzertua eskainiko dute. Besteak beste, Elvis Presley, Janis Joplin eta Johnny Cash taldeen bertsioak, hain zuzen ere.

Hala, Donna Dunne abeslariaren ahots izugarriaz eta ibilbide luzea eta teknika handia duen Philip Doyle gitarra-jolearen kantuez gozatu ahal izango dute bertaratzen diren ikus-entzuleek.

go aldia bikote irlandarra Inkernuko oholtza gainera igotzen dela; izan ere, urtarrelean eskainitako kontzertuaren arrakastaren ostean, berriro ekartzea erabaki dute Atxorrotx kultura elkarteak kideek.

Craic 'N' Roll taldea berriz izango da Inkernuko oholtzan

Donna Dunne eta Philip Doyle bikote irlandarraren emanaldi akustikoa 22:30ean hasiko da

I.B. ESKORIATZA

Donna Dunne abeslariak eta Philip Doyle gitarra-joleak osatzen duten Craic 'N' Roll taldeak emanaldi akustikoa eskainiko du zapatu honetan, Inkernun, 22:30ean hasita. Ez da lehenen-

LEINTZ GATZAGA | 19



Leintz Gatzagako udal ordezkarien kargu-hartze ekitaldia. IMANOL SORIANO

Eugenio Otsoa da Leintz Gatzagako alkate berria

Herriarren babesarekin eratu zuten Leintz Gatzagako udalbatza berria pasa den zapatuan

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eugenio Otsoa da Leintz Gatzagako alkate berria, zumitzezko txibita eta aginte makila hartuta. Alkate karguarekin batera, udalbatzako gainontzeko kideek ere kargua hartu zuten: Garazi Orobengoak, Ogasuneko zinegotzi kargua; Juanito Bengoak Mendikoa; Beñat Agirreurretak, Kulturakoa; eta Jon Sasiainek, Hirigintzakoa.

"Herri txikietan bertigo handia ematen du udalean sartzek, baina, azkenean, talde polita osatu dugu", adierazi zuen Eugenio Otsoak. Eta hauxe gaine-

ratu: "Gazteak taldean izatea ezinbestekoa da".

Gazteen garrantzia

"Kontzientzia sozialak" bultzatuta animatu da Garazi Orobengo agintaldi honetan Ogasun zinegotzi kargua hartzera. Lehen aldia izango du eta "ilusioz" agertu da: "Herrian zegoen beharri erantzun emanez animatu gara Beñat Agirreurreta eta biok. Herriarrek asko animatu eta baloratu gaituzte. Gainera, talde polita eratu dugula uste dut denon artean, lanean indarrez aritzeko".

Autodefentsa feminista tailerra izango da zapatu honetan

Emagin elkartekoek eskainitako saioa lau ordukoa izango da, 10:00etan hasita, kultura etxean

I.B. LEINTZ GATZAGA

Indarkeria Matxistaren Kontra Nazioarteko Egunaren bueltan, Madrilan asteburu-pasa egin zuten Sorginak Emakume Taldeko zenbait kidek, eta zapatu honetarako, berriz, autodefentsa feminista tailerra antolatu dute Berdinbidean Gipuzkoak, Bideberrik eta Sorginak Gatzagako Emakume Taldeak elkarlanean.

Bortizkeriari aurre egiten ikasteko eta indartze pertsonalerako teknikak ezagutzeko asmoz antolatutako autodefens-

ta feminista tailerra zapatu honetan izango da, Gatzagako kultura etxean, eta Emagin Euskal Herriko Bilgune Feministako kideak izango dira lau orduko formakuntza saioa eskainiko dutenak, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Tailerrean parte hartzeko interesa duten emakumeek zenbait bide izango dituzte horretarako: Leintz Gatzagako udaletxera joanda edo 943 71 47 46 telefono zenbakira deituta; edo Sorginak Emakume Taldearen Whatsapp taldean idatzita.

Urdangarinen lehen emanaldia pianoarekin

Kultura hitzordurik ez da falta egunotan Elgetan. Erretiratuen kultura asteko ekintzak izan dira astean, eta Mikel Urdangarin Ozkarbi elkartearen izango da gaur, 20:00etan. Liburutegian, berriz, 'Hiri kondairak' eskainiko ditu Ixabel Agirresarobek, 19:30ean

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Urdangarinek Ozkarbi elkartearen eta lagunartean egingo du pianoarekin jendaurrean egiten duen lehen emanaldia. Martxoaren 12an Arriagaren egitekoa duen kontzerturako lehen entrenamendua izango da. "Horrela iritsi zitzaidan gonbidapena Elgetako lagunaren partetik eta esan zidaten pianoa ere lortuko zidatela. Plano oso-oso lagun-koian eta hurbilean izango naiz Ozkarbin", esan du. Arriagara-ko errepertorioa osatzen ari da oraindik, eta prest duenarekin etorriko da Elgetara. Bere kantutegitik egin du aukeraketa. "Zerbait berria ere sortu dut eta eramango dut, baina kantu gehienak aspaldian entzun gabekoak dira, eta pianoarekin".

Kontzertua elkarte batean eta lagun artean izanagatik erronka handia dela dio musikariak. "Ez dut inoiz horrelakorik egin. Arriagara beste urduri eta arduratsu helduko naiz Elgetara".



Mikel Urdangarin. MIKEL EZKERRO

Pianoa ikasten

Pianoa ikasten hasi berria da Urdangarin. "Esango nuke nire bizitzako erronka dela. Ez naiz piano-jolea, baizik eta pianoarekin abestu nahi duen kantaria. Nire jomuga kantua da, ez pia-

noa. Baina pianoak beste sonortate bat du, eta oso indartsua da. Ez dago instrumentu indartsuagorik. Eta hor nabil, neurria hartzen. Jendeari erakutsi nahi diot zertan nabilen eta nahiko nuke iritziak jasotzea".

Udal inbertsioetarako diru kopuru handiena 2012a ezkerro

2020ko udal aurrekontuaren proposamena aurkeztu du alkateak, eta udalbatzak martitzenean eztabaidatuko du

L.Z.L. ELGETA

Elgetako udalbatza martitzenean elkartuko da 2020ko udal aurrekontua erabakitzeko. Iraitx Laznako alkateak asteon eman du Udal Gobernuak landutako aurrekontu proposamenaren berri.

1.728.293 euroko aurrekontu proposamena da, aurtengoa baino 140.000 euro handiagoa. "2012a ezkerro Elgetako udal aurrekontu batek inbertsioetarako izan duen diru kopuru handiena da. Bi faktorek eragiten dute: alde batetik, Udalak *Olalde* auziarekin lotuta zeukan lehen kalte-

ordaina pagatzen amaitu izanak aukera handiagoa ematen du aurrekontua moldatzeko eta dirulaguntza gehiago lortzeko. Bestetik, aurreikuspena da Foru Fondotik etorriko den diru kopuruak %3 eta %4 artean egingo duela gora", azaldu du alkateak. Lazkanok jakinarazi du *Olalde* auzitik 80.000 euro libratzeak esan nahi duela kopuru hori gehi horrekin lor daitezkeen dirulaguntzak egongo direla inbertsioetarako. "Hau da, ia 120.000 euro gehiago. Hala, 2020an ia 300.000 euro izango ditugu

inbertsioetarako. Urteotan euste ekonomia batean mugitu gara, baina aurtengoa, nire ustez, normaltasun baten barruan funtzionatzera bueltatuko gara".

Inbertsio nagusiak

2020rako aurreikusten diren inbertsio nagusiak dira: San Roke kaleko zorua berritzeko 110.000 euro, Haur Hezkuntzako teilatua egiteko 50.000 euro, Udalak plazan duen etxebizitza berritzeko 40.000 euro, industrialdean ingurumen kontuak lantzeko 18.000 euro, baseritarren batzorderako 15.000 euro, herriko mapa topografikoa egiteko 14.520 euro, frontoian LED argiak ipintzeko 5.000 euro, eskolan suteen kontrako ateak jartzeko 4.482,68 euro eta udal langileen fitxaketa sistema ipintzeko 800 euro.

'Hiri kondairak' gaur liburutegian

Hainbat ipuin saio izango dira, gaur, liburutegian. 17:00etan, *Ipuinen ordua*-ri emango diote hasiera. Herriko kontalari taldearen eskutik izango dira hiru saio. Aldiz, 19:30ean, *Hiri kondairak* eskainiko ditu Ixabel Agirresarobe kontalari usurbildarrak. Ordubete inguruko saioa izango da, eta 15 urtetik gorakoendako. "Hiri kondairak herrietan edo hirietan kokatzen diren gertaerak dira, eta gaur egungo gizarte kaletar honetan gerta daitezkeenak", azaldu du. "Nerabeei eta hortik gorakoei adinari egokitutako edukiak eskaini behar zaizkie. Oso gustuko dituzte heriotzarekin, gaiztakeriarekin eta umore beltzarekin zerikusia duten istorioak, eta hortik joango da nire saioa". Agirresarobek 28 urteko ibilbidea du. Bilakaera handia egon dela dio: kontalari gehiago dira, gaiak eguneratu egin dira eta ikuspuntu parekideagoa lantzen da.



Ixabel Agirresarobe. I.A.

Herriko kantaria erretiratuen astean

Xalbadorpe elkartearen kultura astean musika, antzerkia eta bingo saioa izan dira egunotan. Eguaztenean, esaterako, Alai Taldearen kontzertua izan zen antzokian, eta bertan aritu ziren hiru artista gazte; tartean, Unai Cantabrana elgetarra. Saio polita egin zuen hainbat bertsio eskainiz. Erretiratuek, gaur, Gabonetako luntxa egingo dute, 18:00etan, Ozkarbin.



Unai Cantabrana, Espaloian. L.Z.L.

PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUA, GAUR, 20:00ETAN

Jon Irazabal-Benat Arabaolaza / Alain Valle-Eneko Ormaetxea

SAILKAPENAK

40 URTETIK GORAKOAK

	P	I
1. Gallastegi-Askasibar	4	4
2. Retolaza-Elkoro	4	3
3. Bouzas-Zubiaurre	4	2
4. Erostarbe-Arizmendiarieta	4	5
5. Martin-Bolinaga	4	0

40 URTETIK GORAKOAK

1. Sarasua-Elorza	4	4
2. Ormaetxea-A. Valle	3	2
3. Irazabal-Arabaolaza	3	2
4. De Vega-Cantabrana	4	1
5. Garate- I. Valle	4	0

Oharra: Azken partidua ez du eraginik izango finalerdietan. Erabakita daude dagoeneko. Emakumeetan, berriz, lau lagunek hartu dute parte eta bikoteak aldatzen joan dira. Ez dago sailkapenik.

OHARRAK

Azoka berezia gaur

Herriarrek egindako azoka, 18:00etan, kiroldegian. Truke azoka, bigarren eskuko azoka, artisautza lanak...

Omenaldi berezia


Herriar talde batek ezusteko omenaldia egingo dio elgetar bati. Ekitaldia domekan izango da, 13:00etan, plazan.

Ate irekiak ludotekan

Hilaren 17an, 2-6 urte arteko umeendako; eta hilaren 19an, 7-12 urte artekoendako. Zerbitzua ezagutzeko. Doan.

Podologo zerbitzua

Erretiratuendako kontsulta, hilaren 19an. Txanda hartzeko: 943 76 80 77 (Nati).



GABONAK ARRASATEN 2019 + SANTAMASAK



Gabon sasoian,
arrasatearrak
munduan
barrena

•
Gabonetako
ezinbestekoak
Arrasaten

•
'Xanti Smith'
txerria,
santamasei
begira

IBAI ZABALA



ETORRI OPEL CORSA BERRIA EZAGUTZERA

Ondo pasau Santamasak!



OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA



San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

Gabon garaian, arrasatearrak munduan barrena

Gabonak etxean familia eta lagun artean pasatzeko garai bereziak badira ere, badaude data hauek etxetik kanpo munduan zehar pasako dituzten bost arrasatear.

Amaia Aranegi



JOSU ARIÑO

"Gabonetarako askok etxeko ateak zabaldu dizkigute"

Josu Ariño 24 urteko arrasatearra Medikuntza graduko azken urteko praktikaldia egiten ari da Mexikon, Meridan, Yukatango probintzian. Hango jende askok Gabonak eurekin pasatzeko etxeko ateak zabaldu dizkioten arren, Kuban igaroko ditu Gabonak, bertan egindako lagunekin, bere bertako familia dena. Mexiko ikusteko aukera izan du, eta, Kuba gertu egonda, urteko azken egunak Karibeko hondartzetan igarotzea plan paregabea iruditzen zaio. Bitxia egiten ari zaio Ariñori Gabonetako apaingarriak 30 gradutan eta tirantetan ikustea. Hala ere, garaiotako janaria —arrain zopa, turroiak...— eta santamasak faltan igarriko ditu.

ARITZ UNAMUNO

"Aurten, etxekoak etorriko dira Gabonak elkarrekin pasatzera"

Aritz Unamuno 40 urteko arrasatearra da eta lau urte eta erdi darama Txinan. Shanghain, Fagor Ederlanen Kunshanen, egiten du lan, Mekanizatuko Produkzioko arduradun. Aita izan berri da —alaba jaio da orain dela hilabete— eta Vietnamen pasako dituzte Gabonak familiakoekin batera. Alaba ezagutzera joango dira eta, bide batez, Gabonak elkarrekin pasatzeko dituzte. Azken bost urteak etxetik kanpo pasa ditu Gabonak eta aurten, behintzat, familiarekin egongo da. Hala ere, abenduaren 24ko arratsaldeko poteoa eta Aramaioko gainontzeko familia faltan igarriko ditu.



ALDEDI

Ondo pasau santamasak!

24 orduko sarrailagintza zerbitzua • 665 71 05 99

Biteri 8 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84 • aldedi@aldedi.eu



IZASKUN MARIÑELARENA

"Oso bitxia egingo zait Gabonak uda giroan pasatzea"

Izaskun Mariñelarena 24 urteko arrasatearra da eta urria ezkerro Australian dago, Sydneyn. Han, ingelesa ikasi eta hondartzaren ondoan dagoen saltoki-gune bateko mexikar jatetxe batean lanean jarduten du. Gabonei begira, ez daki ziur Gabon gaua nola ospatuko duen, baina lagun artean afari on bat eta festa ez da faltako. Gabon zaharrean, adibidez, badaki hondartzan afaldu eta Sydney erdialdean, Opera House inguruan, agurtuko duela urtea. Lehenengo aldia da Gabonak etxetik, familiarengandik eta lagunengandik urrun pasako dituela, eta faltan igarriko ditu garai hauetan gertukoekin bizitako momentuak.

BEÑAT BARBERENA

"Herrimin gehien sentitzen den garaia dira Gabonak"

Beñat Barberena 30 urteko arrasatearra da eta Txinan dago, Hangzhou-n, Zhejiang probintzian, neska-lagunarekin batera. Laugarren urtea du han; heziketa fisikoko irakasle eta saskibaloiko entrenatzaile eta jokalaria dihardu. Gabon gauean, neska-lagunarekin batera, gordeta daukaten pateea, amaren kroketa eta urdaiazpikoa izango dituzte afaltzeko, eta 25ean eta 31n lagunartean izango dira. Laugarrenez ospatuko ditu Gabonak Txinan; herrimina du: "Familiarekin bazkari eta afariak, tertuliak, kartak, lagunekin poteo eta parrandak... Ai... Besarkada potolo bat denoi!".



MAITE LASA

"Esperientzia bakarra da eta aprobetxatu egin nahi dut"

Maite Lasa 21 urteko arrasatearra Krakovian dago, Polonian, Prozesuen eta Elikagai Produktuen Berrikuntzako Graduko Erasmus aldian. Gabon gauean, Antzuolako lagun bat bisitan egongo da eta bera eta bi pisukide Bratislavara joango dira ospatzera. Lehenengo aldia da Lasak Gabon gaua etxetik kanpo pasako duena eta egun horretan kalean sortzen den giroa, familia, lagunak eta janaria faltan igarriko ditu. Gabonak Arrasaten urtero pasatzeko aukera dauka, eta, Polonian egonda, ahalik eta gehien aprobetxatu eta disfrutatu nahi du. Gabon zaharrean Arrasaten egongo da, eta gero, berriz ere Polonian izango da bueltan.



AMAGARA

Estetika Zentroa

Gabonetan edertasuna oparitu!

Bete-beteen asmatuko duzu!

- Aurpegi hidratazioa
- Manikura
- Mikropigmentazioa
- Gorputz hidratazioa

- Bekainen permanentea eta tindatzea
- Orbanak kentzeko laserra...

Gure aholkuekin, opari hoberena aukeratuko duzu

Gabon zoriontsuak guztioi!

Erdiko kale 54, behea 20500 Arrasate • 943 79 09 09 • www.amagaraestetikazentroa.es • facebook.com/amagara



SANTAMÁS KROSA
ABENDUAK 15

Jaiak gainean dauden iragarlerik onena

Arrasate Kanpazar Atletiko Taldea berrogeita bi urtez doa santamás jaien aurreko asteburuan krosa antolatzen. Ospakizun eta festa giroan, ume eta heldu asko korrikan ibiltzen dira herrian zehar. Helburua, santamasetarako gutxi geratzen dela, jai giroan sartzea eta lagunartean ondo pasatzea da. Hiru kategoria egoten dira: gizonezkoa, emakumezkoa eta kuadrillena. Kuadrillen lehenengo saria bildots bat da, bigarrena lau untxi eta hirugarrena bost oilasko. Umeentzako lasterketak ere izaten dira. Izan ere, harrena ona izaten du krosak herrian: aurreko urtean, 250 ume eta 220 heldu izan ziren.



Arrasaten Gabonetako bost hitzordu ezinbesteko

Gabonetan Arrasaten badira hainbat ekintza eta hitzordu ohitura bilakatu direnak. Egun batzuk arrasatear askoren egutegietan markatuta daude eta urterik urte ez dute hutsik egiten. Familian eta lagunartean egiteko ekintzak ez dira falta garai hauetan

JAIOTZEN ERAKUSKETA
ABENDUAK 22- URTARRILAK 6

Izartsua Belenzaleen Elkartaren eskutik

Duela zortzi urtetik, Arrasateko Belenzaleen Elkartek jaiotzen erakusketak antolatzen du San Frantzisko elizan. Hogeita bat sekuentzia historikoren bitartez, Jesusen bizitza azaltzen du erakusketak. Gainera, artisaufigurekin osatutako jaiotza nagusi bat dago pieza eta xehetasun askorekin: Arrasateko dragoia, errementaria, Olentzero... Kutsu kulturala duen jarduera honek denetarik publikoa batzen du: erlijiosoak direnak eta ez direnak. Gabon garaian, familia artean jende asko gerturatzen da eta harrena ona izaten du erakusketak. Aurten, abenduaren 17an San Frantziskoko kaperan egongo den mezaren ondoren inauguratuko dute.



BEZa

oparituko dizugu

elikagaietan,
freskoetan, lurrindegian
eta drogerian.

Edariak, parafarmazia eta haurtzentzako
produktuak bane.

Abenduak

14

Larunbata

Aurtengo *Gabonetan* aurrezki gehiago bazkide izateagatik

Euskadi, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Aragoiko EROSKI center eta EROSKI city supermerkatuetan 40 €-tik gorako erosketak egitean, edo EROSKI hipermerkatuetan 60 €-tik gorako erosketak egitean, sustapenera atxikitako sailetan.

* Kutxan ordaintzean EROSKI club txartela aurkeztuta, promoziora atxikitako atalean egindako erosketari dagokion BEZaren zenbatekoa sartuko dizugu harekin erlazionaturako EROSKI club kontuan. EROSKI club kontu bakoitzeko gehienez sar daitekeen zenbatekoa: 250 euro. Kontsultatu gainerako baldintzak zure ohiko saltokian.

Baita supermercado.eroski.es/eu webgunean ere.



EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



TXORONPIA ETA TXORONPIO
ABENDUAK 24

Olentzeroren mezulariak, umeen eskutitzak jasotzen

Txikiak urtean zehar gehien itxaroten duten eguna izaten da eta goizetik edukitzen dute zer egin. Goizean, Txorontzia, Txorontzio eta urterik urte aldatzen den pertsonaia mitologiko bat Arrasateko auzoetan zehar ibiltzen dira herriko umeen eskutitzak jasotzen. Olentzeroren mezulariak herriko dantza taldeekin batera Musakola, Santa Teresa, Munar, San Andres, Uribe eta Seber Altuben zehar ibiltzen dira umeen eskutitzak batzen. Urteroko hitzordua izaten da hau eta Arrasateko guraso eta ume asko batzen ditu. Umeek ilusio handiarekin ematen diete Olentzerori idatzitako eskutitza eta dantzariekin batera festa giroan pasatzen dute goiza.



UDALATXERA MENDI MARTXA
ABENDUAK 31

Urtea agurtzeko, lagun eta familiaratean Udalatxera

Arrasatear askorentzat ohitura bilakatu den joera da hau. Urteko azken egunean, asko dira familiaratean eta lagunartean arrasatearrek hain maitatua duten Udalatx mendira igotzen direnak. Urteko azken eguna aprobetxatzeko nahiarekin, goizean goiz, motxila jatekoarekin eta edatekoarekin beteta, Udalatxera abiatzen dira. Urteko beste egunetan ez bezala, arrasatear asko pilotzen dira bidean. Behin tontorrera iritsita, ospatzeko unea iristen da eta urteak eman duena eskertu eta urte berriak ekarriko duenarengatik xanpainarekin topa egiten dute askok. Horrenbestez, egun berezia izaten da eta askok ez dute hutsik egiten.



GABON ZAHARREKO KONTZERTUA
ABENDUAK 31

Ohitura bilakatu den kontzertua, Bandaren eskutik

Arrasate Musikaleko Banda duela hogeita hiru urte sortu zen eta lehenengo kontzertua abenduaren 31n eskaini zuten herriko plazako udaletxeko arkupeetan. Orain, Amaia antzokian egiten dute ohitura bilakatu den kontzertua, 13:00etan. Aldez aurretik entsegua egiten dute eta 11:00etan kalejiran irteten dira herrian zehar, kaleak girotu eta alaitzeko asmoz. Ibilbidean, Iturbide egoitzan ere egiten dute geldialdia. San Juan jaietan egiten duten kontzertuarekin batera, Gabon zaharrekoa berezia izaten da eta harrera ona izaten du herrian. Aurten, 20 urtetik gorakoek hiru euroko dirulaguntza eman beharko dute.

zenbaki

aholkulariak-abokatuak osatzen dugunok Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu; eskerrik asko gugan jarritako konfiantzagatik.



KONTABILITATEA



FISKALITATEA



ENPRESA BERRIAK



GESTORIA



ABOKATUAK



LABORALA





Xanti Smith aurtengo santamasetako txerria Ibai Alberdi jabearekin. IMANOL BELOKI

260 kilo inguru ditu aurtengo txerriak

Zaloña Aurrekoa baserriko 'Xanti Smith' txerria izango da aurtengo santamasetako protagonista; hala ere, Arrasateko zenbait kultura taldek, Udalak eta Santamas Komisiñuek egitarau bete antolatu dute jaietarako, gaurtik hasita

Imanol Beloki ARRASATE

Santamasetan egiten den azokaz eta ekitaldiez aparte, eguneko protagonista nagusia txerria izan ohi da urtero. Aurtengoaren ize-na *Xanti Smith* da, pietrain arrazakoa, eta 260 kilo inguru dituen sekulako urdea Aretxabaletako Galartza auzoko Zaloña Aurrekoa baserritik eroango dute Arrasatera. Laugarren urtez izango da baserri horretako txerria, eta bere aurkezpena abenduaren 21ean egingo dute, arratsaldeko zazpitan, Herriko Plazan. Horrekin batera, txerria ezagutzera eta txartelak erostera gonbidatu ditu herritarrek Santamas Komisiñuek.

Euskal kulturaren parte garrantzitsua den nekazari mundua gertutik ezagutzeko aukera ere izango da, beste urte batez, eta, hala, izango da zer ikusi Jokin Zaitegi eta Biteri etorbideko artisauen azokan –guztira, 34 postu–. Honekin lotuta, motorrak berotzen joateko, zapatu honetarako, Imanol Aranburuk eskainitako zeramika tailerra eta Sandra Clivillek eskainiko duen *Artiletik harira* tailerrak ere antolatu dituzte.

Seber Altube plazan ere izango da, beti bezala, fruten, barazkien eta herriko saltokien erakusketa eta lehiaketa; Arizmendiarrieta plazan, ganadu eta hegazti feria,

eta dantzek ere protagonismo handia izango dute aurtengo jaietan. Izan ere, santamas eguneko herriko dantza taldeek eskainiko dituzten erakustaldiez gain, nahi dutenek dantzara irteteko aukera izango dute zapatu honetan, 13:00etan, Lore Gazteak eta Txikitxu taldeek antolatu duten borobileko dantza saio parte-hartzailean.

Egitarauko beste ekintzetako bat Miren Amurizarekin abenduaren 17an, martitzenean, izango den solasaldia da. *Basa* eleberraren buruzko solasaldia eskainiko du, Ane Zuazubiskarrek gidatuta, eta Kulturateko areto nagusian izango da.

EZ DUGU IZATERIK ASKE HAIEK GABE

Geurriak geurreta



IRATI • TAUPA • OSORIK • BASATI ILUNTZ • JAI ZALE

Santamasetako egitaraua

Abenduak 13, egubakoitza

- **18:00** Plazan, umeentzako herri kirol jolasak.
- **19:00** Uarkapen, Santamas Pilota Txapelketako finalak.

Abenduak 14, zapatua

- **10:00-14:00** Kulturateko klaustroan, *Artilek harira* tailerra.
- **10:30-12:30** Kulturateko Loramendi gelan zeramika tailerra Imanol Aranbururekin.
- **13:00** Herriko Plazan, borobileko dantza saio parte-hartzailea, Lore Gazteak eta Txikitxu taldeen eskutik. Ostein, Olentzeroren gutun banaketa.
- **19:30** Kajoi tabernan, Trikitixa Eskolako ikasleen ikuskizuna.

Abenduak 15, domeka

- **09:30** Musakolako kiroldegian, Santamasetako Padel Txapelketako finalak.
- **11:00** Herriko kaleetan zehar, haurren santamas krosa.

- **12:30** Kuadrillen Arteko Santamas Krosa.
- **12:30** San Frantzisko elizan, Txorbela otxotearen kontzertua.
- **19:30** Amaia antzokian, Tanttakaren *Utzi zure mezua seinalearen ondoren* antzerkia.

Abenduak 17, martitza

- **18:30** Kulturateko areto nagusian, Miren Amurizaren *Basa* liburuaren inguruko solasaldia, Ane Zuazubiskarrek gidatuta.
- **20:30** Amaia antzokian, Ozenki elkarteak antolatutako gala lirikoak.

Abenduak 20, egubakoitza

- **17:00** Erakusleho lehiaketaren sari banaketa.
- **19:00** Portaloitik hasita, Kantu Gira.
- **22:00** Gaztetxean, kontzertu akustikoak: Ekiñe Casado, Idoia Asurmendi, eta Lierni eta Asier.

Abenduak 21, zapatua

- **10:00** Corazon de Encina kultura zentroan, 31. Santamas Xake Txapelketa.
- **18:00** Seber Altuben, Herrixa Dantzan taldearen ikuskizuna.
- **18:30** Etxafuegoak.
- **19:00** Herriko Plazan, *Xanti Smith* txerriaren aurkezpena.
- **19:00** Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa.
- **19:30** Irurtzongo pertsonaia mitologikoen kalejira.
- **20:00** Amaia antzokian, bertso-saioa. Bertsolariak: Ane Labaka, Maialen Lujanbio, Amaia Agirre, Julio Soto, Jon Maia eta Arkaitz Estiballes. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. AEDK antolatuta.
- **22:30** Gaztetxean, herriko taldeen kontzertuak: Bloom, Libertad Condicional eta Rebel Noise.

Abenduak 22, domeka

- **09:00** Etxafuegoak.
- **09:30** Udalaxpe txistulari taldearekin diana.
- **10:00** Jose Maria Arizmendiarieta plazan ganadu eta hegazti feria.

- **10:00** Seber Altuben, fruta, barazki eta herriko saltokien erakusketa eta lehiaketa.
- **11:00-20:00** San Frantzisko elizan, Izartsua Arrasateko Belenzaleen Elkarrekin antolatuta, jaiotzen erakustaldia.
- **10:00** Portaloian, *Xanti Smith* txerriaren aurkezpena.
- **10:30** Jokin Zaitegi plazan eta Biteri etorbidean, artisau feria.
- **11:00** Herriko Plazan, taloak eta Aramaioko sagardogileak.
- **11:30** Kalejira: Arrostitz eta Lore Gazteak dantza taldeak.
- **11:30** Iturengo joaldunak.
- **11:30** Incansables txaranga.
- **11:30** Plazan, Arrasateko trikitilarien saioa.
- **12:00** Plazan, fruta eta barazki lehiaketaren sari banaketa.
- **12:10** Plazan, Lore Gazteak dantza taldearen saioa.
- **12:30** Zerkaostetan, Lore Gazteak beterranoen dantza saioa.

- **12:30** Zaldibarren, herri kirolak.
- **12:50** Herriko Plazan, Arrostitz dantza taldearen saioa.
- **13:00** Seber Altuben, Lore Gazteak beterranoen dantza saioa.
- **13:45** Herriko plazan, txerri dantza herrikoia.
- **14:45** Musakolako kiroldegian, herri bazkaria. Ostein, AZ Gaubelak-en eskutik dantzaldia.
- **17:00** Uarkapen, profesional mailako pilota partiduak: Ezkurdi/Martija - Artola/Imaz.
- **19:00** Arbolapetatik hasita, Batzen dantza herrikoia.
- **19:30** Plazan, txerri dantza herrikoia.
- **19:30** Plazan, larrain dantza.
- **20:00** Plazan, txerri zozketa.
- **20:00** Plazan, Ilargi Beltza taldearen dantzaldia.
- **23:00** Gaztetxean, Virgin Mari DJ-SET.



SUV Citroën C5 Aircross



- 50 KILOMETROKO AUTONOMIA
%100 MODU ELEKTRIKOAN IZANDA
- BATERIAREN GARANTIA:
8 URTE EDO 160.000 KILOMETRO
- BIRKARGA AZKARTUA
2 ORDU BAINO GUTXIAGOAN
- BIRKARGA DIFERITUA
- HIRI-IBILGAILU ISILA

*Ondo ibili
santamasetan!*



DEBAGOIENEN KOTROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA: TALLERES CHAPIME S.C.L. San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE

2020

Oparitu ongizatea
eta edertasuna



Biomer gorputzeko detox tratamendua
Mar Menorreko produktu ekologikoekin
90 €



Mima ezazu zeure burua
Aurpegi hidratazioa + masaje erlaxagarria
90€



Gorputz peelinga: c bitamina
Gorputzeko azalaren esfoliazioa, azala
guztiz hidratatuz eta leunduz
60 €



Ion Bao masajea: 5 sentimenez gozatuz
Masaje erlaxagarria olio esentzialekin
55 €



Gabon jai
zoriontsuak



LIRAIN
ARRASATE | ESTETIKA

Bixente Ferrer, 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 52 17



Historia daraman ura berriro edangarri dago

Arrolak deituta, Frantses iturria egonkortzeko eta bere ura edangarria izateko azken txukuntze-lanak egin zituzten zapatuan, auzolanean. Urtarrilerako, baina, beste iturri bat berreskuratu gura duela aurreratu dio Arrola mendizale taldeak GOIENARI

MAIDER ARREGI ANTZUOLA

Auzolanean, Arrolak antolatuta, Basalde auzoko Frantses iturriaren iraupena bermatu dute. Izan ere, Frantses iturriaren iturburua autobia pasatzen den bidearen azpian zegoen. Eta autobia egitean, aska baten bitartez (ikus argazkia) iturburua kanpora atera zuten. Halaxe egon dela iturria urtetan azaldu du Iñigo Ramirez de Okarizek: "AHTren obrak aprobetxatuz, iturria orain jarri dugun tokira ekartzeko eskatu genien langileei. Baiezkua eman ziguten eta abuzturako eginda geneukan iturri dotorea. Baina ikustera joan ginenean iturriaren iraupena ez zela egonkorra ohartu ginen, eta egindako instalazioei loturak aldatu dizkiegu, basoan sartu eta garbituz. Orain, iturburutik iturrira ura zuzenean inertzia handiz doa. Uraren kalitatea hobea da eta hodiak ez du ez haizerik ezta sedimeturik ere hartzen".

Bere izena eta data daraman plaka ere jarri diote iturriari.

Nondik dator Frantses izena?

Goitik datorren ibaia dela Frantses erreka dio historian aditu Ramirez de Okarizek. "XIX. mendetik hona erabiltzen da izen hori; izan ere, antzina,



Zapatu goizeko auzolana: askatik hodi berriak jartzen. ARROLA

"KONTAKIZUNEK DIOTE FRANTSESEK ITURRIA POZOITU ZUTELA, INORK EZ ZEZAN URIK EDAN"

errege-bidea hortik pasatzen zen. Sasoi hartan, frantses ugari ibiltzen zen bide horretan; Independentzia Gerran, besteak beste. Eta, ingurukoei galdetuta, bitxikeria bat ere kontatzen dute: frantsesek iturri hori po-

zoitu egin zutela, beste inork ez zezan handik urik edan".

Ondareari ere arreta jarritz

Herriko iturriak konpondu eta txukundu guran dihardu Arrolak. Izan ere, erronka eta helburu dute herriko ondareari erreparatzea. Dagoeneko, badute hurrengoa buruan: "Hogei iturri deritzona urtarrilean txukuntzen saiatuko gara. Lizarra eta Irimoi auzoan dago. A8M badator, eta, bertatik igaroko denez, sinbolikoa izango da iturri hori berreskuratzea".

Auzolanaren ostean, mokadutxo

Hainbat aldiz atzeratu dute auzolana, eguraldi txarragatik; baina, azkenean, egin dute; "Auzolanerako egindako deialdiek harrera oso ona izan dute eta eskerrak eman gura dizkiegu antzualarrei".

Makina bat iturri

Hainbat iturri berreskuratu ditu Arrola taldeak. Hurrengo auzolana urtarrilean deituko du.



Arrolako kideak Basalde auzoan. ARROLA



NIRE USTEZ

AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

Erritmoa

Martitzena da. Tren bat hondatu da Donostiarako noranzkoan. Martutenen gaude, ez aurrera eta ez atzera. Hamar minutu igaro gabe daudela ere hasi dira lehen kexuak. Hasi dira lehen presak. Hasi dira lehen aieneak. Hasi dira inongo errurik ez duten bertako langileenganako irainak. Listo, aztoratu da giroa. Akabo.

Ez gero eta ez han. Orain eta hemen. Erritmo bizien garaian bizi gara.

Erritmo bizien, azkarren aroan bizi gara eta haren esklabo gara. Ahaztu dugu zer den pazientzia edukitzea. Ahaztu dugu zer den itxarotea. Ahaztu dugu zein den norbere gorputzaren bizi erritmoa errespetatzea. Orain eta hemen egon nahi dugu.

Jakin nahiko nuke ea nolakoa litzatekeen gorputzen erritmoa onartuko lukeen bizi eredua. Nolakoa litzatekeen hura babesten duen gizarte egitura. Nolakoa litzatekeen gorputza eta bizitza erdigunean jartzen dituen eredua. Jakin nahiko nuke. Baina ez dakit.



AKE

Berriro lapurreta Eztalan

Antzuolako futbol zelaiko tabernara lapurrak sartu dira, eta ez da lehen aldia. "Nazkatuta gaude dagoeneko, horrenbeste lan egin eta gero halako gauzak gertatu behar. Taberna barruan ez da dirurik egoten, jatekoak eta edatekoak besterik ez. Badirudi oraingoan lapurrak gozo-zaleak zirela, goxoki dezente eraman dituzte", adierazi dute klubeko ordezkariak.

OHARRAK

Jabier Camarena tenorearen emanaldia

Kursaal auditorioan emanaldia egingo du Camarena tenoreak urtarrilaren 23an, 20:00etan. Autobusez joateko interesa dutenek izena eman dezakete udaletxeko kultura sailean.

Kultura aztergai

Hilaren 19an, kulturaz hausnartzeko azken saio irekia egingo dute Olaranen, 18:30ean hasita.

Txistor-jana Landatxopen eta eskolan

San Tomas ospatuko dute eskolan hilaren 19an. Herriko erretiratuek, berriz, hilaren 20an, Landatxopen, 18:00etan –izena abenduaren 16an eta 17an 16:00etatik 18:00etara eman daiteke–.

"Bizitzarako eredua da Antzuolako eskolarena"

ANDONI ARGÍÑANO MADRAZO EHU-KO IRAKASLEA

'Hezkuntza berrikuntza: Antzuola herri eskolako bilakaera berrikuntza pedagogikoaren bidean' tesia idatzi berri du Argiñanok. Ereduaren gakoez eta biziraupenaz aritu da

Jone Olabarria ANTZUOLA

Andoni Argiñano Madrazo Euskal Herriko Unibertsitateko Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saileko kide da Hezkuntza Fakultatean, eta irakasleen prestakuntzako masterreko irakasle. Tesia aurkeztu du, Antzuolako eskola ardatz.

Zergatik Antzuolako eskola?

Berrikuntza bat denboran zehar mantentzeko zantzu nagusiak zeintzuk diren topatu nahi genuen. Euskal Autonomia Erki-degoko hainbat eredu gainetik aztertu ostean, Antzuolakoak zituen bereizgarriengatik aukeratu genuen, eta 35 urtez eredua mantendu ahal izan dutelako.

Zein apustu egin zen Antzuolan duela 35 urte?

Apustu asko egin ziren, baina hezkuntza komunitate osoaren artean eredu bat sortu nahi izan zen; betiere, eredu hori bizitzarako adibide bezala baliatuta. Akademikoki soilik ez, pertsona modura formatzea bilatzen zen. Era berean, argi izan zuten balio horiek era praktikoa era-kutsi behar zirela. Hau da, ez du balio era teorikoan soilik erakustek, goazen haurrak praktikatzeko jartzera.

Nola abiarazi zuten proiektua? Nola-koak izan ziren lehen unek?

Ordura arteko bi ikastetxeen arteko elkarketa une oso garrantzitsua izan zen. Horren ostean, modu demokratikoan hasi ziren eraikitzen, asanblada bidez. Proiektuak zer noranzkotan joan behar zuen definitu zuten; betiere, familiak parte izanda. Horrek berebiziko garrantzia izan zuen. Behin hezkuntza komunitate osoarekin nahi zen eredua definituta, irakasleen esku geratu zen hori garatzeko; nola egingo dugu, nola iritsiko gara nahi dugun horretara?

Hortaz, nola definitu Antzuolako eraikitako hezkuntza eredua?

Zaila da, baina bizitzarako eredu bat eratu dutela esango nuke,



Andoni Argiñano, astean zehar, Arrasaten. GOIENA

"ANTZUOLAKO ESKOLAK FAMILIEN BABESA DUEN BITARTEAN, EREDUA MANTENDUKO DA"

horrek bere barnean duen guztiarekin: erabakitzen jakitea, demokrazian bizitzen ikastea, bakarrik bizitzea, taldean la egitea... Bizitzako arlo ezberdinetako ezagutzak puntu komun batean batzen dira eskolan.

Zein da eskolan hazi eta hezitako ikaslearen profila?

Eredu berri batera moldatzeko arazorik ez duen ikasle profila dela bermatu dugu, eta, ikertze prozesuan gabiltzan arren, Antzuolako ikasleen %67k ikaske-ta unibertsitarioak egin eta amaitu dituztela ikusi dugu. Eredu honek ezagutzarekin erlazio positibo bat bizitzera bideratzen ditu ikasleak. Ondorioz, jakin-min handia duten haurrak direla esango nuke.

Zela ikasten du Antzuolako haurrak? Esperimentatzen eta hitz egiten, batez ere. Ikasleek arazo bat planteatzen dute, beti haien in-

teresei jarraiki, eta horri irteera ematen saiatzen dira. Arazo horren barnean dauden oztipoak aurre eginez. Proiektu diziplinartekoen bidez funtzionatzen dute, gai bat landu eta hori eskolako arloetara zabaltzen dute.

Nola lortu da ereduaren biziraupena hainbeste urtean zehar?

Hasieratik bertatik, komunitate osoa zegoen inplikaturik eta edozein zailtasunen haurrean laguntzaile izan ziren. Gaurkora etorrita, orduan ikasle izandakoak guraso dira egun; proiektua gertutik ezagutzen dute, badakite zer ematen duen eta bere defentsan lan handia egiten dute. Eskola herriko ondare kultural bilakatu da Antzuolako kasuan, guztiena den zerbait.

Etorkizunari begira, nola mantendu?

Ereduaren hobekien ezagutzen duten irakasleen erretiroak direla eta geroz eta zailago egiten da eredua mantentzea, baina ikas-tetxeak familien babesa dauka, irakasleak sekulako lana egiten dabilta eta badirudi administrazioak ere proiektuaren alde apustu egiteko asmoa azaldu duela. Aldagai hauek ikusita eredua mantentzea posible dela esango nuke.



Lasterkariak, iaeko lasterketan. GOIENA

Antzuolako 8 Miliak lasterketa otsailaren 16an egingo dute

Izen-ematea urtarilaren 4an irekiko da, 'Kirolprobak' webgunean, 09:00etan. Boluntarioak behar dituzte

J.O. ANTZUOLA

Antzuolako 8 Miliak taldeak jakinarazi du 2020ko otsailaren 16an lasterketaren beste edizio bat izango dela. Izen ematea urtarilaren 4an zabalduko dute, *Kirolprobak.com* webgunearen bidez, 09:00etan hasita.

Herriarren parte-hartzea bultzatzeko asmoz eta aurretik egin bezala, doako hamar izen emate zozketatuko dira antzuolarren artean, izen-emate ofiziala ireki aurretik. Bertan parte hartzeko, mezu bat bidali behar da, izen-abizenekin eta kontakturako telefono zenbaki batekin: *antzuolako8m@gmail.com*. Zozketaren data abenduaren 26a izango da, 15.00etan. Irabazleak telefonoz eta Facebook bidez jakinaraziko dituzte.

Helduen mendi lasterketaz gain, ohi bezala, haurrentzat minimotorren lasterketa ere egingo da. Plastikozko motortxoak

eta kaskoa parte-hartzaileek eraman beharko dute eta gurasoen baimen sinatuak bertan jasoko dira. Sari banaketa 13:00etan egingo dute.

Proba bakoitzaren ostean ha-maiketako egongo da guztientzat: lasterkarientzat, umeentzat eta ikusleentzat.

Boluntario beharra

Era berean, lasterketa aurretik eta egunean bertan, aurrekoetan bezalaxe, hainbat lanetarako boluntarioak beharko dituztela jakinarazi dute. Denetarik lanak izango dira, baina ez konplikatuak: bidea markatu, bidegurutzeak, horniduretan egon, eta abar. Era berean, korrika egiteko asmorik ez dutenak animatu nahi izan dituzte bultzadatzeko ematera. Laguntzeko prest dagoenak mezu bat bidali dezake, izen-abizenekin, *antzuolako8m@gmail.com* helbidera.

Antzuolaren eta Aloñaren arteko derbi solidarioa bihar

Bihar, abenduaren 14a, Antzuolako eta Aloña Mendik derbia jokatuko dute Eztalan, arratsaldeko lauretan hasita. Horren harira, preferente mailan Antzuolan partidua dagoen bakoitzean zozketa egiten dute, eta, oraingoan, Joseba Azkarate oñatiarrari emango diote bertan batutakoa. Izan ere, 2017an, istripu larria izan zuen oñatiarrak,

eta, horren ondorioz, mugikortasun arazoak ditu.

Handbike bat lortu nahiko luke Azkaratek -11.000 euroko kostua du-, egokitutako kirol proba ezberdinetan parte hartu ahal izateko.

Antzuola kirol elkarteak laguntza solidarioan parte hartu nahi izan du eta txartelen salmentatik lortutako dirua Azkarateren *handbike*-a erosteko baliatuko dute. AKEK zozketan parte hartzeri animatu nahi ditu herriarrek.



Mikel Alberdi eta Anton Azpiazu liburuak esku artean dituztela. O.E.

Beste bi liburu gehitu dira Artixaren bildumara

Mikel Alberdik Uribarri auzoaren gaineko liburua idatzi du eta Anton Azpiazuk herriko lau emakumeren errezeta koadernoak jaso ditu liburu bakarrean. Egileak ez ezik, auzotarrak eta errezeten egileetako bi ere egongo dira domekako aurkezpenean

Oihana Elortza OÑATI

Lapiko artian du izena Anton Azpiazuk domekan aurkeztuko duen liburuak eta *Oñatiko Uribarri auzoa* Mikel Alberdirenak. Artixa kultur elkarteak kalera-tu dituen azken bi produktuek dira, dagoeneko salgai daudenak.

Eskuz idatzitako errezetak

Herriko lau emakumek bakoitzak bere koadernoan jasotako errezetak batu, eta tapa bakar batean jaso ditu Anton Azpiazuk: "Eurek euren etxeko jatorduek egiteko erabiltzen zituzten errezeta liburuak dira. Eskuz idatzitakoak. Dauden bezala hartu, eskaneatu eta liburu formatuan aurkeztea baino ez dut egin nik, bakoitzari sarreratxo bana jarrita. Barruan datorrena, edukia, eurena da".

Dolores Egaña, Carmen Echeverria, Agueda Agirre eta Juana Izan dira errezeta horien egileak. Oilaskoa saltsan, piper beteak, almendrazko bizkotxo eta menestrek agertzen dira,

adibidez, errezeten artean. Baina baita meuniere erara egingdako mihi-arraina edo sufleak. "Euskal Herriko sukaldaritzan egon da Frantziakoaren eragina eta hori ere ikusten da errezetetan. Kontua da lehen herriko emakume asko Echeverria jate-txera joaten zirela jakiak prestatzen ikastera ezkondu aurretik. Jatetxeetara erdi edo goi mailako herritarrak joaten ziren sasoi hartan eta izen frantsesak jartzen zizkieten, askotan, plateri, erakargarriagoak izateko edo", dio Azpiazuk. "Dolores Egañaren errezetetan, esaterako, data agertzen da. Ikusten da ia gehienak 1957an idatzita daudela; urtebete geroago ezkondu zen". Hain zuzen ere, Dolores

ARTIXAKOAK PREST DAUDE ERREZETA EDO AUZOETAKO LIBURU GEHIAGO EGITEN LAGUNTZEKO

Egaña bera eta Carmen Echeverria dira bizirik daudenak eta biak egongo dira domekako aurkezpenean.

Uribarriko pertsonaiak

Uribarri auzoari buruzko liburua idatzi duen Mikel Alberdiri pixka bat gehiago kosta zaio liburua idaztea. "Lasai ibili naiz, gustura", dio. Arantzazu garai batean Uribarri barruan sartzen zeneko eta independentzia prozesuko dokumentuak batu ditu, adibidez, Alberdik, eta horrelako bitxikeria bat baino gehiago jaso. "Pertsonaiek ere pisu garrantzitsua dute liburu honetan", gehitu du egileak. Azaroaren 30ean auzoan aurkeztu zuten liburua eta domekan udaletxean egingo dute.

Liburu biak Txokolateixan eta Turismo Bulegoan daude salgai –20 eurotan errezetena eta 10 eurotan Uribarri auzokoa—. Alberdirena Txopekua eta Urtiagain jatetxeetan ere eros daitezke dagoeneko.

Lan hitzarmenaren aldeko lanuzteei eutsiko diete Natran

Enpresak adierazi du gai hori lantzeko negoziazio mahaia dagoela eta han adostuko dituztela puntuak

O.E. OÑATI

Azaroaren 29an, ELA sindikatuak deitutako batzar orokorra egin zen Natran, eta, sindikatuaren esanetan, enpresa batzordeak hilabeteak daramatza enpresa hitzarmena negoziatzen, plata-forma sindikalari erantzunik eman ez badio ere. Hala, astelehenean ekin zioten Natrako langileek lan hitzarmenaren aldeko mobilizazioei eta abenduaren 19ra luzatzea da asmoa. Errelebo bakoitzean bi orduko mobilizazioak egingo dituzte.

Sei dira langileek enpresari eskatzen dizkioten baldintzak: errelebo kontratua gauzatzea, laugarren erreleboko plusa hobetzea, antzinatasunaren araberrako kategorien igoera, behin-behineko langileen egoera hobetzea, ultraaktibitate mugagabea eta KPIaren gaineko soldata igoera.



Martitzenean egindako protesta. M.R.

Gaiari lotuta Natratik erantzun dute negoziazio mahaia bat dagoela eta hor ari direla lantzen lan hitzarmenaren gaia eta horren inguruko puntuak. Besterik ez dutela esaterik adierazi dute, erabakiak adosteko tokia negoziazio mahaia dela.

Argazkia aterako dute, bihar, noka dakiten emakumeek

Bihar, zapatua, da *Ingo xonau!* egitasmoaren aurkezpenean. Ekitaldia hasi aurretik, 11:00etan, argazkia aterako dute, Lazarraga lorategian, noka dakiten herriko emakumeek. "Denak daude gonbidatuta, ahalik eta emakume gehien elkartzeara gura dugu", dio egitasmoaren gidari izan den Idoia Etcheberria oñatiarrak. Proiektuaren aurkez-

pena Santa Ana aretoan izango da, 11:30ean. Egitasmoaren nondik norakoak azalduko dituzte, lehendabizi, eta bideo bat proiektatuko dute, gero.

Ingo xonau! herri ekimenetik ateratako proiektua da, emakumezkoen hitanoa berreskuratzeke. Noka berba egiten duten herriko 54 herritar elkarrizketatu dituzte diagnosi lana egiteko. Bideo pasarte horiek, 400 baino gehiago, www.ahotsak.eus webgunean daude ikusgai edonoren eskura.

Elkartasun azoka zapatuan eta herriko artisauena domekan

Aurten ere egingo dira Gabon bezperako bi azoka herrikoiak. Zapatuan, Elkar Hezik antolatutako Elkartasun Taupada azoka egingo dute. 20 bat gobernu kanpoko erakunde egongo dira, ikastetxeko postuek gain. Domekan, berriz, herriko artisauen azoka egongo da. Azoka biak goizez izango dira, Foruen plazan.

Zubikoako gune hezea itxita egongo da astelehenean

Kiroldegiko berotze sistema aldatu egingo dute eta astelehenean egingo dute proba. Horregatik, astelehenean itxita egongo dira gune hezeko zerbitzuak: igerilekuak, sauna, aldagelak eta komunak. Gune lehorreko zerbitzuak, berriz, 14:30etik aurrera erabili ahal izango dira, baina dutxetan ez da ur berorik egingo egun osoan.

Oñatiko Eskola Kirola ez da kirola bakarrik

Ohitura eta elikadura osasuntsuaren zeharkako mezua ere badu Eskola Kirolak Oñatin, herriko gaztetxoengana iritsi gura duena. Ikastetxeak, gurasoak, Udala, Aldundia, herriko kirol taldeak eta enpresak daude ekimena babesten

Oihana Elortza OÑATI

Ohitura eta elikadura osasuntsuen aldeko mezua, talde-lana, errespetua, kirola, esfortzua eta halako balioak eta ezaugarriak lantzen dituzte Eskola Kirolean, eta herri proiektu bat dela ere esan daiteke, umeak ez ezik, ikastetxeak, gurasoak, herriko enpresa eta kirol taldeak, Udala eta Aldundia daudelako bat eginda proiektu honetan.

Ekintza ezberdinak

Udalak emandako datuen arabera, 519 ikasle hasi dira aurtengo ikasturtean Eskola Kirolean eta 110.007,01 euroko aurrekontu du: Udalak %46,10, Aldundiak %10,9, izen-emateak %28,60, entitate pribatuak %14,13 eta federazioak %0,61.

Umeekin egiten dituzten saio eta jardunaldiez gain, urte osoko egitaraua prestatzen dute herriko beste eragile batzuekin batera. Aurreko astean, esaterako, Markel Irizarrek eta Amaia



Eskola Kiroleko saio bat Zubikoan abenduaren 3an. O.E.

Diaz de Monasteriogurenek solasaldia izan zuten herriko ikasle gazteekin, kirola egiteak eta sasoian sasoiko produktuak jateak duen garrantziaz berba egiteko. Aste honetan bertan, berriz, Imanol Ibarrondo *coach-*

aren hitzaldia antolatu dute Poz egitasmoarekin batera. "Herriar osasuntsuak gura ditugu. Eskola Kirola ere hor ulertzen dugu. Saiatuko gara ekintza gehiago ere egiten", dio Rosa Lasagabasterrek.

"Umearen heziketaosatzen saiatzen gara Eskola Kirolean"

JOKIN ATXAGA ESKOLA KIROLEKO KOORDINATZAILEA

500 ume baino gehiago ari dira Eskola Kirola egiten Oñatin.


Zer moduz hasi da Eskola Kirolaren ikasturtea?

Urtero izaten da erronka, proiektu berriekin hasten garelako beti, baina aurtengoa ere ondo hasi da.

Zenbat ume dabilta eta zein kirol egiten dituzte?

HH-5etik hasi eta LH-6ra bitarteko 500 ume baino gehiago ari dira aurtun Eskola Kirolean, zazpi hezitzaileekin. Asko dira, eta

Zubikoan eta Urgainen izaten dira aste barruko saioak. Gure asmoa da kirolak duen lehiakortasun hori murriztea eta umeak multikirolera eraman eta lehiaketa baztertea. Urtean zehar 22 jardunaldi ditugu asteburuetan eta 20 kirol probatzen dituzte umeak. Batzuk, taldekoak, badira



O.E.

lehiakortasun puntua dutenak: futbola, eskubaloia edo saskibaloia, esaterako. Baina badira borroka kirola edo badminton modukoak, esaterako, topaketetan egiten dituztenak. Umeak aukera izaten du kirol bat baino gehiago probatzeko, eta hori da gura duguna.

Zer lantzen duzue Eskola Kirolean?

Saiatzen gara kirola egitearekin batera hainbat balio transmititzen; esaterako, talde lana, elkarrekiko errespetua izatea, arauak betetzea, ikastetxe ezberdinetako umeak nahasten ditugu elkar ezagutu dezaten, euskararen erabilera...

Nola definitzen duzu zuk Eskola Kirola?

Herriko proiektu bat da. Udala, herriko enpresak, gurasoak, ikastetxeak, herriko kirol elkarte ezberdinak... daude sartuta.

Zer erronka ditu?

Urte hasierako helburuak betetzea da erronka nagusia. Hau da, kirolaren eta jardueren fisikoaren bitartez umearen heziketaosatzea, balio batzuk transmititzea, euskararen erabilera bultzatzea eta bizimodu osasungarrira bideratzea.

Arregi, Velte eta Vertiz datoz gaur eta bihar gaztetxera

Domekan egingo duten mendi irteerarekin bukatuko dute Antixena gaztetxean martitzenean Hodei Etxartekin hasitako jardunaldi soziopolitikoak Domekara bitartean, baina, hitzaldiak zein kontzertuak egingo dituzte. Gaur, egubakoitza, esaterako, Maider Arregik azken urteetako militantziari buruz hitz egingo du, 18:00etan. 20:15ean, *Kartzelako bizipenak* izeneko tertulia egongo da eta 22:00etan, kontzertua. Zapatuan, Latinoamerikako proiektu politikoez jardungo du Fran Vertiz-ek, 16:00etan, eta 18:00etan, Samara Velte kazetaria etorriko da bere liburuarekin eta sanferminetako kasuaz berba egitera.

Hilaren 20ra arte dago aukera 'Gara'-ri laguntza emateko

Gara-ri jarritako isuna ordaintzeko harpidetzak egin edo dirua batzen ari dira Oñatin ere, eta laguntza emateko epea abenduaren 20ra arte luzatu du horretan ari den herriko taldeak. Gainera, abenduaren 20a baino lehen eginez gero, artelaren hurrengo zozketan sartuko dira. *Gara* egunkariari egotzitako zorrari aurre egiteko, zortzi artistak propio egindako serigrafia originalak zozketatzen dituzte harpidedunen eta laguntza eman dutenen artean, ArteaGara izenpean. Ekimenaz arduratzen ari den Oñatiko taldeak, bide batez, eskerrak eman dizkie herritarrei, "ekimenak arrakasta handia" izan duela azpimarratuta.

Oñatiren etorkizunaz mintzatuko dira herriko bost alkate

Anjel Iturbe, Andoni Gartzia, Lourdes Idoiaga, Mikel Biain eta Izaro Elorza dira Oñatiko azken bost alkateak eta herriak dituen erronkez hitz egiteko elkartuko dira datorren astean. Abenduaren 17an izango da solasaldia, 19:00etan, herriko zinema aretoan. 300 zenbaki kaleratu ditu *Kontzejupetik* udal aldizkariak, eta, horren bueltan, ekitaldi bat baino gehiago antolatu dituzte eta horietako bat da martitzenean egongo den alkateen solasaldi hori. Liburutegian aldizkariaren aleen erakusketa egongo da urtea bukatu bitartean, eta 21ean, ate irekiak egingo dituzte Olakuako dorrean, erredakzioa ikusteko.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Ametsa

Gure zerebroa, gau eta egun, etengabe, lanean ari da, eta, ondorioz, ametsak ere gauzez eta egunez izaten ditugu. Gauzez lotan ditugun gehienak fantasia handikoak izaten dira, errealitateaz ezer gutxi dutenak. Egunezkoak, berriz, iratzarrit ditugunak, baliagarriak izaten dira, sarritan. Gizon eta emakume ameslariak izan dira monumentu arkitektoniko zoragarri, margolan ikusgarri, musika zoragarri eta idazlan miresgarrienak egin dituztenak. Gizaki ameslarien lanei, naturak oparitzen dizkigunak gehitu behar zaizkie. Eta Oñati dago horien artean. Bere edertasuna herria bisitatzen dutenek behin eta berriz adierazten dute. Baina beti gelditzen da hobetzeko posibilitatea, eta batek baino gehiagok amestu du herri barruan dagoen enpresa bat kanporatuz gero zenbat irabaz zezaketen herriko alde horrek eta bere inguruak, nahiz eta, kasu honetan, zailtasunak ere ez izan nolanahikoak. Amestea libre da, eta, sarritan, ametsak ere egia bihurtzen dira. Gaur ezina dirudiena bihar posible izan daiteke. Esaldiak hala dio: *Ezina ekinez egina*.



XUP! taldeko kideak. ASIER IGARTUA

Gazteen kezkak eta buruhaustea, oholtzara

XUP! antzerki talde gazteak 'Kontraizanak' izeneko antzezlan eskainiko du abenduaren 20an, Santa Ana antzokian, 22:30ean hasita. Sarrerak Txokolateixan daude salgai, lau eurotan, eta egunean bertan, antzokiko leihatilan, bost eurotan

Maialen Regueiro OÑATI

XUP! antzerki taldea osatu dute 15 eta 18 urte bitarteko zortzi oñatiarrek –aurrez Irazan Antzerki Guneako kideak– eta arrasatear batek. Hilabetetako lanaren ostean, abenduaren 20an taularatuko dute *Kontraizanak* izeneko antzezlan, Santa Ana antzokian, 22:30ean hasita. 12 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta gaur egungo gizartearen gazteek dituzten kezkak eta buruhaustea jorratuko dituzte.

Gazteen kezkak

Horixe da antzezanaren bitartez XUP! taldeko gazteak adierazten saiatuko direna. "Antzerki talde batek ikasturte berriari hasiera ematen dio eta egun batean, gela batean giltzapetuta geratzen dira. Gela horretan, hainbat gertaera gertatzen dira, non helburua gazteek ditugun kezkak eta buruhaustea azaltzea den", azaldu du Malen Perez de Arenaza XUP! taldeko kideak. Gauzak horrela, guraso gabeko

gazteek bizi duten errealitatea, emakumeen sexualitatea eta parrandak izango dira antzezanaren jorratuko dituzten gaietako batzuk.

Proiektu hau aurrera eramateko, XUP! taldeko kideek informazio bilketa egin behar izan dute, eta, horrekin batera, antzezanaren kontakizunean norberaren bizipenak gehitu dituzte.

Antzezlan eta proiektua

Perez de Arenazak, gainera, antzezanari eta proiektuari buruzko xehetasunak eman ditu: "Antzezanaren gidoia eta pertsonaiak taldeko kideen artean osatu ditugu. Proiektua aurrera eramateko, berriz, hasieratik

12 URTETIK GORAKOEI ZUZENDUTAKO ANTZEZLANA DA ETA GAZTEEN KEZKAK JORRATUKO DITUZTE

taldetan banatuta egin dugu lan eta talde bakoitzak ardura batzuk izan ditu: komunikazioa, dekorazioa edo jantziak, besteak beste".

Etorkizunera begira

Oraindik antzezlan taularatu ez badute ere, XUP! taldeko kideek, momentuz, feedback positiboa jaso dute herritarren aldetik. "Jendea gogotsu dago gure antzezlan ikusteko eta horrek asko poztzen gaitu", adierazi du Perez de Arenazak. Horrekin batera aipatu du antzezanaren herritarrei erakutsi ostean talde gisa balorazio bat egingo dutela eta erabakiak hartuko dituztela, etorkizunera begira.

Sarreraren salmenta

Kontraizanak antzezlan ikusteko sarrerak salgai daude dagoeneko Txokolateixan, lau eurotan. Horrez gain, egunean bertan Santa Ana antzokiko leihatilan eskuragarri egongo dira, bost eurotan.

'La magia de Houdini' ikuskizuna Sun Magoaren eskutik

Gabonetako egitarauaren baitan, gaur, magia ikuskizuna izango da, Santa Ana antzokian, 20:00etan. Izan ere, Sun Magoak *La magia de Houdini* ikuskizuna eskainiko du.

Sarrerak Txokolateixan, txarteldegia digitalean eta www.oñati.eus atarian eros daitezke, zortzi eurotan; eta 16 urtetik beherakoek, bost eurotan.



Sun Magoa. I.S.

Gabonetako kontzertu berezia izango da domekan parrokan

Gabonen atarian, Oñatiko pastoral barrutiko misio taldeak antolatuta, Gabonetako doako kontzertu berezia izango da domekan San Migel parrokan. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta herrian musikarekiko lotura duten hainbat eragilek hartuko dute parte: musika bandak, Oñati Abesbatzak, parrokiako koruak, Ganbara Abesbatzak,

Ganbara Txiki abesbatzak, Hots Abesbatzak eta Txantxiku Ikastolako abesbatzak.

Musika banda, Oñati Abesbatza eta Ganbara Abesbatza ari tuko dira emanaldiaren hasieran. Bukaeran, berriz, talde guztiek elkarrekin abestuko dituzte hainbat kanta; *Gabon Abestiak Arantzazun*, esate baterako.

Kontzertua doakoa bada ere, borondatea emateko aukera egongo da eta jasotako diru hori Oñatiko Caritas elkarteari bideratuko diote.

Aberreh taldearen kontzertua domekan Antixena gaztetxean

Domeka honetan, *matinee* kontzertua izango da Antixena gaztetxean, Aberreh taldearen eskutik. Domekakoa, gainera, taldearen urteko azken emanaldia izango da. 12:30ean hasiko da. Gauzak horrela, zarata eta burrunbati aldenduta baina distortsioa guztiz baztertu gabe rock edo grunge akustikoa entzuteko aukera egongo da.

Musika protagonista Ikatx tabernaren gaurko irekieran

Ikatx tabernak ateak zabalduko ditu gaur, 21:00etan, Kale Zaharreko 34. zenbakian. Inaugurazio ekitaldian, hainbat ekinztatan parte hartzeko aukera egongo da, eta, horien ostean, musikak hartuko du protagonismoa; izan ere, Azken Sus-traiak eta Discipulos de Dionisos talde ezagunek kontzertua eskainiko dute.

Ondo pasau Gabonak!!

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44 • OÑATI



Labegaraietako aldagela berrien eraikina altxatzeko lanak, atzo goizean; barruko lanak 2020ko udan gauzatuko dira. OIHANA ELORZA



Zubietta berriro urbanizatzeko lehen fasea 2020rako dago aurreikusita. JOKIN BEREZIARTUA

Labegaraietako kiroldegia eta Zubietta berritzea dira 2020rako proiektu izarrak

Udal Gobernuak aurreikusten du lau milioi euro pasatxo bideratzea hurrengo urteko inbertsioetara, gerakineko kopurua aintzat hartu gabe; 2020ko obra esanguratsuenak izango dira kiroldegia (1.647.860 euro) eta Zubietta kalea (1.100.000 euro) berritzea

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Gobernuaren 2020ko aurrekontu proposamenak igoera bat dakar iazkoarekin alderatuta. 25.251.152 eurokoa da proposamena, eta, onartuko balitz, 2019koa baino %5,17 handiagoa izango litzateke. Bi arrazoi nagusi daude igoera ulertzeko: Diputazioaren foru fondotik diru gehiago jasoko dela eta Labegaraietako kiroldegia berritzeko Aldundiak 600.000 euroko laguntza emango duela. Inbertsioetara 4.082.198 euro bideratuko dira; betiere, gerakineko diru kopurua aintzat hartu barik.

Udal Gobernuak "bi abiaduratan" gauzatzeko aurrekontua proposatzen du: batetik, epe ertain-luzera bergararren bizi kalitatea hobetuko duen neurriak jasotzen dituen aurrekontua; eta, bestetik, eguneroko beharrei erantzutzea diena.

Zubietta eta kiroldegia berritzea

Bi dira nabarmendu beharreko proiektuak. Batetik, herriko gune degradatuenetako bat den Zubietta kalea berriro urbanizatzeko lehen fasea hurrengo urtean hasi beharko litzateke forma hartzen.

"Badago proiektu bat idatzita Zubietta-Masterreka ardatzaren berritzerako hiru fase aurreikusten dituen; lehen fasea aurrera eramateko saiakera egingo dugu, hori da gure asmoa. 2020a izan beharko litzateke urtea

proiektuari auzotarrekin batera azken definizio maila eman eta lizitazioa ateratzeko", esan zuen Gorka Artola alkateak. 2020ko aurrekontutik 200.000 euro bideratuko lirateke eta gerakinetik hartuko litzateke gainerakoa; lehen fasean, kale erdia berriro urbanizatzeko litzateke, 1.100.000 euroko aurrekontuarekin.

2020an gauzatuko den beste obra bat izango da Labegaraietako kiroldegia berritzearena. Maiatzan edo ekainean hasiko dira obrak eta udan zehar gauzatuko dira; lehen fase batean, aldagela berriak eta joango diren eraikin berria altxatzen ari dira orain eta bigarren fasean, barrutik berrituko dute erabat. Aurrekontua 1.647.860 euro da, eta, horretarako, aurreko agintaldian Diputazioak emandako 600.000 euroko dirulaguntza baliatuko du Udalak.

Beste obra eta egitasmo batzuk

Beste proiektu aipagarri batzuen berri ere eman zuten eguaztenezko agerraldian: Ibargarai eta Urteaga artean Udalaren esku-menekoa den bidegorri zatiaren azken-aurreko fasea gauzatzea, (250.000 euro); oraindik lekua zehazteke duen jolasgune estali bat egitea (100.000 euro); San Joxepen edo Boluan ortu publikoak egokitzea (160.000 euro); Udal Pilotalekuko aldagelak berritzea (150.000 euro)...

Bestalde, hainbat plan eta egitasmo ditu esku artean Udal Gobernuak: merkataritza sustatzeko PERCO programa; amaituta ikusteko 2020ko martxora arte itxaron beharko duen Mugikortasun Plana; eguazten iluntzean jendaurrean aurkeztu zuten ikerketa sozioekonomikoa; turismo plana; gazteen emantzipazioa sustatzeko alokairuetarako dirulaguntzak; herriko sortzaileen proiektuak sustatzeko kultura sormen beka -beka berri horretarako 5.000 euro bideratuko dira-...

Berdintasun Saila indartzera

Etorkizunari begira Udal Gobernuak bereziki indartu nahi duen saila da Berdintasunarena. "Orain, jardun erdiz dagoen teknikari bat dugu azpikontratata eta gure asmoa da 2020an lanpostu hau lizitatzeko eta udal langile bat izatea jardun osoz berdintasun gaietarako lanean arituko dena", esan zuen Berdintasun zinegotzi Ainhoa Letek.

Urtarrilean onartzeko asmoa dute

Udal Gobernuak joan den astean aurkeztu zion proposamena oposizioari. EAJren eta PSE-EEren ekarpenak jaso eta negoziatu ostean, EH Bilduren asmoa da urtarrilerako ezohiko bilkura bat deitzea 2020ko udal aurrekontua onartzeko. 2019koa 2018ko abenduaren 17an onartu zen: EAJren eta PSE-EEren proposamenaren aurka bozkatu zuten EH Bilduk eta Irabazik.



Arantzabal, Markina, Artola, Lete eta Aranberri, eguaztenezko agerraldian. J.B.

Boluko mendi-hegala, "geldi eta kontrolpean"

Azaroan euri asko egin duen arren, Boluko mendi-hegala egonkortzeko lanek helburua lortu dute eta ez dago alerta egoerarik; azaroaren 8an eta 12an egindako ezohiko azterketa sakonago batek erakutsi du malda "geldi eta kontrolpean" dagoela

Jokin Bereziartua BERGARA

2017ko urtarrilaren 16an Bolua auzoko mendi-hegala behera etorri eta hainbat buruhauste eragin zizkien bizilagunei, Udaleri eta mendi-hegala egonkortzeko lanetan aritu ziren langileei. Ia hiru urte pasatu dira ezbeharretik, eta, orduetik, jarraipen zorrotza egiten zaio mendiari.

Hala, azaroan bota duen euriur bolumena oso handia izan denez eta edozein arrisku egoerari aurreratzeko, Boluko lur-jausia izan zen eremuko malda-ri hilabetero egiten zaion ohiko azterketaz gain, azaroaren 8an eta 12an ezohiko azterketa sakonagoa egin zuten Udalak eta Inge enpresak: "Azterketaren arabera, ez dago inongo alerta egoerarik. Malda geldi dago eta kontrolpean".

Sareak ondo eusten dio

2019ko otsailaren 2an iragarri zuen aurreko Udal Gobernuak mendi-hegala behin betiko egon-

kortzeko lanak zeintzuk izango ziren: lehen fase batean, mugitutako hegala parean dagoen pasabidearen plataforman segurtasunerako pantaila metaliko bat ezarri zuten; eta bigarren fasean mugitutako hegala egonkortzeko mikro-piloteak sartu ziren dira eta ura bideratzeko kanal bat sortu zuten, besteak beste.

Azken hilabeteetan ez da lur-jausi aipagarriarik gertatu. Lurra eta lokatza "tarteka" jausten dira, baina sareak ondo eusten die: "Are gehiago, adituen arabera sarea %30era betez gero husten hasi beharko litzateke, baina gaur egun sarea %10 bakarrik dago beteta". Gainera, Udaleko brigadako langileek garbitu dituzte bidegorriko areka eta hainbat gune, eta Udala aztertzen ari da bidegorri gaineko puntu batzuetan sare berriak jartzea. Hortaz, bidegorriak zabalik jarraituko du; betiere, prebentzioari eta segurtasunari lehentasuna emanda.



Mendi-hegalaren azpiko bidegorria itxita, eguen goizean. MAIALEN REGUEIRO



B.U.

Jasangarriagoa den auto berria

Udaltzaingoak asteon estreinatu du Toyota Corolla markakoa den auto berria. Oso gutxi kontsumitzen du eta kutsadura asko murrizten du. Gaur egungo ingurumenaren inguruko legediari egokituta erositako ibilgailua da. Udalerrian ibiltzeko auto aproposa da, eta, bide batez jasangarriagoa, adierazi du Udalak. Irudian, udaltzain bi auto berriaren ondoan.



LANGILE ETA LANGABEENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

LEHENTASUNA: LANGILEEK IZANGO DUTE			
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
IKASTARON IZENAK		ORDUAK	DATAK
UF0878	TXORRIL-HARROKETA BIDEZKO MEK. ERAGIKETATAN MIKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. KONBENTZIONALA	80	2019/12/11-2019/02/11
FMEH00750H	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. M-COSMOS	30	2019/12/16-2019/01/15
UF0453	FABRIKAZIO MEKANIKOKO PROD. IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID EDGE MODELATU ETA PLANOAK	40	2019/12/16-2019/01/21
FMEH00710H	SOLID EDGE II. MULTZOAK	30	ZEHATZU GABE
UF0879	PIEZAK TXORRIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK EGITEA	80	ZEHATZU GABE
FMEM00120H	CAM POWERMILL	40	ZEHATZU GABE
FMEM00320H	3D INPRIMAKETA BIDEZKO EKIDUPENERAKO DISEINUA	15	2019/12/12-2019/12/19
FMEM00550H	HIDRAULIKA	50	ZEHATZU GABE
FMEM00400H	NEUMATIKA	40	ZEHATZU GABE
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
FMEM00690	ROBOTIKA OINARRIAK	50	2019/12/09-2019/01/21
ELEE0109	BEHE-TENTSIKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTETZEA	80	2019/12/16-2019/02/13
ENAE00050H	EGUZKO-ENERGIA: INSTALAZIO FOTOBOLTAIKOEN OINARRIAK	40	2020/04/27-2020/05/19
ELEE01890	AUTOMATA PROGRAMAGARRIAK	30	ZEHATZU GABE
ELE100050H	S7 PROFIBUS	20	ZEHATZU GABE
ELE100040H	S7 ETHERNET ETA PROFINET	30	ZEHATZU GABE
ELEG00010H	ARDUINO	45	ZEHATZU GABE
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
UF0320	TESTU-TRATAMENDURAKO APLIKAZIO INFORMATIKOAK. WORD	30	ZEHATZU GABE
UF0321	KALKULU-ORRIEN APLIKAZIO INFORMATIKOAK. EXCEL	50	2019/12/16-2020/01/14
GAITASUN ZIURTAGIRIAK - LANGABETUENTZAKO SOILIK (LAN PRAKTIKAK ENPRESETAN EGINGO DITUZTE)			
FMEED108	FABRIKAZIO MEKANIKOKO ERAGIKETA OSAGARRIAK	400	2020ko MARTXOAN



EUSKO JAURLARITZA
Lehendakaria: Iñaki Azkara



GOSIERNO VASCO
Lehendakaria: Iñaki Azkara



Lanbide
Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo



Fp
EUSKAL LANGABE ERREKETA



Unión Europea
Fondo Social Europeo
"El FSE invierte en tu futuro"

Agirrebidea, 2 - 20570 Bergara (Gipuzkoa)

Tel.: 943 89 92 72 - 943 89 92 73 - ikastaroak@maltuna.eus

"Hankek ezin zutenean, buruak egin zuen korrika"

IKER BADIOLA 'BEHIN ZEGAMA-AIZKORRIN PARTE HARTU NUEN' LIBURUAREN EGILEA
Mendi maratoian bizitako "infernua" kontatzen du liburuan; gaur aurkeztuko du, Irizarren (19:00), Anartz Agirre kirol kazetaria eta Oihana Azkorbebeitia lasterkaria ondoan dituela

Jokin Bereziartua BERGARA

Hainbat arrazoiengatik idatzi du *Behin Zegama-Aizkorrin parte hartu nuen* liburua Iker Badiolak (Ondarroa, 1978). 2019ko mendi maratoian azken aurrena sailkatu zen, zortzi orduko kontrol-langatik oso gertu: 7:58:21.

Aspalditik zara mendi lasterkaria?
Mendiko lasterketek bizi izan duten loraldiaren biktima bat gehiago naiz. Bizikletan ibilitakoa eta asfaltoan korrika egindakoa naiz, eta esaten nuen ez nintzela sekula mendian korrika hasiko; lau zapabost urte daroztat nire hitzak irensten.

Zergatik idatzi duzu liburua?

Asko bete ninduen esperientzia eta abentura bat izan zen Zegama-Aizkorri. Karreraren bila-kaerak liburu bat idazteko ematen zuen, eta bizitakoa kontatzeko eta eskerrak emateko behar moral bat ere sentitzen nuen.

Lasterketa infernua izan zen, ala?

Bai. Oso-oso gogorra egin zitzaidan, ez nuen eguna izan. Bero larregi egin zuen, baita 1.500 metrora zeuden gailurretan ere.

Ondo prestatu zenuen lasterketa?

Esango nuke ondo prestatuta eramane nuela. Aurretik proba batzuk egin nituen ibilbide beretik, eta denbora aldetik ondo joan ziren. Baina lasterketako eguna aspaldian izandako egunik txarrena izan zen niretzat eta horri beroa gehitu behar zaio. Hasiera-hasieratik konturatu nintzen infernua biziko nuela.

Lagatzeara ez zen aukera bat?

Oso burugogorra naiz, eta hankek ezin zutenean buruak egin zuen korrika. Urbiatik pasatu nintzenean familia zegoen bertan eta ordurako ukituta nindoan. Elkarri galdetzen zioten ea helduko nintzen, eta orduan aitak esan zuen baietz, beste gauza batzuk ere lortzeko oso burugogorra izan naizela eta lortuko nuela; asmatu zuen. Hasierakoak izan ezik ia kontrol-gune guztietan heldu nintzen kanpoan geratze-



Iker Badiola, Zegamako helmugan, Kilian Jornet irabazlearen ondoan. PACO SANTXEZ

tik oso gertu; guztiek diote Sancti Spirituko kontrola pasatuz gero dena "eginda" dagoela; bada, ni ez nago batere ados; kar, kar. **Helmugan Kilian Jornet zenuen zain, mendian parekorik ez duen estralurtarra. Nola gogoratzen duzu?**

Azken kilometroetan, amaitzea zen nire obsesioa; herrian sartu nintzenean, azken 300 metroetan, ohartu nintzen lortuko nuela. Baina ez nintzen gogoratzen festa bat izango nuenik zain; Kilian xanpain botila batekin ikustea eta gero eman zidan besarkada... ez dut ahaztuko.

Aurkezpenean Anartz Agirre eta Oihana Azkorbebeitia izango dituzu ondoan, luxuzko gonbidatuak.

Benetan baietz. Inguruan ez dago euskaraz mendi lasterketen inguruan galdetzeko kazetari egokiagorik, eta zer esan Oiharenaren inguruan... Luxua da.

Non erosi ahalko da liburua?

Tximeleta dendan. Liburua, egilea moduan, justu-justu helduko da aurkezpenerako; kar, kar. Gazteleraz irtengo da lehenengo eta euskaraz gero; 236 orrialde ditu -tarteetan, 22 argazki- eta 15 eurotan erosi ahalko da.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Klima aldaketarekin lotutakoak

Madriren milaka lagun irten ziren kalera, buruzagi politikoei hainbat gauza eskatzeko: igorpenak geldiaraztea, berotze globalaren kontra egitea... Igorpen horien ondorioz, planeta berotzen ari da, eta, ez bada azkar eta garaiz ezer egiten, ondorioak konponezinak izan daitezke. Hor dugu automobilen sektoreak kutsatzen duena. Pentsak eta politikariek mezu nahasiak botatzen dituzte, eta automobil elektrikoa erabili behar dela diote. Baina hau ez da bete; izan ere, biztanleak eta erabiltzaileak ez dira mezu horietaz fidatzen. Ez daude berotegi efektua jaistearren kontra, baina hainbat galdera dituzte: atmosferara igortzen den CO2 guztitik, ze portzentaje sortzen du automobilen sektoreak? Zein dira kaltegarriagoak: dieselaren igorpenak ala gasolinarenak? Auto elektrikoetarako nola sortu energia elektrikoa, erregai garbietatik ala fosiletatik?

Heldu zaidan informazio batek dio azken belaunaldiko dieselak gas garbiagoak igor ditzaketela atmosferara auto elektrikoek baino. Hortaz, zein da ondorioa? Kontsumitzaileak informazio gehiago eta hobea behar du erabakiak hartzeko.

OHARRAK

Beart-eko partaideek egindako artelanen azoka

Bezoka izeneko azoka bihar izango da, Oxirondon (10:00-14:00). Askotariko artelanak egongo dira salgai, 1 eta 40 euro arteko prezioarekin. "Zero kilometroko artea oparitu!", diote.

Ariznoa gimnasia taldearen Gabonetako saioa

Gaur, abenduak 13, Ariznoa gimnasia erritmiko taldeko neskek Gabonetako erakustaldia egingo dute Labegaraletan (18:30).

Jostailu truke merkatua kartzela zaharrean

Jau! Haur eta Guraso Asanbladak antolatuta, jostailuen truke merkatua egingo da domekan gaztetxean (18:00).

Taldeakako bertsolari txapelketako finalaurrekoa

Kopla Barik bertso eskolaren eskutik, bigarren finalaurrekoa jokatu da gaur, abenduak 13, Pol-Pol tabernan (22:30). Final handia abenduaren 27an jokatu da, kartzela zaharrean.

Domeka Azoka berezia Seminarioko patioan

Gabon aurreko azoka hau izaten da jendetsuena, eta "denetarik" izango dute salgai. Jardun, Osintxuko Ponportola guraso taldea, Ndank Ndank elkarte eta Katxalin ere batu dira etziko azokara.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak - Koltxoiak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak - Eskailerrak -
 Leihok - Tarimak -
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 aroztegia@ugarte-aroztegia.com

121
 K
 KALITATEA
 Enpresa Registrada Nº 90/025

Sugoi

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8,
 943 76 59 54 BERGARA

disdira

**ile-apaindegia
edertze gela**

Masterreka 7
 BERGARA
 Tel.: 943 76 00 55

'Ertzak bidean' bihar iritsiko da Angiozarrera

Gaueko hamarretan hasita, 'Ertzak bidean' ikuskizuna izango da Angiozarko elizan. Bergarako Ertzak folk taldearekin batera Eneritz Aulestia eta Julen Alonso arituko dira oholtza gainean, musika, dantza eta pintura fusionatzen dituen emanaldian

Jone Olabarria BERGARA

Musikaz, dantzaz eta pinturaz osatutako ikuskizuna eskainiko du Ertzak taldeak bihar Angiozarren. Urteko azken emanaldia eskainiko du Bergarako folk musika taldeak. Bi mundu ezberdinetatik, trikitiaren eta biolinaren arteko fusiotik, sortzen du emanaldietako musika, eta bi munduen arteko inflexio-puntua da taldearentzat Ertza, erdiguneratzea bilatzen duena, bide berriak probatuz eta beti sormena bidelagun izanda. Urteko azken emanaldia izanik, bailarako hainbat herritatik pasa da dagoeneko *Ertzak bidean* ikuskizuna.



Ertzak taldea, Aramaioko jaietan emanaldia egiten. GOIENA

Galizian sortutako ideia forma emanda, Aritz Alustizak, Amaia Aranzabalek eta Oihane Vicentek 2017an sortutako Ertzak taldeak musikarien, dantzarien eta pinturaren fusioa izango dira Angiozarren ikusgai egongo den *Ertzak bidean* ikuskizunean. Eneritz Aulestia zarautarra eta Julen Alonso oriotarra ere Angiozarren izango dira bihar.

Lan ugari

Hain zuzen ere, diziplina askotariko artista ugari batu eta ikusgai izango den lanaz gainera, iaz atera zuen taldeak bere lehenengo diskoa: sei piezako *Gaur* izeneko lana. Ertz ezberdinetatik datozen musikariak izanda, lan osagarria izan zen, eta, hain zuzen, hortik dator taldearen izena.

Sei abesti jaso zituzten *Gaur* diskoan. Era guztietako abestiak daude: lasaiak, folk ukituak duena, runba bat, trikitia, arinarina... Orduan azaldu zutenez, diskoari *Gaur* izena jarri zioten egunean egunekoa bizi nahi dutelako, etorkizunari begira egon barik.

Organik Dantza taldearen 'Sareak' bihar Seminarixoa

Arratsaldeko zazpitan hasita, Organik Dantza taldearen *Sareak* dantza emanaldia Seminarixora iritsiko da bihar. Sareak egin eta konpontzeko lanbidea duen pertsonaren istorioa kontatzen du ikuskizunak. Organik Dantzak esamoldea berreskuratu du eta bost emakumeren bitartez taula gainera eramango ditu harreman pertsonalak.

Puro Odio, Cuero eta Revertt taldeek joko dute gaur gaztetxean

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimena bueltan da Bergarako gaztetxean. Gaur gauean, ekimen horren baitan, hainbat musika aukera eskainiko dituzte Bermeoko Puro Odio eta Revertt taldeetako kideek eta Bilbo aldeko Cuero taldeak. Emanaldia gaueko hamar eta erdietan hasiko da, Bergarako kartzela zaharrean.



Ondo pasa Gabon jaietan!



ABENDUA	ASTEARTEA 24	LARUNBATA 28	LARUNABATA 4
OSTIRALA 13 Haur eta gurasoentzako mahai jolasak 17:30-19:30 Odrondo azokan Antolatzailea: Bergarako ludotekak Gimnasia erritmikako erakustaldia 18:00 Labegaraletan kiroldegian	Olentzero eta Mari Domingi 12:30 Itzurdia plazan 18:30 udaleko atarian gutunak jasoko dira. • Osintxu 19:00 zubian • Angiozar 08:45 kantua plazatik bailarako auzo guztietara 19:00 plazan	Zientzia-talerra familian 11:00 - 12:30 Laboratorium museoa. Doan. Taula Periodikoaren erakusketa bisita gidatua 11:00 Laboratorium museoa. Eskaraz Infantil mailako eskubaloi txapelketa Labegaraletan	Gabonetako 3X3 torneo pilotalekuan
IGANDEA 15 Zinea 17:30 Zinea Seminarixoa. <i>Los Rodriguez y el más allá</i> . Sarrera 4€	OSTEGUNA 26 Lauko eta hiruko irristaketa-hockey txapelketa 09:00 Labegaraletan Aloko haur ikuskizuna 18:00etan Seminarixoa (3 urtetik gorakoentzat. Sarrera 4€) Jolas parkea 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Udai pilotalekuan 6 urtetik beherakoentzat. Eguneko sarrera 4€	IGANDEA 29 Taula Periodikoaren erakusketa bisita gidatua 11:00 Laboratorium museoa. Gastelaniaz Infantil mailako eskubaloi txapelketa Labegaraletan	IGANDEA 5 18:30 San Joaqui elkarteen eskutik txokolata banatuko zaie haurrei plazan. Errege kabalgata 19:00 Itzurdia: Udai Biltzea, Masterreka, Bideberri, Ibarra, Herriagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, Plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Amuriaga, Udai Biltzea Elsako kabalgata 18:00 Plazan
OSTIRALA 20 Txu-Txu tren 17:00-20:00 herriko kaleetan zehar Musika Eskolako Gabonetako Kontzertua 18:30 Udai pilotalekuan	OSTIRALA 27 Jolas parkea 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 pilotalekuan EHUNA haur ikuskizuna 16:30 eta 18:00 (1-6 urtekoentzat. Sarrera 4€) Jordi Pereyra youtuberra 18:00 Laboratorium museoa. Doan.	ASTEARTEA 31 San Silvestre txiki lasterketa solidarioa 11:30 Irala Kalean (Peñalba parean)	Gogoratu... Gabonetan, Olentzerok eta Mari Domingik udaletxeko atarian haurren gutunak jasoko dituzte!
OSTIRALA 21 Txu-Txu tren 11:30-14:30 eta 16:30-20:30 herriko kaleetan zehar	URTARRILA URTARRILAK 2, 3 ETA 4 JOLAS PARKEA 11:00-14:00 eta 17:00-20:00 Labegaraletan kiroldegian 7 urtetik beherakoentzat. Eguneko sarrera 4€. Bonus 10€		
LARUNBATA 22 Zinea 17:30 Zinea Seminarixoa. Bobby el erizo. Sarrera 4€			



Bi txirrindulari, iazko ziklo-kros proban, lokatz artean. IMANOL SORIANO

Eskolartekoek ere parte hartuko dute Oñatin

ZIKLO-KROSA X. sarian adin tartea zabalduko dute aurten ere. Kirola ezagutu gura dutenetatik hasi, eta elite mailan dihardutenera arte lehiatuko dira Euskadiko Challenge zirkuiturako puntuagarria den proban. Garagaltzarako bidea 09:00etan itxiko dute

Mireia Bikuña Madrid OÑATI

Euskadiko Challenge zirkuitua bukatzeko bost proba geratzen dira, Oñatikoa barne. Horietan zehaztuko dira zeintzuk diren aurtengo txapelak. Horrek esan gura du oraindik ere puntu asko daudela jokoan eta sailkapenaren goiko leketan dauden txirrindulariek lana gogotik egin beharko dutela. Horrek guztiorrek bermatzen du puntapuntako ziklistak egongo direla Oñatiko zirkuituan.

Goi mailako txirrindulariak diren horiei begira egongo dira eskolarteko mailan dabilen ziklista gazteak. Aurten ere, aukera izango dute lasterketako ibilbide berean bizikleta gainean trebatzeko. 11:00etan hasiko da euren lasterketa. Mendiko bizikleta erabili beharko dute, eta derrigor ipini beharko dute kaskoa. 10:00etan zabalduko da izen-ematea txikienendako.

Urrutxuko zirkuituko goranzko eta behearanzko aldapak probatzeko aukera izango dute.

Ibilbidean aldaketarik ez

Izan ere, Aloña Mendi txirrindularitza sailak apenas egin du aldaketarik azken urteetako zirkuituan. Irteera puntua Usako aldera ematen duen errepidean egongo da. Metro gutxira, eskuinetara, zelaira sartuko dira. Basotik errepidera irtengo dira berrero, eta, eskailera igota, Urrutxuko zelaiguneko ibilbidea egongo dute, eta berrero errepidera irtengo dira, Garagaltzan behera.

Zirkuitu horretan lehiatuko dira kategoria guztiak, gizonezkoak eta emakumezkoak: kadeteak, gazteak, 23 urtez azpikoak, eliteak eta masterrak. Azken horiek, adinaren arabera, maila ezberdinetan banatuko dira.

OÑATIKO PROBA PUNTUAGARRIA IZANGO DA EUSKADIKO CHALLENGERAKO

Etxeko ziklistak

Arrikrutz taldeko zikliseka arreta berezia piztuko dute domekan. Etxekoak direlako, baina, bereziki, denboraldi bikaina egiten dihardutelako. Kadete mailan lehiatuko dira Xabat Castaños eta Markel Zubia; eta gazte mailan Aritz Torres, Unai Cueva eta Aimar Erostarbe. Hain justu ere, Cueva bigarren lekuan dago Euskadiko Challengeko sailkapenean. Orain arte jokatutako probetan hirutan igo da podiumera. Egiten diharduen lanaren ordaina Pontevedran jokatuko den Espainiako Txapelketan jasoko du.

Aimar Madina kadeteak ere bikain dihardu aurten, baina ez da etxeko proban egongo. Asteburuan Valentzian egongo da, Euskadiko Selekzioaren elastikoarekin.

Ziklo-krosaren harira, Garagaltza auzora doan errepidea itxita egongo da 09:00etatik 13:30era. Auzora joateko Lamiategiko bidea erabili beharko da.

Emakumeen Gabonetako futbol txapelketa, hilaren 28an

FUTBOLA Debagoieneko Selekzioak, Alavesek eta Realak jokatuko dute XV. txapelketa, Aretxabaletan, Ibarra

M.B.M. ARETXABALETA

Arizmendi Kirol Elkartek hamabosgarrenez egingo du emakumeen futbol txapelketa. Hilaren 28an jokatuko da hirukoa, Aretxabaletako futbol zelaian, 16:30ean. Aurten, nor baino nor gehiago Debagoieneko Selekzioa, Alaves eta Realak egongo dira. Astean egindako agerraldian, Arizmendi Ikastolarendako halako txapelketa bat antolatzeak duen garrantzia azpimarratu dute. "Emakumeen kirola sustatzeko txapelketa oso garrantzitsua da. Lan soziala egiten

dugu", azaldu du Arizmendiko zuzendaritzako kide Aitor Guridik.

Hala, bailaran dauden emakume futbolariak presentzia nabarmena izango dute. Aloña Mendiko, Bergarako, eta Leintz Arizmendiko jokalariek osatuko dute Debagoieneko Selekzioa.

Harrobiko taldeak

Hilaren 29an, harrobietako taldeen txanda izango da. Infantil, kadete eta alebin mailetako taldeek euren txapelketak jokatuko dituzte, leku berean.



JOSU TORNAY

Espainiako kopan, Benidormen

XAKEA Arrasateko xakelari gazteak Benidormeko jaialdian egon ziren aurreko asteburuan. Han jokatu ziren Espainiako banakako eta taldekako kopak. Aritz Tornay bakarka lehiatu zen, eta nazioarteko rankingean 19 puntu gora egin zuen. Ostean, arreba Haizearekin, taldeka lehiatu ziren. 51 parte-hartzailearen artean, 40. bukatu zuten Tornay anai-arrebek.

FUTBOLA Azken asteetako hobekuntza derbian erakustera

Badirudi Mondrak eta UDAk bolada ona harrapatu dutela. Azken bi jardunaldietan puntuak lortzeko gai izan dira bi taldeak, eta bide horretatik jarraitu gura dute asteburuan. Hori bai, derbia jokatuko dute oraingoan (domeka, Mojategi, 16:30), eta biek ezingo dute irabazi. Dena den, urteko azken-aurreko jardunaldian, puntuak beharrezkoak

dira bi taldeendako: arrasatearrak hamahiru dituzte eta aretxabaletarrak, hamazazpi.

Era berean, puntuak ezinbestekoak dira Bergararendako, Zarautzen kontrako lehiak (domeka, Agorrosin, 12:00). Azken bi jardunaldietan lortutako lau puntuei esker, arnas apur bat hartu dute mahoneroek. Baina ezin dira erlaxatu. Zarautz ez da kontrario erraza izango, baina, sailkapenean gora egiteko, etxeko puntuak lortzea garrantzitsua da.



laz, Santamas Krosean kuadrilla bat korrika. IMANOL SORIANO

Arineketan egiteko gertu, banaka edo kuadrillaka

Arrasate Kanpanzar Atletiko Taldeak antolatuta, 42. Santamas Krosa eta Enrike Kabiketa 17. memoriala izango da domeka honetan, 12:30ean, Monte taberna parean hasita. 11:00etan, berriz, haur eta gaztetxoendako zazpi proba izango dira

Imanol Beloki ARRASATE
Arrasate Kanpanzar Atletiko Taldeak antolatuta, domeka honetan izango da 42. Santamas Krosa eta Enrike Kabiketa 17. memoriala. Nagusien lasterketa 12:30ean hasiko da; aurretik, berriz, gaztetxoendako probak egingo dituzte, 11:00etan hasita, Erdiko eta Iturriotz kaleen artean. Hori horrela, Arrasateko erdiguneko kaleak korrikalariz beteko dira domeka honetan, beste urte batez, Gabonen atarian, orduan izaten diren bazkari eta afarietako gehiegikeriei aurre egiteko asmoz.

Santamas krosa lagunartean egiteko lasterketa herrikoia da, jakina den moduan, eta izaten den giro berezia nabarmentzekoa izaten da urtero. Berrikuntza barik, sei kilometrora iristen ez den bidea izango dute aurretik korrikalariak, eta izen-ematea probaren egunean bertan egin beharko dute –prezioa bost euro da–. Parte-hartze handia aurreikusten dutela adierazi du Jon

Ormaetxea antolakuntza taldeko kideak: "Urtero, 250-300 lagunek ematen dute izena lasterketan, eta aurten ere halako kopurua aurreikusten dugu. Honekin batera, lasterketa ikusten eta korrikalariak animatzen ikusle asko izaten dira; ea aurten ere hala den eta eguraldiak laguntzen digun".

Monte taberna parean hasita, Portaloian gora abiatuko dira korrikalariak, eta herrigunean zehar izango da lasterketa osoa. Zirkuituari hiru itzuli eman beharko dizkiote arineketan egiteko prest agertzen direnek, besteak beste, Erdiko kaletik, Olartetik eta Garibaitik igarota, eta helmuga, berriz, Herriko Plazan izango da.

SEI KILOMETRORA IRISTEN EZ DEN IBILBIDEA IZANGO DUTE AURRETIK KORRIKALARIEK

Bakarka eta kuadrillaka
Bakarkako sariez gain, Santamas Krosak duen berezitasun bat kuadrillako banatzen diren sariak dira. Eskualde mailako lasterketa bada ere, kanpotik etorritakoek ere parte hartu ahal izango dute; betiere, 16 urtetik gorakoek. Hala ere, kuadrillako saria Debagoieneko kuadrillek bakarrik lortu ahal izango dute.

Hala, bi sailkapen jarriko dituzte, bakarkakoa eta kuadrillen artekoa. Azken honetarako, bost azkarrenen denborak hartuko dituzte kontuan, bai gizonezkoetan eta baita emakumezkoetan ere.

Gaztetxoendako lasterketak
Haur eta gaztetxoei zuzendutako kategorian, berriz, zazpi proba prestatu dituzte egunerako antolatzaileek. 11:00etan hasita, 5 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek lasterketak izango dira. Adinaren arabera banatu dituzte.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA	EMAKUMEZKO OHOREZ.	Salleko-Mekaldi Aloña
OHOREZKO ERREGIONA.	Tolosa-Bergara	Domeka. 12:30. Las Llanas.
Mondra-Aretxabaleta	Zapatua. 17:15. Usabal.	GIP. SENIOR. GIZONAK
Domeka. 16:30. Mojategi.	Leintz Arizmendi-Goierri	Añorga-Bergara Soral.
Bergara-Zarautz	Zapatua. 17:45.	Zapatua. 18:00. Benta Berri.
Domeka. 12:00.	Azkoagain.	GIP. SENIOR. EMAKUME.
Agorrosin.	ARETO FUTBOLA	Eskoriatza-AZ Casa de la Rioja
ERREGIONAL PREFEREN.	MAILA NAZIONALA	Egubakoitza. 20:15.
Getariako-Aretxabaleta	Lagun Onak-Eskoriatza	Manuel Muñoz.
Zapatua. 16:30.	Domeka. 18:00. Urreta.	ESKUBALOIA
Mendibeltz.	EUSKADIKO TXAPELKETA	Aretxabaleta-Tolosala
Antzuola-Aloña Mendi	Zapatua. 12:00. Ibarra.	Zapatua. 12:00. Ibarra.
Zapatua. 16:00. Eztala.	Uxo-Mondrate	Fagor Indu.-Ereintza
Mondra-Orioko	Zapatua. 17:00. Laudio.	Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Zapatua. 16:30. Mojategi.	SENIOR EMAKUMEZKOAK	Ford Mugarri-Urnieta
LEHEN ERREGIONALA	Eskoriatza-Ordizia	Domeka. 11:30. Iturripe.
Mutriku-Aloña Mendi	Zapatua. 19:30. Manuel Muñoz.	EUSK. TXAP. EMAKUM.
Domeka. 18:30. San Miguel.	SASKIBALOIA	Berango-Cons. Aloña
Aretxabaleta-Elgoibar	EBA	Domeka. 13:00. Berango.
Zapatua. 16:30. Ibarra.	La Flecha-MU	GIPUZKOAKO SENORRAK
Bergara-Zestoa	Zapatua. 18:30. La Vega, Valladolid.	Soraluce BKE-Labarra
Zapatua. 17:45. Ipintza.	EUSKADIKO TXAPELKETA	Zapatua. 17:45.
OHOREZKO GAZTEAK	Alkideba Ointxe-Lakua San Prudencio	Labegarieta.
Urola-Mondra	Domeka. 18:00. Iturripe.	ERRUGBIA
Domeka. 18:00. Argixao.		EUSKADIKO TXAPELKETA
Lagun Onak-Aretxabaleta		ART Kanpazar.-La unica
Domeka. 15:15.		Domeka. 12:00. Mojategi.
Garmendipe.		
Ilintxa-Aloña Mendi		
Domeka. 16:00. Bikuña.		
Amaiak Bat-Bergara		
Zapatua. 12:00. Errotazar.		

Lehenengo itzulia amaitzeko bi partiduren faltan, puntu bila

Fagor Industrial Aloña Mendi eta Ford Mugarri Arrasate eskubaloitza taldeek etxean jokatu dituzte partiduen

I.B. OÑATI/ARRASATE
Fagor Industrial Aloña Mendi taldeak Ereintza taldearen aurka jokatu du zapatu honetan, 18:00etan, Zubikoan. Ford Mugarri Arrasate taldeak, berriz, Urnietaren aurka jokatu du domekan, 11:30ean, Iturripen.

Aitor Gartziaren eta Ander Ugarteren mutilak bi puntuen bila irtengo dira kantzara zapatuan. Ereintza talde oreretarren aurka neurtuko dituzte indarrak, eta hirugarren garaipena erreskadan lortzeko gogoz daude oñatiarrak. Pasa den asteburuan, sanmigeletan atzeratutako partidua jokatu zuten Gure Auzune taldearen kontra, eta 25-15 irabazi zuten, eta, horrekin batera, Escolapiosen aurkakoa ere irabazita (31-26), asteburu honetan hirugarren partidua izango dute segidan, etxean jokatu dutena.

Ford Mugarri
Ford Mugarri Arrasate taldeak, berriz, jardunaldi kaskarra jokatu zuen pasa den astean; izan ere, 14 gol soilik sartuta, 26-14 galduta zuten Urdaneta taldearen aurka. Ez zutela lan ona egin defentsan eta erasoan, adierazi du Josu Herrero jokalariek, baina denboraldian zehar egiten ari diren lanarekin pozik daudela nabarmendu du: "Denboraldi oso dinamika ona izaten ari da, baina pasa den jardunaldian ez genuen partidua jokatu. Lehenengo itzulia amaitzeko bi partidua geratzen zaizkigu, eta biak irabazi nahi genituzke. Hain zuzen ere, domeka honetan, etxean jokatu garaipenaren bila irtengo gara kantzara. Sailkapenean bosgarren postuan gaude eta goiko postuetan mantentzeko puntuak behar ditugu..."

200 ahots eta hamaika Gabon kanta Arantzazun

Aretxabaletako, Oñatiko, Arrasateko eta Azkoitiko sei abesbatza batuko dira abenduaren 14an, Gabon Kantak kontzertua eskaintzeko. Hitzordu honetan, Sapere Aude Sinfonietta taldeak joko ditu doinuak Fernando Velazquezen zuzendaritzapean

Naroa Urien OÑATI

Aretxabaletako Aretxabaleta Abesbatza eta Leizarra musika eskola, Oñatiko Ganbara, Arrasateko Goikobalu eta Goikobalu Txiki eta Azkoitiko Bizkargi izango dira kontzertu berezian parte hartuko dutenak. Sarrera doan izango da eta 1.500 pertsona inguru hurreratu ahal izango dira ikuskizunaz gozatzen abenduaren 14an, 19:00etan.

Gabonei ongietorria

Hamar kantu inguru eskainiko dituzte Arantzazuko kontzertuan. Kooperatiben soinu banda jasotzen duen *Humanity at music* zortzi piezako albumeko hiru kantu eskainiko dituzte, batetik: *Banaketa*, *Internazionalizazioa eta Etorkizuna*–; eta, bestetik, betiko Gabon kantak: *Hator Hator*, *Olentzero*, *Oi Bethlem*.... Kontzertu honen bitartez Gabonei ongi etorria ematea da helburua, eta, modu berean, Debagoieneko herriarrek kontzertu berezi honekin gozatzea, Arantzazun, leku magikoan.

Talde-lana nagusi

Mondragonen eta ETBren arteko kolaborazio-lan honek elkarlanerako bidea zabaltu die abesbatzei. Talde guztiak kalitate handikoak dira, baina denak



Abesbatzen entsegua, Arrasateko San Frantzisko Xabier elizan. JAVIER MARCOS

kontzertu bakar batean biltzea ez da lan erraza. Lan bikaina egin ahal izateko, abesbatzak entsegu asko egiten ari dira ahotsak ahalik eta ondoen nahasteko. Azken entsegua abenduaren 14an bertan, kontzertu nagusia baino lehen, egingo dute.

Oholtza berezia

Arantzazuko santutegiaren xarma ukalezina da. Eta, are gehiago, bertako isiltasunari 200 ahots zoragarri eta hamabi musikari bikain gehitzen bazaizkio. "Benetan zoragarria da Arantzazun

kontzertu bat eman ahal izatea; bertara, gainera, jende asko etor daiteke kontzertua ikustera", dio Javier Marcosek, Mondragoneko komunikazio zuzendari eta Aretxabaleta Abesbatzako kideak.

Gabon gaueko saioan

Kontzertua euskal Gabonen atal garrantzitsua bilakatuko da; izan ere, abenduaren 14an 16:30ean egingo den entsegua ETBk grabatuko du, eta abenduaren 24an Gabon gauean emitituko dute telebistan.

Ratoi Radu garaile Arrasate Hiria akordeoi lehiaketan

Lehiaketaren 40. edizioan 300 parte hartzaile baino gehiago aritu dira, emakumeen presentzia handiarekin

N.U. ARRASATE

Abenduaren 6an hasi eta aste-buru osoan, Arrasateko Akordeoi Lehiaketan 2019ko edizioa egin dute Amaia antzokian. Guztira, 300 parte hartzailetik gora batu ditu probak, hiru zatitan banatuta: Gipuzkoa Lehiaketa, Gipuzkoako Jaialdia eta Nazioarteko Arrasate Hiria lehiaketa.

Harrera "bikaina"

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak antolatutako lehiaketek 40. aldia izan dute aurten. Hitzorduak akordeoia herriarrei gerturatzea zuen helburuetako bat, eta antolakuntzatik pozik agertu dira emaitzarekin. "Azken bi urteetan jende gehiago etortzen ari da lehiaketa ikustera eta horrek poztu egiten gaitu", dio Aitor Furundarenak, Hauspoz elkarreko kideak.



Ratoi Radu saria jasotzen IBAI ZABALA

Ratoi Radu garaile

Epaimahaiak 21 urteko moldaviarrari eman zion lehen postua Amaia antzokian, eta sariak izan ziren 4.000 euro eta 2020an bira bat egiteko aukera; Arrasateko alkate Maria Ubarretxena eman zizkion sariok.

Suzuki taldeen elkartruke musikala Arrasaten

Arrasate Musikaleko eta Bergara Musika Eskolako Suzuki taldeek kontzertua emango dute abenduaren 13an, arratsaldeko sei eta erdietan, Kulturateko klastroetan.

Hain zuzen ere, 3 urtetik gorako 50 biolinista inguru batuko dira eta hamahiru pieza joko dituzte, Rakel Hernandez pianistaren laguntzarekin.

Lehenengo lankidetz

Suzuki taldeek abenduaren 13an joko duten kontzertua euren lehendabiziko elkartruke musikala izango da. "Oso pozik gaude lortutako emaitzekin. Bergarako eta Arrasateko Suzuki taldeen artean oso ondo ulertzen dute elkar eta hori oholtza gainean asko nabaritzen da", dio Edorta Ayastuyk, Arrasate Musikaleko ekintza arduradunak.

